

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Elorrio



Aurkibidea

Udalerria: Elorrio

Sarrera



Elorrio Bizkaiko hego-ekialdean dagoen udalerria da, Gipuzkoa eta Arabarekiko mugan kokatuta, Durangaldearen barruan, Udalaitez mendiaren azpian. Elorrioren mugakideak honakoak dira: iparraldean Berriz eta Zaldibar, hegoaldean Arrasate (Gipuzkoa) eta Aramaio (Araba), sortaldean Elgeta eta Bergara (Gipuzkoa) eta sartaldean Atxondo eta Abadiño. Hiriguneak eta ondorengo auzoek osatzen dute udalerria: Aidazua, Aldape, Aramiño, Arauneta, Berrio, Berriozabaleta, Gazeta, Gaztañeta, Iguria, Leiz, Miñota, Lekeriketa, Mendraka, San Agustin eta Zenita. *Argazkia: Wikipedia*

- **Biztanleak:** 7.160
- **Euskaldunak:** %58,8

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **205**
- Zintak: **198**
- Pasarteak: **757**
- Transkribatutakoak: **56**
- Audioak: **25**
- Bideoak: **723**

Proiektuak

- Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak
- Dialektologia-EHU
- Durango 1936
- Elorrioko ahotsak
- Elorrioko toponimia
- Elorrion Elorriok Elorrioz barriketan
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- IRALeren Bizkaiera Bilduma
- Karobiak, txondorrak eta elurzuloak

Hizlariak



Mariasun Agirre Akiso (1932)

Igurua auzoko Amuskibartxikia baserrikoa. Gurasoak ere elorriarrak zituen. Elorrioko kontuak jasotzeko hainbat proiektutan hartu zuen parte.

Maria Angeles Agirre Belar (1959)

Urkizuaran auzoko Larrazabal baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa [ama](#)rekin batera.

Jose Agirre Ibarondo (1941)



Gazeta auzoko Garaizabalerdikoa baserrian jaioa. Ama Gazetakoa zuen eta aita Iguriakoa. Enpresan aritu izan da lanean. Elorrioko garai bateko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Elorriok Elorrioz barriketan](#) proiekturako, [Alberto Ibarondo](#)rekin batera.

Jesus Agirre Lamarain (1938-2015)

Gazeta auzoko Anguren baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan, [Mari Karmen Arruabarrena](#) emaztearekin batera.

Begoña Agirre Lupiola (1937)

Zenita auzoko Galartzabarrena baserrian jaioa. Aita Abadiñokoa. Ama zuen Galartzabarrena baserrian jaioa, baina amaren aita ere Abadiñotik etorria zen. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Juan Antonio Agirre Murgoitio (1952)

Urkizuaran auzoko San Bizente baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [ama](#)rekin eta [Rosa Mari Esnaola](#) emaztearekin batera.

Kontxi Agirre Uriarte (1942)

Lekeriketa auzoko Lekerikabarrena baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Benita Agirrebeitia Arruabarrena (1934)

Gazeta auzoko Artealde baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa [Alejandro Garaiolaun](#) senarrarekin batera, 2005 inguruan.

Jose Agirrebeitia Arruabarrena (1936)

Miota auzoko Arespakotxaga baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa Mila Sarraoarekin batera.

Jose Aizpurua Murgoitio (1931)



Zenita auzoko Artealde baserrian jaio zen Errepublika aldarrikatu zen egun berean. Aita gerran hil zitzaion berak sei urte zituela. Ezkondua. Baserrian lan asko egindakoa, ganaduekin batez ere. Elkarrizketa egin zitzaionean, oraindik ere 33 abelburu zituen. Elorrioko Funcor kooperatiban urte luzez jarduna.

Maria Aizpurua Murgoitio (1933)



Zenita auzoko Artealde baserrian jaio zen (Larrea ere deitua). Bi anai-arreba dira. Jose anaiaren elkarrizketa ere aurki dezakegu webgune honetan. Aita gerran hil zitzaion, lau urte zituela. Auzo bereko Zenitaldekoa baserrira ezkondu zen hogeitertekin. Hiru seme-alabaren ama. Etxeko eta baserriko lanetara emana igaro du bizi guztia. Oraindik ere 13 abelburu gobernatzen ditu, semearen laguntzaz.

Feliziana Alberdi Olabegoia (1934)

Berrizen jaioa. Elorriora ezkondu zen, Arabioazpikoa baserrira, eta bertako toponimoak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean.

Amaia Aldazabal Laskurain (1954)

Soraluzeko Aldasoro baserrikoa izatez. Elorriora ezkondu zen, Gazeta auzoko Gerbillao baserrira. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan.

Ziriako Alkorta Maortua (1915-2011)

Gazeta auzoko Garaizabalganekoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan, auzoko [Bitor Garai](#) eta [Juanita Azkarraga-Urizar](#)rekin batera.

Sabino Altzerreka Ugaldea (1934)

San Agustin auzoko Benteruena baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Dori Ania Ojanguren (1953)

Zenita auzoko Zenitaolea baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Jabier Arabiotorre Lasuen (1929)

Elorrioko Arabio auzoko Arabioganekoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Jose Luis Arando Murgoitio (1936)

Gastea auzoko Gasteaburu baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Inazio Aranzabal Berrio (1949)

Berrio auzoko Berriobeña baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Patxi Aranzabal Eguren (1942)

Gastea auzoko Gasteaaurekoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Asensio Arbulu Aranes (1925)

Urkizuaran auzoko Azkarragabarrena baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Teodora Arbulu Aranes (1915-2008)

Urkizuaran auzoko Azkarragaerdikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean.

Jaime Arbulu Gabiola (1934)

Miota auzoko Miotazabala baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Jose Luis Ardanza Errasti (1929)



Aldape auzoko Maortua baserrian jaioa. Baserria erre egin zen 1971an eta etxe berria egin zuten leku berean. Aita etzekoa eta ama Berrioko Errasti baserrikoa. Sei neba-arrebaren artean hirugarrena. Elorrioko herri-eskolan ibili zen txikitan. Gerra oso gertutik bizi izan zuen, beraien baserria Intxorta mendiaren magalean dago-eta. Aita, etxeko ganaduekin, Sopuertara joan zen gerra-denboran, eta neba-arreba guztiak etxean geratu ziren amarekin. Funcor kooperatiban egin zuen lan.

Juan Ardanza Errasti (1927-2014)



Aldape auzoko Maortua baserrian jaioa. Baserria erre egin zen 1971an eta etxe berria egin zuten leku berean. Aita etzekoa eta ama Berrioko Errasti baserrikoa. Sei neba-arrebaren artean bigarrena. Elorrioko herri-eskolan ibili zen txikitan. Gerra oso gertutik bizi izan zuen, beraien baserria Intxorta mendiaren magalean dago-eta. Aita, etxeko ganaduekin, Sopuertara joan zen gerra-denboran, eta neba-arreba guztiak etxean geratu ziren amarekin. Baserriko ohiko beharrez gain, Elorrioko zerrategi batean egin zuen lan bizi osoan. Ondo ezagutzen zituen basoko eta zerrategiko lanak.

Jose Antonio Ardanza Garro (1941-2024)

Politikari jeltzalea eta enpresaburua. Elorriion jaioa, guraso biak baserritarrak zituen, kalera bizi izatera joandakoak. Hiru urte eta erdi zituela ama hil zitzaion. Orduan Ondarroara joan zen bizitzera, osaba-izebekin, aldi baterako. Zortzi urterekin bueltatu zen Elorriora, ondarrutarrez berbetan. Aita berriro ezkondu zen. Herri eskolan ibili zen Jose Antonio, eta 12 urterekin Derioko seminariora bidali zuten. 18 urte bete arte egon zen han. Elorriora bueltatu zenean, herri mugimenduan murgildu zen: antzerkia, mendi taldea, Elizaren bueltako gazte taldeak... politikarako harra ere bazuen ordurako. Zuzenbidea ikasten hasi zen Bilbon, Deustuko unibertsitatean, eta EGiko kide egin zen; talde klandestinoan zen garai hartan. Ezkutatuta ere egon behar izan zuen, Polizia segika zuelako. Hautzaroko eta gaztaroko pasadizoak kontatu zizkigun Ardanzak, Franco hil aurrekoak. Ondoren Arrasateko alkate izan zen, Gipuzkoako Ahdun Nagusi eta Eusko Jaurlaritzako lehendakaria (1985-1999). Euskalteleko presidentea izan zen. Ezkondu egin zen eta bi seme-alaba izan zituzten.



Alejandro Ardanza Ogiza (1923-2005)

Elorrioko Berriotxoa kalean jaio zen, Berriotxoa etxean, hain zuzen ere. Elorrioko kontuak jasotzeko hainbat proiektutarako egin zitzaizkion elkarrizketak.



Jesus Areitiourtena Markoida (1934)

San Pio kalekoa. Inguruko toponimoak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Narciso Gongeta](#) eta [Jose Luis Erizekin](#) batera.

Antoni Arginzoniz Berriozabal (1915-2013)

Zaldibarren jaioa. Bi urte inguru zituela, Aldape auzoko Otsaerdikoa baserrira joan ziren bizitzera. Mendraka auzora ezkondu zen. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Juana Arginzoniz Guenetxe (1932)

Gazeta auzoko Burginas baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Arantza](#) alabarekin batera.



Lorenzo Arietaleanizbeaskoa (1958)

Berriozabaleta auzoan jaioa, ezkonduz gero kalean bizi da. Ehiztari eta mendizale amorratua, gaztea izan arren ehizaren eta txorien inguruko hainbat kontu ezagutzen ditu.



Eusebio Arietaleanizbeaskoa Agirrezabal (1922)

Berriozabaleta auzoko Berriozabalgoitia baserrian jaioa, bertan bizi da, ezkondua. Aita Leizkoa zuen eta ama jaiotetxekoa. Aita etxaun etxekoa zenez, ez zioten amarekin ezkontzen utzi nahi "errentadorea" zelako. Hamaika anai-arreba ei ziren eta denak propietarioekin ezkondu ziren. Eurak bost anai-arreba dira. Errenteroak (maizterrak) dira oraindik ere, inguruan geratzen diren bakarrenetakoak. Berrogei urtez burdinlangintzako lantegi batean jardun zuen arren, beti egin du lan baserrian. Oso ganaduzalea, oraindik ere hamaika buru ditu, emaztearen eta iloba baten laguntzaz hazten dituenak.



Felisa Arietaleanizbeaskoa Altzerreka (1927)

Gazeta auzoko Barrutibarria baserrian jaio zen. Ama ume txikia zela hil zitzaion eta aitarekin hazi zen. Hiru ahizpetatik bigarrena. Ama kalekoa zuen eta aita jaiotetxekoa. Gerra ezagutu zuen zortzi urterekin, Intxortako frontea etxetik oso gertu zuten eta. Gasteizko Sagrado Corazón ikastetxean egin zituen ikasketak. Baserrira itzuli eta hango lanetara emanda igaro du bizi guztia. Baserri indartsua izan dute: Idiak, behiak, behorrak, soroak eta pinudi handiak.



Frantziska Arietaleanizbeaskoa Altzerreka (1929)

Gazeta auzoko Barrutibarria baserrian jaio zen. Aita baserri horretakoa zen eta ama Elorrio kalekoa. Ama ume txikia zela hil zitzaion eta aitarekin hazi zen, bere bi ahizpa nagusiekin batera. Gerra ezagutu zuen zortzi urterekin, Intxortako frontea etxetik oso gertu zuten eta. Gasteizko Sagrado Corazón ikastetxean ibili zen pare bat urtez. Berrizen ere ibili zen ikasten apaiz batekin. Baserriko lanetan jardun du bizi guztia. Baserri indartsua izan dute: idiak, behiak, behorrak, soroak eta pinudi ederrak.



Isabel Arietaleanizbeaskoa Altzerreka (1925-2008)

Gazeta auzoko Barrutibarria baserrian jaio zen. Ama ume txikia zela hil zitzaion eta aitarekin hazi zen. Hiru ahizpetatik nagusia. Beti jardun zuen baserriko beharretan.

Asun Arietaleanizbeaskoa Ibabe (1920-2016)

Leiz auzoko Leizbeaskoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Jose Luis Arregi Arrieta (1951)

San Agustin auzoko Telleria baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Juan Arregi Kortabarria (1932-2018)

Lekeriketa auzoko Lekerikamartena baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Mari Karmen](#) arrebarekin batera.

Mari Karmen Arregi Kortabarria (1943)

Lekeriketa auzoko Lekerikamartena baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, Juan anaiarekin batera.

Maria Josepa Arregi Onagoitia (1940)

San Pio kalekoa. Inguruko toponimoak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean, [Begoña Etxaniz](#) eta [Maria Uriarte](#)ekin batera.

Adolfo Arriolabengoa Abasolo (1933-2011)

Erreka kalekoa. Inguruko toponimoak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Maritxu Igarza](#) emaztearekin batera.

Maria Angeles Arrizabalaga Uriarte (1942)

Urkizuaran auzoko Aidazugoikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Felix Arruabarrena Lazkano (1931)

Gazeta auzoko Bolungarai baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan, [Juana](#) eta [Maria Jesus](#) arrebeekin batera.

Juana Arruabarrena Lazkano (1924-2015)



Elorrioko Gazeta auzoko Bolungarai baserrian jaioa. Bertan bizi izan da bizi guztia etxe eta baserriko lanetara dedikatua. Aita etxe berekoa eta ama Elorrioko Lekeriketa auzokoa. Sei neba-arreba ziren. Ezkongabea, bere ahizpa Maria Jesusekin bizi izan da baserrian. Gazetako Kofradia Eguneko afaria gertatu zuen urte askoan. Paregabea ei da berak gertatzen duen bakailaoa. Errezeta kontatu zigun elkarrizketan, zehatz-mehatz.

Maria Jesus Arruabarrena Lazkano (1922)



Elorrioko Gazeta auzoko Bolungarai baserrian jaioa. Oso gaztea zela neskame lanetan aritu zen Bergaran, baina gerra irten zenean etxera itzuli zen. Gero ere neskame ibili zen hainbat lekutan, Gasteizen esate baterako. Aita etxe berekoa eta ama Elorrioko Lekeriketa auzokoa. Sei neba-arreba ziren. Ezkongabea, bere ahizpa Juana eta biak bizi dira bakarrik baserrian.

Mari Karmen Arruabarrena Murgoitio (1941-2014)

Gazeta auzoko Anguren baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan, [Jesus Agirre](#) senarrarekin batera.

Jose Asua Uribarri (1927)

Miota auzoko Miotaaurrekoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Pantxi Azkarate Azkarate (1936)

San Agustin auzoko Aretxederraga baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Agustin Azkarate Mendikoetxea (1931-2019)

San Agustin auzoko Aretxederraga baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Basilio Azkarate Orbegozo (1936)

San Agustin auzoko Etxebarriandikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Pantxi Azkarate Orbegozo (1932-2018)

San Agustinekoa. Ibarluzeolakoa baserrira ezkondu zen. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.



Paulina Azkargorta Berrio (1902)

Elorrioko Berrio auzoko Etxetxo baserrian jaio zen. Gaztetan elur-zuloaren inguruko lanak gertutik ikusi zituen.

Jose Domingo Azkarraga-Urizar Igarza (1925-2010)

Urkizuaran auzoko Ortuburu baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Karmen Igarza](#) emaztearekin batera.

Juanita Azkarraga-Urizar Uribarren (1931)

Gazeta auzoko Urizarrazpikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan, [Bitor Garai](#) senarrarekin eta auzoko [Ziriako Alkorta](#)rekin batera.

Petra Azkonizaga Larrañaga (1918-2012)

Aldape auzoko Maortutxiki baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan.

Sabino Balanzategi Arando (1927-2010)

Aldape auzoko Aldapebeitia baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Tere Balanzategi Arando (1932)

Aldape auzoko Aldapebeitia baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Jose Mari Barrutieta Azkarraga-Urizar (1948)

Urkizuaran auzoko Errementarikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Kruzita Basabe Lazkano (1926)

Elorrioko herrigunean jaioa. Inguruko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean, [Manolo](#) anaiarekin batera.

Manolo Basabe Lazkano Txatxi (1932-2012)

Elorrioko herrigunean jaioa. Inguruko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean, [Kruzita](#) arrebarekin batera.

Tomas Basauri Aranzabal (1940)

Berio auzoko Berrioiturri baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Damaso Basauri Zubillaga (1912)



Elorrioko Berrio auzoko Iturri baserrian jaio zen 1912an. Mutil gaztea zela, auzo horretako elur-zuloa betetzeko lanak hurbiletik ezagutu zituen.

Rikardo Bazeta Besoitaguena (1930)

Leiz auzoko Leizaldekoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Espe Beitia Arietaleanizbeaskoa (1935)



Iguria auzokoa. Ama Elorriokoa zuen eta aita, berriz, Aramaiokoa. Elorrioko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Elorriok Elorrioz barriketan](#) proiekturako, [Mariasun Agirre](#)rekin eta [Karmen](#) ahizparekin batera.

Esteban Beitia Arietaleanizbeaskoa (1932-2022)

Leiz auzoko Leizbeaskoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Karmen Beitia Arietaleanizbeaskoa (1938)



Iguria auzokoa. Ama Elorriokoa zuen eta aita, berriz, Aramaiokoa. Elorrioko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Elorriok Elorrioz barriketan](#) proiekturako, [Mariasun Agirre](#)rekin eta [Espe](#) ahizparekin batera.

Jabier Beitia Lasuen (1952)

Arauneta auzoko Osintxueta baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Justina Belar Ibarrarauna (1923-2010)

Urkizuaran auzoko Larrakoerrota (Larrakorta) baserrian jaio eta auzo bereko Larrazabal baserrian bizi izandakoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean.

Felix Berrio Zenitagoia (1918)



Elorrioko Berrio auzoko Berrioaldekoa baserrian jaio zen 1918an. Aita Berriokoa bertakoa zuen eta ama Zenitakoa (Argiñeta ondoan). 55 urte ingururekin Elorriora, herrira, joan zen bizitzera. Mutikotan Berrioko elur-zuloan elurra pilatzen ikusitakoa da.

Isidro Berrio Zenitagoia (1933)

Berrio auzoko Berrioaldekoa baserrikoa. Aita Berriokoa bertakoa zuen eta ama Zenitakoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Juan Mari Berriozabal Arrieta (1948)

Gazeta auzoko Anguren baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Tomas Berriozabal Bengoa (1944)

Iguria auzoko Zubiaurrazpikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko elkarrizketa egin zitzaion.

Visitacion Berriozabalgoitia Bilbao (1929-2016)

Miota auzoko Arboletatxikia baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Faustino Berrondo

Blanca Egidazu Atxa (1926)

Elorrioko Buzkantz kalean jaioa, hamaika neba-arrebako familian. Inguruko toponimia batzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean, bere ahizpa [Jesusa](#) eta [Tere](#)ekin batera.

Jesusa Egidazu Atxa (1921)

Elorrioko Buzkantz kalean jaioa, hamaika neba-arrebako familian. Inguruko toponimia batzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean, bere ahizpa [Tere](#) eta [Blanca](#)ekin batera.

Tere Egidazu Atxa (1931)

Elorrioko Buzkantz kalean jaioa, hamaika neba-arrebako familian. Inguruko toponimia batzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean, bere ahizpa [Jesusa](#) eta [Blanca](#)ekin batera.

Claudio Egidazu Gongeta (1925)



Gazeta auzoko Gazetabeitia (edo Gazeta Behetikoa) baserrian jaio zen. Guraso biak ere Gazetakoak. Bederatzi anai-arreba. Oroitzapen biziak ditu gerrateaz, bere baserria Intxortako frontetik oso hurbil baitzegoen. 14 urterekin hasi zen lantegi batean, baina baserriko lanari oso lotuta egon da bizi guztian. Ortua du orain ere. Gariaren eta artoaren lanak, ganaduen gorabeherak eta abar zehaztasun handiz kontatu dizkigu.

Irene Eguen Belar (1932)

Mendraga auzoko Mendrakagoia baserrian jaioa. Sei neba-arreba ziren. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Martxel Eguen Belar (1928-2019)



Mendraga auzoko Mendrakagoia baserrian jaioa. Sei neba-arrebatatik hirugarrena. Mutiko txikia zela ezagutu zuen gerra, baina oso gogoan ditu orduko oroitzapenak. Ezkondua. Errentadoreak ziren, maizterrak. Baserrian lan asko egin bere denboran, eta fabrikari ere bai. Elorrioko Funcor kooperatiba handian ibili zen lanean ia bere sorreratik, itxi zen arte.

Tere Eguen Eguren (1936)

Lekeriketa auzoko Telletxe baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Felix Larrinaga](#) senarrarekin batera.

Alejandra Eguen Zabala (1928)



Lekeriketa auzoko Telletxe baserrian jaioa. Aita etxekoa eta ama Mallabikoa. Lehengusuak ziren. Lau ahizpa izan dira, bera nagusiena. Ama alarguna zuen, eta bera "maiorazkia" zenez, gazte ezkondu behar izan zuen, 18 urterekin. Bost seme-alaba izan ditu eta beharra gogor egitea egokitu zaio bere bizitzan, etxeko zein kanpoko lanetan. "Gizonen lanak" egitea ere sarri tokatu izan zaio: satsak atera, ira-gurdiak kargatu eta gidatu eta horrelakoak. 2000. urtean jaitsi zen kalera bizi izatera. Dantzazale amorratua, oso erromeria zalea izan da. Dantza lotuko baltsa, runba, tangoa, zein askatuko fandango edo arin-arinak oso maiteak izan ditu. Kartetan ere astero jokatu izan du bere lagunekin, kulapean edo briskan batez ere. Gazetako lehiaketan txapeldun geratutakoa da briskan.

Genara Eguren Amiano (1929)



Urkizuaran auzoko Pulla baserrian jaio zen. Familia aldatu berria zen baserri horretara. Aita Elorrioko Torrekoa baserrikoa zuen eta ama Gazetako Amaritakoa. Aita hargina zenez, amak ei zeroan etxeko martxa. Artalde dezentea izan dute beti. Hamar neba-arreba ziren. Zazpi urte egin zituen kriada Areetan ("Arenetan", bere hitzetan), aberats etxe batean; bi emakume ezkongabek bi etxe eta zortzi neskame omen zituzten eurentzat. Getxotar batekin ezkondu eta jaiotetxera itzuli zen, eta berak eraman du baserriaren martxa. Hiru seme-alaba izan dituzte.

Jose Mari Eguren Amiano (1936)

Lekeriketa auzoko Lekerikaonandia baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Meltxora Eguren Barrutia (1925)

Urkizuaran auzoko Sananton baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan.

Jesus Eguren Garaizabal (1940)

Urkizuaran auzoko Angiotxikia baserrira ezkondu zen. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Mari Karmen Urizar](#) emaztearekin batera.

Angel Eguren Gaurres (1928-2005)

Miota auzoko Larramendia baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Patxi Eguren Irazola (1928-2015)

Urkizuaran auzoko Pedrotxiki baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan.

Bitori Eriz Arbulu (1922)

Elorrioko kalean jaio zen, San Agustin alderako irteeran dagoen Arbillo kale-baserrian. Orduko kale-baserrietan ohi zenez, behia, txerria, solotxo bat eta ortua zituzten, besteak beste, eta nekazari-lanak ere ezagutu zituen gazte denboran. Elorrioko toponimia jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Pedro](#) anaiarekin batera.

Pedro Eriz Arbulu (1925)

Elorrioko kalean jaio zen, San Agustin alderako irteeran dagoen Arbillo kale-baserrian. Orduko kale-baserrietan ohi zenez, behia, txerria, solotxo bat eta ortua zituzten, besteak beste, eta nekazari-lanak ere ezagutu zituen gazte denboran. Futbolista izan zen, Amorebieta, Bergara eta Elorrioko taldeetan jokatu zuen. Ezkondua, hiru seme-alabaren aita. Autoen sarrailagintzara dedikatzen zen lantegi batean egin zuen lan, administrazioan. Elorrioko alkate izan zen 1970 eta 1979 artean. Trantsizioko urte zailak tokatu zitzaizkion, atentatuak, ikurriñaren legeztatzea, lehen hauteskundeak eta abar.



Jose Luis Eriz Gorostiza-Goiza (1935)

San Pio kalekoa. Inguruko toponimoak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Jesus Areitiourtena](#) eta [Narciso Gongeta](#)arekin batera.

Jose Errasti Berrioategortua (1929-2005)

Mendraka auzoko Atehortua baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa Pedro anaiarekin batera.

Pedro Errasti Berrioategortua (1927-2011)

Mendraga auzoko Atehortua baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa. Elkarrizketaren zati batean bere anaia Josek ere parte hartu zuen.

Felisa Errasti Onagoitia (1926)



Berrio auzoko Onagoitia baserrian jaio zen. Baserriko lanetan jardun zuen gazte-denboran. Tratuarekin Eibarko plazara joan ohi zen, Elgetaraino astoaz eta handik autobusez. Alargun geratu zen gazterik, hamar urtez azpiko hiru seme-alabarekin. Baserria erre zitzaien sasoitsu hartan. Kalera jaitsi eta Funcor Kooperatiban egin zuen beharra hamazazpi urtez. Hamalau emakume bakarrik ei ziren ia 800 langileko kooperatiban.

Maria Begoña Ertzilla Narbaiza (1931)

San Agustin auzoko Elizondogoikoa etxekoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Angel Orbegozo](#) senarrarekin batera.

Rosa Mari Esnaola Iturrioz (1957)

Urkizuaran auzoko Sanbizente baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko proiekturako egindako hainbat elkarrizketatan parte hartu zuen senarrarekin eta amaginarrebarekin batera.

Begoña Etxaniz Uriarte (1934)

San Pio kalekoa. Inguruko toponimoak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Maria Uriarte](#) eta [Maria Josepa Arregi](#)ekin batera.

Inazio Etxebarria Aldekoa (1949)

Gazeta auzoko Garaizabalazpikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

Marzelina Ezenarro Badaia (1923-2006)

Miota auzoko Miotaaurrekoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Angel Gabiria Eguren (1926)



Elorrioko herrigunean jaioa. Elorrioko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Elorrion Elorriok Elorrioz barriketan](#) proiekturako, [Jaime](#) anaiarekin batera.

Jaime Gabiria Eguren (1923)



Elorrioko herrigunean jaioa. Elorrioko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Elorrion Elorriok Elorrioz barriketan](#) proiekturako, [Angel](#) anaiarekin batera.

Juana Gallastegi Audikana (1924)

Igurua auzoko Jauregi baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa [Felix Jauregi](#) senarrarekin eta [Balentin](#) semearekin batera.

Bittori Gallastegi Berriozabal (1933)



Zenita auzoko Ortuguren baserrian jaio zen. Alaba bakarra. Elorrioko kalera ezkondua, sei seme-alabaren ama da. Maria Aizpurua auzokidearen lagun mina txiki-txikitatik.

Angel Gallastegi Egidazu (1932-2011)



Igurua auzoko Olakoa baserrian jaio zen. Errentero etxea. Aita Olakoa eta ama Gazetakoa. Hiru anai ziren, bera erdikoa. Ezkondua, alaba bi izan zituen. Baserriko lanez gain, artzain ere ibili zen gaztetan. Karegintzan ere bai, lehenengo modu zaharrea ("ota-karobixa") eta gero industrialean. Funcor kooperatibaren sortzaitariko, Arrasateko kooperatiba batean jarraitu zuen, lantegiak hondoa jo zuenean. Bolari amorratua, txapel asko irabazia da joko horretan. Zinegotzi izan zen 2003-2007 legealdian. Auzoetako batzordeburua izan zen.

Pedro Gallastegi Egidazu Olako (1930)



Olakua baserrikoa. Gurasoak ere elorriarrak zituen, aita Iguriakoa eta ama Gazetakoa. Aita gazterik hil zitzaion eta bera zenez anai-arrebetan nagusia, ardurak hartzea tokatu zitzaion. Elorrioko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Elorrion Elorriok Elorrioz barriketan](#) proiekturako, [Julian Mendizabal](#)ekin batera.

Iñaki Gallastegi Gorroño (1928-2010)



Zenita auzoko Galartzatziki baserrian jaioa, handik metro gutxira dagoen Galartzaerdikoa baserrian bizi izan zen ezkondu zenetik. "Atxerua" familiako ezizena. 8 urte zituela hasi zen gerra, eta etxetik hurbil samar izan zuen Intxortako frontea. Francoren tropak Bizkaian sartu zirenean, Algortara aldatu eta han igaro zituen hilabete batzuk familiarekin. Funcor Kooperatibako sortzaileetako izan zen. Pilotazale handia, gertutik ezagutu zituen pilotari historikoak: Kortabitarte, Gallastegi, Atano, Arriaran anaiak, eta, nola ez, bere herritar Hilario Azkarate txapeldun handia. Bertsozale amorratua. Hamabost bat urterekin Basarri eta Uztapide Elorrioko plazan entzun izanak markatu zuen. Joxe Agirre eta Azpillagaren laguna. Elkarrizketa egin eta bi hilabetera hil zen.

Maria Estrella Ganboa Ibieta (1938)

Iguria auzoko Izagirre baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Isidora Ganboa Orobiourrutia (1919)



Atxondokoa izatez. Ezkondu ostean joan zen Elorriora bizitzera, baina aurretik ere sarri joaten zen, esnea saltzera. Elorrioko toponimia jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, Teodora Markoidarekin batera. Durango 1936 Elkartekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerra garaiko kontuak jasotzeko.

Bitor Garai Aranzeta (1927-2008)

Gazeta auzoko Urizarrazpikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan, [Juanita Azkarraga-Urizar](#) emaztearekin eta auzoko [Ziriako Alkorta](#) rekin batera.

Alejandro Garaiolaun Garaizabal (1926-2016)

Gazeta auzoko Artealde baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean.

Jose Garaizabal Aizpurua (1955)

Zenita auzoko Zenitaaldekoa baserrikoa. Elorrioko toponimoak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa [aita](#)rekin batera.

Julian Garaizabal Arizmendi (1926)

Berrio auzoko Asetenaga baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Asensio Garaizabal Askasibar (1929)

Zenita auzoko Zenitaaldekoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa [Jose](#) semearekin batera.

Jose Migel Garaizabal Askasibar (1944)

Gazeta auzoko Arantzeta baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Jose Julian Gazetabeitia Murgoitio (1933)

Miota auzoko Arroitable baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzain elkarrizketa. Piedad Idoiaga (Ispaster, 1943) emazteak ere parte hartu zuen elkarrizketan.

Jazinto Gezala Iriondo (1924)

Lekeriketa auzoko Lekerikabarrena baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Josepa Gongeta Bikandi (1932)

Gazeta auzoko Ondozorrotz baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Narciso Gongeta Urizarbarrena (1934)

San Pio kalekoa. Inguruko toponimoak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Jesus Areitiourtena](#) eta [Jose Luis Erize](#)ekin batera.

Jose Gorroño Gallastegi (1937-2014)

Zenita auzoko Errotalde baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan.

Modesto Guridi Mujika



Arrialden jaio zen, baina gerora kalean bizi izan da. Elorrioko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Elorriok Elorrioz barriketan](#) proiekturako.

Jose Mari Guridi Murgoitio (1945)

Mendraga auzoko Arrialdegi baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Asun Ibarrarauna Azkonizaga (1946)

Zenita auzoko Arestikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Pilar](#) eta [Maria Teresa](#) ahizpekin batera.

Maria Teresa Ibarrarauna Azkonizaga (1949)

Zenita auzoko Arestikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Asun](#) eta [Pilar](#) ahizpekin batera.

Pilar Ibarrarauna Azkonizaga (1943)

Zenita auzoko Arestikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Asun](#) eta [Maria Teresa](#) ahizpekin batera.

Alberto Ibarondo Zabala (1941)



Gazeta auzoko Garaizabal baserrian jaio eta auzo bereko Urizarganekoa baserrian bizi izan da. Ama Mallabikoa zuen eta aita Leizkoa. Kooperatiban aritu izan da beharrean. Elorrioko garai bateko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Elorriok Elorrioz barriketan](#) proiekturako, [Jose Agirre](#)ekin batera.

Mari Karmen Ibieta Makazaga (1948)

Iguria auzoko Zubiaurganekoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Juanita Igarza Arruabarrena (1920)

Gazeta auzoko Burginas baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan, [Jose Mari](#) semearekin batera.

Maritxu Igarza Pagadigorria (1938)

Urkizuaran auzoko Txanberikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Adolfo Arriolabengoa](#) senarrarekin batera.

Karmen Igarza Zubiate (1932)

Elorrioko Plazan dagoen Parra taberna-jatetxean jaioa. Aita eta ama ere Elorrioko kalekoak zituen. Hamaika neba-arreba ziren. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Jose Domingo](#) senarrarekin batera.

Maria Igarza Zubiate (1924)

Elorrioko Plazan dagoen Parra taberna-jatetxean jaioa eta hazia. Aita eta ama ere Elorrioko kalekoak. Hamaika neba-arrebatatik laugarrena eta lau seme-alabaren ama. Bizi guztian tabernan egin du lan, familiako Parran lehenengo eta "Bizio-kalean" ipini zuen Jakobarenean gero, Didel Azkoagarekin ezkondu ostean. Errepublikaren etorrera, gerra zibila eta mila gertakizun ikusi zituen Elorrioko Plazako eta bere tabernako talaia pribilegiatutik. Sukaldari preziatua, berak prestatutako hainbat plater, legatza edo atuna, esaterako, oso estimatuak izan dira eskualdeko mokofinen artean.



Maria Pilar Iñurriagarro Aranzibia (1934)



Elorrioko Txanberi baserrian, "Fonda Chamberi" izandakoa, jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Zaldibiako Katika baserrikoa. Hiru seme-alaba izan zituzten. Elorrion eskolatu zen lautik hamalau urtera bitartean. 17 urterekin Belegin lantegian jardun zuen, galdaketarako moldeak egiten, urte eta erdiz. Bilbon egon zen gero neskame bost urtez, "Naviera Sota"ko alaba baten etxean. Handik itzuli zenean Legutiora ezkondu zen, Txomin Viteri Arrasaten jaio eta Legution hazitakoarekin. Txominek hasiera batean denetarikoa saltokia zuen: denda, estankoa, telefono publikoa, taberna eta jatetxea. Geroago, denda bakarrik utzi zuten. Hiru seme-alaba dituzte.

Jose Irazabal Berriozabal (1926)

Aldape auzoko Upategi baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Dominga Irazola Arietaleanizbeaskoa (1919-2023)



San Agustin auzoko Etxebarribeinbarria baserrian jaio zen eta han bizi izan zen baserriko lanak eginez, Elorrioko kalera ezkondu zen arte. Aita San Agustingoa eta ama Leizkoa, sei neba-arreba ziren. Atzera-aurrera asko egin zuen gaztetan Elorriora, baserriko generoa astoan edo burugainean hartuta. Josten ikasi zuen hogeita hiru urterekin. Jostun bikaina, instituzio bat da Elorrion. Askok eraman du hark egindako arropa, eta askok ikasi du berarekin josten. Oraindik ere (elkarrizketa egin zitzaion egunean 91 urte) kanporako josten jarraitzen du, ohi bezala. Materiala erostera ere bera joaten da Bilboko denda batera.

Josefa Irigoien

Andres Irigoien Zengotitabengoa (1925-2006)

Berrio auzoko Berriouriarre baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Luis Izagirre Belategi (1924)



Elorrioko Gazeta auzoko Gerbilla baserrian jaio zen 1924an. Aita Gerbillakoa bertakoa zen eta ama Aramaioko Arragazpikoa. Zortzi anai-arreba ziren. Zortzi urterekin hasi zen eskolan, Elorrioko "Escuelas Vascas"-en. Eskola guztiak euskaraz jasotzen zituen. Gerrarekin bukatu zitzaizkion eskolak Luisi. 14 urterekin morroi joan zen Gazeta auzoko Matzurriaga baserrira. Morrontza-lanak bukatu eta Kerejeta sarraila-fabrikari egin zuen lan bi urtez. SIBA-n egin zuen lan gero, eta Elgetara ezkondu zenean Zabala Hermanos lantegian jardun zuen eskopetagitza, erretiroa hartu arte. Elgetako Txulokoa baserrira ezkondu zen bertako Felisa Aranzabalekin. Bederatzi urtez Txulokoan bizi eta gero, kalera etorri ziren. Zazpi seme-alaba izan dituzte.

Felix Jauregi Arietaleanizbeaskoa (1920-2006)

Igurria auzoko Jauregi baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa [Juana Gallastegi](#) andrearekin eta [Balentin](#) semearekin batera.

Juliana Jauregi Arietaleanizbeaskoa



Igurria auzoan jaioa da. Umetan gerra bizitzea tokatu zitzaion. Irakasle jardun du bizi osoan, frankismo garaian zein ondoren. Gernikan irakasle zen, IRALEko kideek elkarrizketa egin ziotenean, 80. hamarkadan.

Balentin Jauregi Gallastegi (1963)

Igurria auzokoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa [Felix](#) eta [Juana](#) gurasoekin batera.

Bitoria Kapelastegi Arbulu (1940)

Igurria auzoko Ortueta baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Enrike Kapelastegi Ariño (1940)

Urkizuaran auzoko Aidazugoikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan.

Ana Mari Kortabarría Aizpurua (1938)

Lekeriketa auzoko Lekerikaonandia baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Mari Karmen Kortabarría Errekondo (1946)

Urkizuaran auzoko Azkarragakolea baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan.



Jose Kortabarría Letona (1930-2018)

Elorrioko herrigunean jaioa.

Antonia Kortazar Agiriano (1918)



Mendraga auzoko Mendrakabeiti txikia baserrian jaio zen. Ama Berriokoa eta aita Axpekoa; bederatzi neba-arreba ziren. Aldapera ezkondu zen eta bi seme izan zituen. Senarra gazterik hil zitzaion, eta bi semeak ere joanak ditu. Lekeition egon zen lanean ahizparen tabernan; Gerradenbora han igaro zuen. Baserrian egin du lan geroztik, 33 urtera arte Mendrakan, eta Aldapen ezkondu ezkerok.

Antonio Kortazar Gallastegi (1921)



Elorrioko herrigunean jaioa. Ama oñatiarra zuen eta aita Elorriokoa bertakoa, baina aitona, Isidoro Kortazar, Gasteiztik etorria zen. Elorrioko kontuak jasotzeko hainbat proiektutan parte hartu zuen.



Jose Kortazar Gallastegi (1928)

Elorrioko herrigunean jaioa.

Juan Larrabe Orbegozo (1925-2014)

San Agustineko Iturriondo baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, bere emazte [Mari Ugarterekin](#) batera.

Norberta Larramendi Lizaur (1921)

Zenita auzoko Polioena baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan.

Gregorio Larramendi Sagasta (1928)

Urkizuaran auzoko Ortuburu baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Angela Larrea (1923)

Elorriokoa. 18 urte zituenean, artean gaztelaniaz hitzik ez zekiela, Madrilera joan zen neskame. 2 urte egin zituen bertan, baina gaixotu eta etxera itzuli zen. Baserrian bizi izan da beti.

Felix Larrinaga Lejarraga (1931-2010)

Lekeriketa auzoko Telletxe baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Tere Eguen](#) emaztearekin batera.

Margarita Lasuen Ugaldea (1923-2013)

Lekeriketa auzoko Legorreta baserrian jaioa, bertan bizi izan da beti. Guraso biak Elorriokoak, ama Aramiñokoa eta aita jaiotetxekoa, Zaldibartik etorritako familia batekoa jatorriz. Lau anai-arreba ziren. Emakumea izan arren, bera izendatu zuen maiorazko aitak. Ezkondua, bi seme-alabaren ama. Baserrian egin du lan beti. Arrasate eta Durangoko plazetara mila buelta egin generoarekin. Durangora eta Elorriora bizikletaz joan ohi zen askotan, manibelean arrautza-saskia eta abar hartuta. Arrasatera astoaz, goizeko hiruretan ilunetan irtenda, hiru orduko bidea eginez.



Candida Leanizbarrutia Gandiaga (1926-2017)

Elorrion jaioa. Ama aiña moduan Bilbora joan zen bera umetxoa zela, eta aitak eta amamak zaindu zuten epe horretan. Miotako eskolara joan zen hasieran. Gero baita Durangoko San Frantziskora ere, kultura orokorra eta josten ikastera. 21 urterekin aititaren lehengusina baten etxera joan zen, norbait behar zutela eta. 13 urte egin zituen bertan. Benin Uribe senarra Abadinon jaioa zen, baina gazterik Berrizera bizitzera joandakoa. Okako zentralean bizi izan ziren 32 urtez. Berrizko antzinako bizimoduaren inguruko kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa 2006an.

Jose Luis Leanizbarrutia Gandiaga (1931)

Leiz auzoko Arexita baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa [Julia Sarraoa](#) emaztearekin batera.

Esteban Lejarraga Izarzuzaga (1934)

Urkizuaran auzoko Azkarragaerdikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Mari Karmen Marzana](#) emaztearekin batera.

Mahai-ingurua Elorrion

2010eko azaroaren 11n, San Martinen egunez, grabatu zen Elorrioko Iturri Kultur etxean. Solasa bideratzeko, hogeit bat orri jarri ziren pila batean mahai gainean, bakoitzak gai bat zuen idatzita, eta orriei banan-banan buelta eman eta gai bakoitzaz jardun zuten. Amaieran, Elorrioko argazki zaharren liburua erabili zen. Aintzane Agirrebeña eta Juan Martin Elexpuru izan ziren bideratzaileak, eta hurrengo hauek tertuliakideak: Nieves Uribarren Kapelastegi (1933-V-29), Urkizuaran auzoko Ortuburu baserrian jaioa. Tere Mendizabal Azkarate (1936-X-16), Urkizuaran auzoko Isasi baserrian jaioa. Milagros Sarraoa Artabe (1937-XII-12), Urkizuaran auzoko Arrokoa baserrian jaioa. Maria Aizpurua Murgoitio (1933-XI-24)) Zenita auzoko Artealde baserrian jaioa. Azken honek beste grabaketa bat ere badu eginda (ELO-024).



Mari Ugarte Ugarte (1935)

San Agustineko Iturriondo baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, bere senar [Juan Larrabe](#)rekin batera.

Teodora Markoida Berriotxo (1912)

Erreka kalean jaio zen. Gero Bilbon eta San Pio kalean bizi izan zen. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean.

Jose Mari Markoida Larrañaga (1942)

Urkizuaran auzoko Angioerdikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Mari Karmen](#) arrebarekin batera.

Mari Karmen Markoida Larrañaga (1944)

Urkizuaran auzoko Angioerdikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Jose Mari](#) nebarekin batera.

Mari Karmen Marzana Agirre (1940)

Urkizuaran auzoko Azkarragaerdikoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Esterban Lejarraga](#) senarrarekin batera.

Maria Montserrat Marzana Arrinda (1930-2012)

Zenita auzoko Bedoia baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Felix Salterain](#) senarrarekin batera.

Pilar Marzana Ugarte (1931)

Zenitako Antsoena baserrian jaio zen eta Lekeriketa auzoko Iturbe baserrira ezkondu. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006an.

Luis Mari Matsorriaga Maguregi (1942)

Gazeta auzoko Matsorriaga baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Roberto Mendibil Arando (1969)

Berriozabaleta auzoko Berriozabalbeitia baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Pedro Mendizabal

Elorriokoa, 9 anai-arrebatan gazteena. Eskolan gutxi ibili zen eta 13 urterekin lantegian hasi zen lanean, Burdinolan, gerra iritsi arte. Gerra ostean industrialean lan egin zuen. Grabazioa egin zitzaionean 88 urte zituen.

Tere Mendizabal Ania (1933)

Urkizuaran auzoko Iburguentorre baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Maria Mendizabal Azkarate (1920)

Urkizuaran auzoko Isasi baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean.

Julian Mendizabal Gallastegi Pastor

Gurasoak ere elorriarrak zituen, ama Zenitakoa eta aita Iguriakoa. Aita artzaina zen eta hortik datorkio "Pastor" gaitzizena, bera ere ardiekin ibili baitzen gerra garaira arte. Hamalau urterekin Belerinen hasi zen lanean. Hamazazpi urterekin lantegia utzi eta basoan hasi zen beharreen. Hemeretzi urterekin Kanpazarren zegoen zerrategira joan zen lanera. Zerrategi batean eta bestean lan egin ostean, harrobian lan egin zuen beste urte batzuetan. Funcor kooperatibaren eraikuntzan eta antolaketan ere ibili zen. Elorrioko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Elorriko Elorrioz barriketan](#) proiekturako, [Pedro Gallastegi](#)rekin batera.



Maria Angeles Mendizabal Gallastegi (1943)

Urkizuaran auzoko Santaelena etxekoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Irene Mintegia Goitia (1927)

Miota auzoko Miotagoxeaskoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Daniel Sagasta](#) senarrarekin batera.

Jesus Mugarza Arroitauregi (1943)

Lekeriketa auzoko Goikoetxe baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Juana Murgoitio Gallastegi (1924-2016)

Urkizuaran auzoko Aidazubekoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan.



Bixente Murgoitio Isasmendi

Angio auzoan jaio eta bizi. Elorrioko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Elorrión Elorriok Elorrioz barriketan](#) proiekturako.

Maria Angeles Murgoitio Ugaldea (1921)

Urkizuaran auzoko Sanbizente baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko proiekturako egindako hainbat elkarrizketatan parte hartu zuen semearekin eta errainarekin batera.

Jose Ogitza Lazpita (1936)

Leiz auzoko Ogitza baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Bitor Onagoitia Maiztegi (1959)

Mendraka auzoko Mendrakaaldekoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Angel Orbegozo Azkarate (1926)

San Agustin auzoko Elizondogoikoa etxekoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Maria Begoña Ertzilla](#) emaztearekin batera.

Asun Orbegozo Azkarate (1931-2012)

San Agustineko "Sakristauena" etxekoa. Sei neba-arreba ziren, hiru mutil eta hiru neska. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, bere ahizpa Isabel eta Kristinarekin batera.

Isabel Orbegozo Azkarate (1927-2017)

San Agustineko "Sakristauena" etxekoa. Sei neba-arreba ziren, hiru mutil eta hiru neska. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, bere ahizpa Asun eta Kristinarekin batera.

Kristina Orbegozo Azkarate (1934-2015)

San Agustineko "Sakristauena" etxekoa. Sei neba-arreba ziren, hiru mutil eta hiru neska. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, bere ahizpa Asun eta Isabelekin batera.

Daniel Sagasta Urizarbarrena (1926)

Miota auzoko Miotagoxeaskoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Irene Mintegia](#) emaztearekin batera.

Julia Sarraoa Agirrebeitia (1936-2019)

Leiz auzoko Arexita baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa [Jose Luis Leanizbarrutia](#) senarrarekin batera.

Mila Sarraoa Artabe (1937)

Urkizuaran auzoko Arrokoa baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa Jose Agirrebeitiarekin batera.

Aitor Solozabal Orbegozo (1961)

Urkizuaran auzoko Errekazabaleta baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

Iñaki Trebiño Agiriano (1933)

Leiz auzoko Ogizatzikia baserrikoa. Elorriko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Pantxi Treviño Agiriano (1926)



Leiz auzoko Ogizatzikia baserrian jaio zen. Errenteroak ziren. Iguria auzoko Uriaganekoa (Urikogane, Pastorrena) baserrira aldatu zen hango Jose Mendizabalekin ezkondu zenean. "Eguzkibegitik aiñubera" aldatu zela dinosku, umorez. Arrasateko plazara atzera-aurrera asko egindakoa astoaz baserriko generoarekin. Ez dute seme-alabarik izan. Urte asko daramate kalean bizitzen. Denda bat izan zuen.

Juan Jose Ugaldea Bilbao (1964)

Miota auzoko Arietalanda baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Felipa Ugaldea Gorostiza (1926-2021)

Miota auzoko Estakasolo baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Esperanza Ugaldea Jauregi (1931)

Elorrioko Tangerren jaioa. Inguruko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Jose Kortabarria](#) senarrarekin batera.

Margarita Ugaldea Zengotitabengoa (1932)

Miota auzoko Larramendia baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Angel Eguren](#) senarrarekin batera.

Migel Ugarte Lazkano (1928-2008)

Elorrioko Urarka kalean jaio eta bertan bizitakoa. Gurasoak ere bertakoak zituen. Inguruko toponimoak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean.

Maria Uriarte Irigoien (1909-2005)

San Pio kalekoa. Inguruko toponimoak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean, [Begoña Etxaniz](#) eta [Maria Josepa Arregi](#)ekin batera.

Mari Karmen Urizar Uribeganekoa (1946)

Urkizuaran auzoko Angiotxikia baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Jesus Eguren](#) senarrarekin batera.

Herminio Urizar Zuñaga (1927-2017)



Elorrioko kalean jaio zen. Uste du bigarren abizena berez Zurinaga dela, eta erregistroan oker idatzi zutela. Ama Elgetakoa eta aita Arrazolakoa. Bost neba-arreba. Bilboko Salesianoetan ikasi zuen enpresa administrazioa. Elorrioko fundizio lantegi batean egin zuen beharra jubilatu zen arte. Futbolista izana, Bilbon ikasle zela hasi zen kurtsoko ekipoan jokatzen. Bergarako Or Konpon-en (errejionaleko taldea), bigarren mailako Alavesen eta Elorrioko taldean jokatu zuen, besteak beste.

Jose Ramon Urizar Zurinaga (1931)



Elorrion sortu zen, baina 1936an, gerraren ondorioz, Durangora mudatu zen familia aitak han baitzeukan, Kurutziaga kalean, bizikletak, motorrak eta automobilak konpondu eta saltzeko tailerra. 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketak bete-betean harrapatu zuen tailerra eta baita ama zauritu ere. Durangotik Matienara eta handik Mendatara jo zuen familiak. Mendatan zeudela Gernikako bonbardaketaren lekuko izan ziren. Elorriora itzuli zirenean, aitak tailerra galdua, amak atera zuen familia aurrera, arraina salduz. 1960ko hamarkadan, Elorrioko ikastolaren sorreran parte hartu zuen Jose Ramonek. [Durango 1936](#) Elkartekoek egin zioten elkarrizketa, gerra garaiko eta gerraosteko kontuak jasotzeko.

Felix Urrejola Berriozabal (1939)

Juan Tellu kalean jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Inguruko toponimoak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean.

Isidro Valenciaga Gacetabeitia (1930)

Miñota auzoko Arespakotxaga baserrian jaio zen. Abizen "ilustrea" da Arespakotxaga, Madrilen goi karguak izandakoak baitira leinu horretakoak, bai Francorekin eta bai lehenago. Aita Abadiñokoa zuen eta ama Miñotakoa. Bost neba-arrebatatik gazteena. Bi urte zituela ama hil zitzaion eta Elorrioko Mertzedarietan hazi zen mojekin. Hamar urte bete arte egon zen han. Sor Estefaniaren ondoan zegoen pinudian ezkutatuta abioi-bonba baten metrailak moja hil zuenean. Baserrira ezkondu zen eta bi alaba ditu. Baserriko lanetik bizi izan da, baina Funcor kooperatiban ere egin zituen hainbat urte.



Arantza Zenitagoia Arginzoniz (1957)

Gazeta auzoko Burginas baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [ama](#)rekin batera.

Jose Mari Zenitagoia Igarza (1965)

Gazeta auzoko Burginas baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa 2005 inguruan, [ama](#)rekin batera.

Vidal Mari Zuazua Azkargorta (1929)

Balendin Berrio-Otxoa kalean jaioa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2005ean.

Luis Mari Zubiarte Larrea (1945)

Berio auzoko Berriolope baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Jabier Zuburruti Gorriti (1947)

Iguria auzoko Zabala baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Felix Zugatzartaza Begoña (1938)

Iguria auzoko Izagirre baserrikoa. Elorrioko toponimia jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa. Izatez, Oromiñokoa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Gazterik hasi zen ehizan, eta 16 urterekin erosi lehenengo eskopeta

- **Hizlaria(k)**: Arietaleanizbeaskoa, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELO-001/006
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:10:35. **Bukatu**: 00:14:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Bere familian ez da izan sekula ehiztaririk, baina auzoan bazen beste ehiztari bat, bera baino nagusiagoa, eta harekin hasi zen ehizan. Hamalau urte ingururekin hasi zen ehizan, oraindik ere ezkutuan; 16 urterekin erosi zuen lehenengo eskopeta, "kañoi bikua", eta baimena atera zuen. Eguraldi ona egin, txarra egin, Elorriori buelta guztia egiten zioten igandero. Ez zuten ehiza larregirik egiten, baina oso gustura ibiltzen ziren.

Transkripzioa

-Kazan zeñekin hasi ziñan, aittakin?

-Ez. Gurian aitta ez dok kazarixa ixen sekula be. Baiña gure basarrixa, esan doten moduan lehen, bizitza bikua zuan. Oin be bai. Geuria ez dok basarrixa, beste propietarixo bat dxakok. Ta han beste bizitzan bizi zuazen hiru neba-arreba, solteruak zuazen, eta haren ama. Eta haren ama ba ni ondokua, ta amama, beti amama zuan ha; gure amama amama. Ta han hiru neba-arreben artian dxeuan bat gerra-denporan hanka bat kendu otxen ta ba kojo dxeuan eta muletakin ibiltten zuan. Eta ha kasan afeziño handikua zuan. Ta haretxeaz hasi nintzuan ba mutiko-mutikotan bertakua ixen ta ba tratua beti gehixau. Ta gero ba, joe, eskupetia ikusi ezkerro barriz beti euren atzian eta zerian. Ba bera be konforme ta ni be bai. Ta noizikpeñian ba holako tiro bat botatia ta. Nik lelengo tirua botako naxuan sei-zazpi bat urtegaz edo. Ta billurrez zelako atzerakaria ta; oingo moruko eskupetak be ez zeuazen. Ba holantxek, haretxeaz hasi. Ta gero han beste, bertan auzuen, beste basarri baten bizi zuan beste bat, beste mutil bat. Bueno [ondio bizi dok], ni baiño nausixaua zuan, nik baiño lau urte gehixao dxeukazen, eta ha be holantxek kazari amorratua. Ta harek aurretik eitten dxuan eta gero nik hamalau bat urte naixuazenen ba eitten genduan, gu kalian bizi giñian, eta orduan be bai, aurretik be bai. Eitten genduan ba guk alkarraz kaletik urteten genduan, hemendik bueltia ein Miñota Leiz aldetik ta gero basarrira [...]. Ta han nik hartzen naxuan kojuan eskupetia, ta

haregaz batera, ta gero barriro beheruzkuen barriro bertan itxi eskupetia ta... Ba holan nik hamasei bat urte ein arte edo. Hamasei bat urte ein nittuenian aittan permisuz ibili zeikian eskupetia. Aittan permisuz. Eta orduak erosi naxuan nik lenengo eskupetia, usaua, kaiñoi bikua, Aguirre y Aranzabal, AIA. Ondio be holaxe dakat ondio.

-Oindio dakazu?

-Bai. Ta lau milla pezeta pagau naxuan orduan denporan, barri-barrixa dxeuan, e. Ta gero ba haregaz, eta ya permisuz ba handik hasi, ta-ta-ta-ta, rekorridua betikua, beti oiñez, e. Elorrixon urten, Elorrixa, Toloto, Leiketa, Mendakara gutxittan baiña bueno. Toloto, Leiketa, zera, [Usturbe], Leiz, Miñota, hamendik Beerrekatik [Basaltara], Aramiñora, eta gero Aramiñotik berriro Basaltara eta Basaltatik, Araunetatik Elorrixora. Hori domeka guztixetan. Denpora ona ein, eurixa ein, gura dabena eindra be.

-Mendirik mendi...

-Bai.

-Buelta guztixoi Elorrixoi.

-Hori buelta guztioi beti. Ta ba asko ez genduan [ezkenduan] harrapetan baiña bueno, gure afiziñua haxe izaten zuan. Haxe edo; nik nere kaza denporako gogorapen onenak orduantxe denporakuak dittuk. Gero ba bai, oin be ba bai, ibili, ibili. Ibili edo, basarrira juen eta ba!, bueltan bat ein harutzatxuao, honutzatxuao, eskupetia lepuan hartu, ta hamaikak inguruan hamarretakua ein, eta kendu amai hamarretakua, salda apur bat eta bata ta bestia, ta bale, bale.

1.2. Zozo-birigarrotan non egin

- **Hizlaria(k)**: Arietaleanizbeaskoa, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELO-001/008
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:17:00. **Bukatu**: 00:18:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
Natura » Fauna
- **Laburpena**: Zozo-birigarrotan egiteko, leku garbi samarrak behar dira. Garbi-gabirik ez, baina baso sakonak eta erreka bazterrak ere ez. Tarteko tokietan aurkituko ditugu zozo-birigarroak. Zelai inguruetako zuhaitzi txikietan, piku-arbolaren bat dagoen tokietan, sasi eta sastraka multzoetan... Sagasti ingurukoetako sasietan... Normalean pinudietan eta mendi tontorretan ez da izaten zozo-birigarrorik

Transkripzioa

-Zozo-bidegarruak jokerak eukitten dxuezek, jokerak. Porrejenplo zozo-bigarrua tontorretan-eta nekez egoten dok. Zozo-bidegarrua-ta sakon-sakonien, bidegarrua gutxiao; zozua bai. Beti be holan bixkar aldetxuetan eta holan. Ta gero ba total garbi dauen lekuan be ez. Ba holako lehen zangak eta sastratzak eta. Gero han sastratza artian ba porrejenplo pikua badak arbolan bat edo, edo masustrak edo holakuak badazek ba jokeria.

-Bide baztarretako eskeretan eta?

-Bai, hoixe, landa-baztarretako sasi artietan eta. Eta han arbola banekatxua eta holakuek. Zozo-bidegarrotan eittia piñua dauen lekuen edo arbolia, pagadixa edo, a(ra)zteixa dauen lekuen gatxa ixeten dok, gatxa

ixeten dok. Ze txit, alde batian eta txit! beste aldera jueten dok, eta txit! beste aldera, eta azkenien ez dok jakitten nun dan. Zozo-bidegarrotan-ta ein bihar dok garbixen. Garbi-garbixa be ez. Baiña bihar dok egon daittela bai zangia, egon daittela sasi artia, arbola banekia eta holan.

-Jarraitzeko, ez?

-Bai. Jarraitzeko edo ba... Jokerak, jokerak egoten dittuk hor zerian. Sagastixetan, sagastixak baztarrien. Porrejenplo, sagasti garbi-garbixa bada be ez, baiña sagastixetan porrejenplo baztarrien sasi artien bat edo bajak, ba han sagarra jaten edo han beti holako lekuetan. Jokerak, jokerak eukitten jittuezek zozuek eta bidegarruek. Edozein lekutan ba ez dok egoten. Normalien piñadixetan-eta ez dok egoten holan, ze esango dostat, kazan eitteko moruen. Bai, gordetan-eta, gabien-eta igual piñadira jungo dittuk baiña gero kazan eitteko ez dok, piñadixa ez dok ona.

1.3. 'Basarri' eta 'Uztapide', lehenengo entzundako bertsolariak

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Gorroño, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-016/026
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:39:24. **Bukatu:** 00:41:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Basarri eta Uztapide bertsolariak entzun zituen 16-17 urterekin Elorrioko plazan. Jendea isil-isilik egoten zen. Mikrofono barik kantatzen zuten. Oso ahots ona zuten. Manuel Olaizola Uztapide onena, berezko bertsolaria.

Transkripzioa

- Lehenengo bertsolarixak noiz ezagutu ziñuzen?
- Nik Basarri eta Uztapide.
- Kontxo! Nun?
- Elorrixon.
- Ze lekutan?
- Plazan.
- Zenbat urtekin?
- Hamasei-hamazazpi edo.
- Gerra ostetxuan, ezta?
- Bai, hasi zienien batera ta bestera.
- Plazan nun eitten zebe, bentanan batetik edo?
- Aiuntamentuko balkoittik. Altaboz barik.
- Eta ondo entzun hala ta be, ez?
- Baiña jentia ixilik, e! Orduan entzuteko egoten zien [...] haxe ikusten.
- Eta ze inpresio egin zotsun, ze zarrara lelengo aldixan entzutiak?
- [Asko gustau xatan]
- Nobedadia, ezta?
- Hoixe.
- Goguan daukazu ze gai erabiltzen zebe?
- Gaia? Ba hau Uztapide mutilzarra dala ta haren [anai] artian baten bat apartauko dabela ta holakoxe gaiak. [...] Baxarri eten barik.
- Basarrik ahotsa be...
- Ona eukan.

- Uztapidek ez dakit zelakua zeukan.
- Uztapidek pe ona.
- Zuretako zein hobia?
- Uztapide.
- Zergatik?
- Onena zalako. Gaur be dauzen danen artien ezin leike eiñ ha besteko bat.
- Danen artian be ez? (barreak)
- Andrea-Honek Egaña ta be...
- Horrek beste estilo batekuak dia. Ha zan bertsolarixa berez-berez. Pelotarixa izeten dan moduan igual; barrutik.

1.4. Otañoren agur bertsoak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Gorroño, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-016/044
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 01:06:29. **Bukatu**: 01:09:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: Otañoren Ameriketatik itzuli, baina berriz joan zen hara. Barkura igotzerakoan botatako bat eta Ameriketatik bialdutako sorta kantatzen ditu.

Transkripzioa

Otaño hamen, etorri, Ameriketara egonda, ta ezkondu in zan. Ta gero, ba, bizimodua etaratzeko modurik ez hamen ta barrido Ameriketara jua [zan]. Ta jua zien, herri guztia jua zien, Pasaira, barkura jua zian, despeditzen. Ta barkutik bota otsen bertsoa:

Ez nua borondatez, beharrak narama,
nerekin daramazkit hiru ume ta ama;
batenbat behar du-ta badator nigana,
berena izango da nerekin dedana.

Ta gero jua zan Ameriketara ta han etara ebazen aitta-semien bertsoak:

Lagundurikan danoi
gugatik hil zanak,
seme, hazi zaitugu
aitak eta amak;
beti zure gidari
izandu geranak,
orain kurutze honen
oiñean esanak,
ondo gogoan hartu
behaituzu danak.

Zu Ameriketara
joatia hemendik
Jaunak hala nahi badu,

zer egingo det nik?
Han ez dezu izango
aitik eta amik,
baiña ezera galduko
noranahi joanik,
ez bazaizu ahaztutzen
gaur hemen entzunik.

Ez nizuke utziko
joaten egietan
gure erlijjua
ez balitz han bertan;
iritxiko baziña
han urrutietan,
herri eta eleizarik
ez dan tokietan;
oroi zaitez Jainkoaz
leku guzietan.

Seme, izan goguan
zeure gurasuak,
eta izten dittuzun
senide goxuak,
jaio ziñan tokiko
mendi ta basuak,
euskerazko otoitzak
edo errezuak,
erakutsiak zure
amatxo goxuak.

Iritxi da ordua
joan behar dezuna;
badakizu aita ta ama
hemen daukazuna;
hitz baterako hau da...

ez zaizula ahaztu iñoiz
gaur hemen entzuna,
hitz baterako hau da
eskatzen zaizuna:
izan zaite nunahi ta
beti euskalduna.

1.5. "Bizixo Kalia" eta bertako putetxea

- **Hizlaria(k):** Igarza Zubiate, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-020/038
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:48:34. **Bukatu:** 00:51:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Putetxeak

- **Laburpena:** "Bizixo Kalia" "señaloriten" etxea egon zen, putetxea. "La Marquesita", "La Condesita" eta "La Tremens" neskak. Soldadu-ilarak atean gerra-denboran. Libertate handia egon ei zen sasoi hartan. Eliza ere itxita egon zen gerra-denboran, Intendentzia zegoelako bertan. Gerra igaro zenean, "La Marquesita" eta joan egin ziren baina Tremens Elorrion geratu zen. Tremensek banderarekin izan zuen gorabehera.

Transkripzioa

-Ta gero, je, ordurako gu txi(k)ixak gienien hala esaten oskuen, ez etortzeko hona. Hau kaliau zan Julian Zapateruenetik honutz ondo, ta panaderixatik harutz be ondo. Bai; a hor erdixen eztaiz zer euen. Gero Buzkantzera, gu Buzkantzera joaten gien. Pixkat haundi ein gienien baten batek esan oskun, e, "que ah; estaba "La Marquesita" "La Condesita" y "La Tremens". Bai; ezki; uan jaki; zertzuk zien. "S; est; "Tremesita" eta "La Marquesita" eta. Aillegau da gerria, ta gero kolia soldauena (barreak). Ta bagoiaz etxera preguntez, eta esaten amai... Jooo! Bueno, ixilik!, zarata baten, hasarre. Eta halaxik enterau gien ze pasetan zan hor "Kale Bizixuen". Y eran tres chicas, pues, 'cari;osas'. -"Neska txixak" edo Eibarren esaten zotsena. -Hori! Orduen zien ba, pekatua zan eta. Bai; a gerra-denporan dana liberau zan, libertade haundixa egon zan. Elixia be itxi egin zan, bai, zakuak eta ipi; ebezen "intendencia" moruen, azkenetan, ezta. Eta elixara be ezin zeikien juan eta bueno... -Etxe hori Errepublikan denporan be egon zan ala bakarrik gerra denporan egon zan? -Ez, aurrerao. Gero ya dendia egon zan. Gero... -Esan nahi dot gerriak iraun zeban bittartian egon zan hiru señaloriten etxia? -Hori etxioi? -Bai. -Bueno, bai; i;ok..., eurak ekixen, soldauak eta eurak ekixen zer euen han. Ze jentia jakingo eban bai; berbaik..., kontau ez. Gu enterau be ez gien eitten. - Gero gerria pasau zanian desegin egingo zan etxe hori.. -"La Marquesita" joan zan nunbaittera ta. Tremens hamen geratu zan, e. Bai, ikurri; berak ipi; eban, osea, banderia. Esaten eban... -Berak ipi; eban Espa;ako banderia? -Berak lapurtu eban han eskolan. Harek eitten eban kanposantutik bajatu. Esango-ban: "Nik zetako ingo xuat ba", ezin zeikien erosi, "ba haxe eruango xuat". Kaliau ba hartu eta eruan. Bai; a harek, e, pregoia be jo eben aber entregetako, harek entzungo eban hori bai; keba! -Elorrixokua zan? -Nik pentsetan dot baietz. Zan enterradorien alabia. Ta eztaiz zelakua zan be, ezin neike esan ezautu neban be ez. Entzutez bai, bai; a. -Zuek gaztetxuak artian. - Hori ba.

1.6. Masajistak arropa garbitzaile

- **Hizlaria(k):** Urizar Zuñaga, Herminio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-027/016
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:58:05. **Bukatu:** 01:00:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Txirrindularitza

- **Laburpena:** Orduan taldeak laburrak ziren: 11 titular eta lau-bost ordezko. Masajistak arropak garbitzeko ardura ere bazuen. Zenbait entrenatzailearen kontuak.

Transkripzioa

- Asko aldatzen zan ekipua domeka batetik bestera ala titularrak titular zien betiko?

- Bai, e, titularrak, bueno, orduen oingo moduan ez da. Oin igual ba hogetabi lagun ekipo baten, baiña orduen ziran hamaika titular, titularrak edo jokatzan ebanak, eta gero ba beste hiru edo lau. Hamabost-hamasei bat lagun edo. Eta gero, klaro, Bergarak pe beste ekipo bat eukan, esaten otsen Txiki. Or Konpon Txiki. Ta han be nausitxuak eta be baeuezen batzuk. Eta handik iguel pasatzen zittuen falta eitten ebanian.

- Masajistaik eta bai?

- Bai, masajistia bai. Masajistia zan jokatzeko erropak eta garbiketa eitten ebanak, haretzek. Baiña zerien bai, Gasteizen han masajistia euen.

- Masajia astero hartzen ziñuen ala ez?

- Ez. Nesezidadia eukanak bai (pai). Automatikamente ha etzunda ipintten zan eta. Gero beste gauza bat ahaztu naz. Gasteizen egon nintzarian entrenatzaile egon zan Oveja, Atletixena izen zan defenza bat. Ona gaiñera, durangarra. Eta haxe egon zan, nik debuta in nebanian Oveja. Baiña denpora gutxixan, ze Alavesa bastante, klasifikaziñuen bastante atzien ebillen. Ta Oveja ibilli zan tenporada baten edo. Baiña gero harek itxi ta beste bat jarri eben ekipuen defenza jokatzan [zana] baiña beterano bat, Elgoibarkua zan. Ta zan Realien defenzia ixendakua, ya beteranua zan, eta ba gero Bitorixara fitxau eban. Gabilondo. Elgoibarkua. Ondo, harekin Gabilondoaz be edarto, oso ondo.

1.7. Txirrindulari holandesa Urkiola igo ezinda

- **Hizlaria(k):** Ardanza Errasti, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-036/022
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:46:42. **Bukatu:** 00:48:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** Vuelta España sarri pasatzen zen Elorriotik. Txirrindulari holandesak esandakoa Urkiolan gora. Urkiola aldapa gogorra. Berak ere sarri igo izan du Urkiola. Elorriar batek berrogei kilorekin igo zuen, apustua medio.

Transkripzioa

-Vuelta España bat, esate baterako, jente asko mobitzen zuan ikustera ta?

-Bai, bai, kamiñuan asko. Vuelta España sarri pasatzen zuen hamendik eta Urkiola ixo ta be bai. Gogoratzen nok baten Urkiolan-da holandes batek bizikeletan, ni enintzuan bertan suertau baiña, Ixo ezindda eskuen-da, "esto no es cuesta, pared!" esaten ei [...] (barreak).

-Hori Urkiolan, holandesoi. Eta bultzaraik bai, edo?

-Eskuen hartuta bizikeletia gora.

-Baiña zuek bultza ta ez ziñuen eitten?

-Ni enitzuan suertau orduan. Lagunen batek esanda.

-Heuk sekula igo dok Urkiola?
-Bai.
-Baiña bizikleta horrekin bai?
-Samur.
-Geratu barik?
-Samur.
-Heuretako Urkiola baiño gogorraorik topau dok?
-Ez. Nik hamendik urten be ez, Euskal Herritik iñora. Ez, hamen Urkiola dok aldapaik gogorrena askogaittik. Santo Domingo-ta be bai baiña motxauak dittuk eta. Urkiola aldatz haundixa dok. Oiñ kurbakin apur bat mejorau xuek baiña.
-Gogorrena, zatirik gogorrena zein dok Urkiolan?
-Dana. Txarrena hoixe esaten xuek, Txakurzulo ta. Kantsau be eitten dok hara orduko ta.
-Kanbixu barik?
-Kanbixua, kanbixuakin. Elorrixoko batek Urkiolara hogetamazortzi-berrogei kilogaz ixo xuan. Eta berak eukiko [ittuzek] larogetaka kiluek eta. Hor durangar batzuk posturia ein xuen, ta geratu barik ixo xuan.

2. Natura

2.1. Azken 30 urteotan asko gutxitu da birigarroa

- **Hizlaria(k)**: Arietaleanizbeaskoa, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELO-001/007
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:14:20. **Bukatu**: 00:17:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Natura » Fauna
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Lehen errazagoa zen ehiza egitea. Azken 30 urteotan debeku asko egon dira, ezin da leku askotan ehizarik egin, zozotan egitea debekatuta egon da... Orain askoz gutxiago egin daiteke. Birigarroa ere gutxitu egin da. Lehen arbitzak, artotzak, erremolatxa... janari gehiago zegoen baserri inguruetan. Labratzeari utzi zaio, eta jatekorik ezean, hegaztiak ere askoz gutxiago.

Transkripzioa

-Gero lehenauko moruen beste gauza bat pasatzen dok, hamen urte batzutan Bizkaixan, ez jakiat /etxakiat)/zenbat urtian, hiru-lau bat urtian edo zozua prohibiduta egon dok.
-Baiña ointsuan edo?
-Bai, ointsuan, ointsuan. Oin joan dan azkenengo urte bixan edo zabalduta dak. Edo hiruan, baiña atzeraoko hiru-lau bat urte edo prohibiduta egon zuan. Ta alde batetik zozua hil ezin. Ta gero beste gauza bat pasau dok hamen, bidegarrua ta lehen hasi hor Domu Santu inguran-edo ta Erregenak ingurura artian-edo landetan-eta geratuta egoten zuan bidegarrua. Landetan eta hau bestia ta. Oin...
-Pasekua?
-Bai, pasekua, pasekua. Bertako bidegarrua beti egoten dok, eta oin be badak. Baiña ugarixa ez dok ixeten, eta pentsatzen dxuat barriz bertakua

martxau eitten dabela. Hamen bertakua beti ixen dok puxkat haunditxuaua pasetik etorten dana baiño. Baiña hamengua bai beti geratu..., baiña nik pentsatzen dxuat hamendik martxau eitten dabela, baiña hori sekula ez juat (etxuat) kontrolau. Baiña lehen esaten hasi nazena, hamen lehen asko be gehixao bidegarrua bertan geratu eitten zuan landetan eta. Gero lehen orduan labrau be gehixao eitten zuan solua ta. Orduan denporan arbitzak eta erromolatxa artien eta artotzetan-eta. Ba horrelako lekutan jana topetan eta. Oin egon be ez dak eitten holakoik eta igual horregaittik izango dok; ez jakixat /etxakixat/ nik zegaittik ixen dan, baiña ya ez dok geratzen. Paseten dana paseten dok eta akabo. Holan denporale txarren bat jo ezkeru igual egun erdin bat edo egunen bat geratzen badok bandadan bat edo, eta gero akabo. Gehixau...

-Oin pinuekin eta tokirik be...

-Piñua..., nere denporan be piñua badxauan.

-Hainbeste ez zan egongo.

-Bai, bai, bai. Nere denporan piñua ointxe beste. Bai. Banekan bat gehitxuao-gutxiatxuao egon leikek baiña ez, lehen beste. Bai, bai. Baiña nik pentsatzen dxuat ixen dala hori, lehen ba basarrietan labrau eitten zala gehixau. Oin ba dana landak itxitta dazek. Lehenao arbixa, artua, erromolatxia ta. Ba han janarixa edo topetan dxuen, eta gordelekua be beti zeraua ta. Ez jakiat /etxakiat/ horregaittik ala zegaittik, oin pasau eitten dok baiña ez dala geratzen bertan lengo moruan, ezta gutxiagorik be ez! Ez-ez-ez, ez, ez da geratzen.

2.2. Eguraldiari zelan igarri

- **Hizlaria(k):** Aizpurua Murgoitio, Jose; Esteibarlanda Aizpurua, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-022/030
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:01:52. **Bukatu:** 01:04:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Abereak mendian gora joaten badira, eguraldi ona, behera badoaz, txarra. Satsari buelta, ilea ebaki... ilbeheran. Ilberrian botatako pagoa "bitsa" darixola".

Transkripzioa

-Egualdixai zeuk zela igartzen jatzu?

-Lengo zarren esakeria, mutikotia basuen ibiltten giñenien, idetan ibiltten giñenien, ganaua illuntzixen ardixa-ta mendixen gora jueten bada, denpora ona hurrengo egunien. Ta holan barrankura, zulueta ta jueten bazan-eta, arrena, zaata asko intxarrixak-eta, zaata asko etaraten baeben, hurrengo egunian denpora txarra. Halan esakeria lenaokuak esaten eben.

-Zeozer eukiko dau.

-Bai, bai. Ganaua gora jueten danien, jeneralien denpora ona hurrengo egunien. Hori hamentxe be bai.

-P: Kaballerixia zerien Santamaiñara gora ixoten ebenien -oin piñua dao eta ikusi ezta itten baiña-, gora jueten zienien, e, "denpora ona da bixar". Enjeneral...

-Satelite bihar barik.

-Ardixekin gu Memarixan ibiltten giñenien, ardixekin beti illuntzixen,

illunkerie igual eskasa laiñua ta, ardixek gora ta gora ta gora ta, ba!, bixar denpora ona dator, idetan bixar. Ta intxarrixak-eta zaata asko etaraten berutz juten bazien barrankuetara ta sakonetara, hurrengo egunien denporale txarra jeneralian.

-Kuarta-denporei eta kaso eitten jatzuen?

-Kuarta-denborak eta ilbarri-ilberak eta gaur baiño fede gehixao euan len asko be. Lenau satsai buelta emoteko be ilberan beti. Ilbarrixan siku-siku eitten zan satsa, zezpalan letxe dana sekatu..., probetxuik ez eukan [harek].

-P: Zurittu.

-Zurittu. Ta beti ilberan, ilberan satsai buelta. Eta etara be azpixonak eta be jeneralien. Ulie ebai be bai. Ulie ebai be jeneralien ilberan. Gutxiao galtzen zala esaten eben asko be, ilbarrikua gehixao galtzen zala ulia. Esakerak.

-Eta arbolak-eta iñausteko?

-Arbolia be baitta.

-P: Arbolia, izardixa botaten dau ilbarrixan zertu ezkerro. Ilbarrixan botatako pagua sutara botatakuan bitsa darixola.

2.3. Haize-klaseak

- **Hizlaria(k):** Aizpurua Murgoitio, Jose; Esteibarlanda Aizpurua, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-022/032
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:05:54. **Bukatu:** 01:08:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** "Anboto haizea" edo "behe-haizea", euria dakarrena. Txitxareak kanpora irteten badira, euria. "Napar-hegoia", lehorra eta freskoa. Elurte handiak hego-haizearekin.

Transkripzioa

- Haize-klaseak, zein zan, esate baterako, eurixa ekartzen zaban haizia zuendako? zela esaten... ze izen emuten zotsen edo?

- Patxi: Anboto-haxie...

- Jose: Anboto-haxie.. Eurixe behe-haxiak, jeneralien, behekuak.

- P.: Behe-haxie...

- J.: Behekuak

- P.: Ta Anboto sakonien illune ezpadau ta behe-laiñua badau... eurixe...

- J.: Hori honen aittak esaten aban: garbi-garbi danien, laiñoik be ez, eta han Anboto sakonien laiñua urten. Ba egun bat edo bi barru edo hurrengo eguneako eurixa. Ta beste bat honen aittak esaten abana, hau gure etxetik [...] oin zementua dau oin, soloa zan, baiña zementua dao oin, baiña honek zerok... xixaria edo zelan esaten dotsazue? Horrek kanpora urteten badaue be, eurixa seguru, seguru. Horrek urteten baeben kanpora, eurixa, hurrengo egunien seguru eurixa.

- P.: Ta zera be bai ur-nearra urtetan badau

- J.: A baitta. Manantiala behin edo behin siketute badau ta ha abixeten bada be, eurixa, eurixa, bai, bai, bai

- Ta sikua egoteko ze haize klase?

- J.: Sikua, ba, siketzen zanian ha, siku.

- P.: Hego-haxie, hego-haxie...

- J.: Hego-haxia siketzeko [...], hego-haxia.

- Zuendako zein da hego-haizia? ze aldetatik joten dabena?
 - J.: Hamendik. Hamendik napar-hegoia, hotzaua eta sikuaua hori. Bai. San Agustingo abadiak esan otsen —miñotarrak beti proban ta beti jaleuen ta beti holan zerien, ta—, San Agustingo abadiak pulpittutik esan ei eban —oin berrogei bat urte edo, zenbat ixengo da?— miñotarrak fastidixetako, egunez berotu ta gabien hego-haxia, ostantzien ezin leikela fastidixau miñotarrak. Abadiak pulpittotik.
 - Urik ez eukien iñun, iturrik ez...
 - J.: E?
 - Iturrik ez, han inguruen ez dau urik.
 - J.: Nun?
 - Miñota aldien han iturrik ez dauke.
 - P.: Zerien...
 - Leiz... hor tontorra San Lorenzo hor tontorrien ez dau.
 - P.: Aspotxan...
 - J.: Zerien bai...
 - Gero bai, behietan bai, baiña...
 - J.: ... Iturbeko sakonien bai.
 - Bai, hantxe, baiña gero hurrengo hango puntara arte ez dauke.
 - P.: Aspotxan... da troskia, harek ladrilluak eitteko moduan... troskia. Karia.
 - Eta edurra ze haize klasek ekartzen dau?
 - P.: E?
 - Edurra ze haize klasek?
 -J.: Edurra, jeneralien, hotzak. Oin, hegotik haundiña, jeneralien, hegoittik, epeletik hasten danién, urte batzuta, haundiñak hegotik ein dittu /eittu/, behetik, haundiñak.

2.4. Haize-klaseak

- **Hizlaria(k)**: Valenciaga Gacetabeitia, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-034/017
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:29:40. **Bukatu**: 00:31:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Natura » Meteorologia
 Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Behe-haizea, Anboto-haizea, ifarra... Bakoitzak nondik jotzen duen eta zer giro ekarri ohi duen. Ifarrari "haxe gorrixe" edo "frantzi-ifarra" ere esaten dio..

Transkripzioa

-Egualdixagatik zertuko dotsut. Euki dozu zaletasunik, egualdi hau ingo jok bihar edo etxok ingo edo?
 -Keba! Nik seguru-seguru hurrengo egunien atzo ze iñ aben.
 (Barreak)
 -Baiña haiziai edo erreparauko zontsan, ez? Haize hau dago edo bestia dago.
 -Bai, hego-haxie ta. Horrek bai, ze haxe dabillen, horrek bai. Lehenguan be haxe-putz edarrak denpora asko eztala in zittuan.
 -Ze haize klase bereizten dittuzu bere izenaz eta?
 -Hego-haxie, iferra, be-haxie. Gero Anboto-haxie be esate(n) otseu te.

-Eurixa ekartzen dabena ze haize da?
 -Be-haxia, be-haxie.
 -Nundik joten dau?
 -Gutako behia hori da (eskuaz seinalatuz).
 -Amboto aldetik?
 -Ez, ez, beherautik, beherautik. Trumoiek joten dabeni en ixeten da hor
 Anboto aldien-da jot en dabeni en, hor, orduentxe. Han da jot en badau, ba!,
 hamen etxok eingo, Udala aldien-da jo ezker o.
 -Beheragotik esan nahi dok, hemen Zornotza aldetik edo?
 -Bai, bai. Itxesotik datorrenien, itxesotik datorrenien.
 -Gaillegua edo bai? Holako berbaik?
 -Gaillegue e iñoz bai, baiñe ez, ez.
 -Eta egualdi hotza, nundik?
 -Egualdi hotza iferrak. Hau, iferra esate(n) otseu guk. Haxe gorrix e edo.
 -Eta frantzi-iparra edo esaten da?
 -Frantzia-iparra, bai.
 -Eta egualdi sikua?
 -Egualdi sikue hego-axiek eta...

3. Ohiturak eta bizimodua

3.1. Juanitaren bakailoa famatua Gazetan

- **Hizlaria(k)**: Arruabarrena Lazkano, Juana; Arruabarrena Lazkano, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-015/026
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:41:19. **Bukatu**: 00:43:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Inork ez omen ditu Juanitak bezain ondo gobernatu
 Gazetako kofradiatarrak. Bakailoa nola beratu. Jeneroa behar omen da
 ona.

Transkripzioa

-Esan daixela bakillaua zelan ipintzen dab en, ze kofradixako bakaillau
 onenak Juanitak ipintzen zittuen
 -Juanita, kontau bakaillaua zela preparatzen dozun, gero bihar edo etzikuak
 jakin daixen.
 -Nik gobernetan nittuen moruan Kofradixan iñork eztittu goberna u. Hori
 "como... yo digo la verdad".
 -Ezin leike. Juanitak eiten eban lana ezin leike eiñ.
 -Ezin leike eiñ, iñok eztau eiñ. Esa(n) otsen Aldapeko sozio batek neuk itxi
 notsan ezker o bihe(r) dan moduko bezkairik eztabela jan.
 -Kontaizu, Juanita, bakaillaua zela ipintzen ziñuan.
 -Ba nik beratzen bota eguenien. (...). Eguenien ekarri ta beratu. Ur
 korrentan. "Que digan lo que digan", bañeran ipintten neban. Eitten notsan
 gero kendu ura dana, eskuekin altzau... Ta bakillauak pe ez oingo
 morukuek, e. Osuek ekarri, neuk zatixak eiñ; da senduak pe ez. Gazixak pe
 sekula be ez.
 -Eta puntua zela hartzen zontsan gatzian?

-Gatzian puntua, barikuen eskamau ta zatixak eiñ, ta gero barrido bota uretara. Ta gero zapatu goxien goixau jagi, kendu ura ta ipini siketzen, gastetan uroi, ta gero hartu katxarruetan eta eruen soziedadera, da gero han ipiñi, soziedadien ipiñi. Ta nik jenerue eruen bihe dan modukua gertetako.

-Baiña han ipiñi be zeuk eitten ziñuan.

-Neuk ipintten neban.

-Eta? Zer botatzen zontsan?

-Jenerue eruen ona ta ekarri be ein deiztela ona, olixua ta bihe(r) nittuen gauzak onak ekarri be hara be. Nik erueten nittuenak be bai eta hara ekarten ostezenak pe bai.

3.2. Fusil-kartutxo batez istripua mutikotan

- **Hizlaria(k):** Arietaleanizbeaskoa Agirrezabal, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-018/041
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:04:25. **Bukatu:** 01:06:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak
- **Laburpena:** Beste mutiko batekin jolasean zebilela, kartutxo bat lehertzean zauria egin zion kokotsean. Goikoetxea medikuak sendatu zuen.

Transkripzioa

-[...] Gerra denporakua daukat hamentxe zeoze eindda. Metrailliaz.

Kartutxo bateaz eiñikua. Orduen eguerdi-domeketan, eguerdi-atsaldetan mutiko [kuadrillia] jueten giñien eta. Ni ta beste mutiko bat juntau giñien bakarrik [...], bixok. Eta kartutxuek errebetetan eta holakoxiak itten giñuzen guk ordun be mutikuok, ze in be ez eta. Kartutxo bat giñuken bakarrik. Bixok bakarrik, ondio bestiek etorteko, ta jueten giñien domeka atsaldien mutikuok eta, ta haundixauk pe bai-tta danok, besteik ez euen-da, haintxe. Da kartutxo bat, ein suoi, eta "errebentau erain bihar [jotsau] honetxi, kartutxo honi". Ta ein [dogu] suoi, ta sua ein da ipiñi kartutxuo han da gero sua ixoteko. Ta gu baezpada be horma ostera salto eiñ. Horma ostera salto eiñ dou, ta kartutxuorrek pau!, tirue ein eban. Ta kartutxue pistoiekin, fusillen kartutxua zan, ta pistoiekin. Ta ein dxok, ta salto eitten dok hormien bestekaldera ta, gero kartutxuek berak esplotau. Ta hemen [zati batek]. Ta jun zan eta gero odol asko, odol asko, ta medikuana [jun biher gazela gurien], ta batek lagundu osten ta medikuana erueten-da. Ta Goikoetxea medikua orduan famosua. Horrek Goikoetxeak, "Cinturón de Hierro" egiñikua... Famosuoi. Ta haretxen anai bat.

-Medikua orduan?

-Bai, medikua. Ta injiñiruek pe bi bazien, listuek horrek. Baiña mozkorrak zien gehixenok. Listuek. Haretxek kurau ostan eta. Zana hartu ostala esan ostan. Eta egun batzutan geldi egoteko eta holantxik kalien geldi egon nintzen eta. Eta holantxik, e...

3.3. Eskolan dena erdaraz

- **Hizlaria(k):** Iñurrigarro Aranzibia, Maria Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELO-019/005
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:08:35. **Bukatu:** 00:10:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena:** Eskolan dena erdaraz, Cara al Sol kantatu... Baina zigorrik ez euskaraz egiteagatik. Aitari "Hable usted en cristiano!" esan zioten behin. 14 urte arte ibili zen.

Transkripzioa

-Eskolan zenbat urtekin hasi ziñan zu?
-Eskolan? Ba eztaikit ba, zenbat urte [eingo] naban. Ba lau urte edo holan. Orduan lau urte arte etxien iguel. Etxe inguruen. Oin bai, oin urte bi edo hor daoz. Baiña lehen ez. Eta dana erderaz. Dana erderaz.
-Lau urtekin?
-Bai. Nik ez nekixen erderaik ezer, baiña iguel lau edo urte uste-ot hasi giñiela. Ta, bueno, dana erderaz. 'Cara al Sol' kantau te...
-Euskeriagatik gogor eitten otsuen?
-Bueno. Hor etxe onduen euen bat, eta esa(n) otsan behiñ gure aittai: "habla en cristiano!", esa(n) otsan harek. "Hable usted en cristiano!". Pasau zan beste aldera. Eta hori esa(n) otsan gure aittei, e, eta gure aittek, e, "hable en cristiano?". Bueno... Hari , e...
-Baiña eskolan gogor eitten otsuen? Kastigoik eta?
-Ez, ez. Horeaittik ez. Ez, horreaittik ez. Nik eskolako gogue daukot, bueno, ondo.
-Hasieran gogorra izango zan, ezta?
-Bai ba. Entendidu be ez ezer. Entendidu be ez ezer. Baiña bueno.
-Zenbat urte arte ibili zinen eskolan?
-Hamalau? Eske orduen... Uste-ot hamalau urte edo zea. Nik beste eskolaik eztekot. Defendidu naz baiña beste eskolaik eztekot ya.

3.4. Argiñetako Kofradia jaiak

- **Hizlaria(k):** Eguen Belar, Martxel; Errasti Onagoitia, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-021/022
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:36:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Abuztuaren 5ean ospatzen zen jaiak. Txahala hiltzen zen. Astebete inguru pasatzen zuten atzera eta aurrera. Musika egoten zen. Bazkariarekin etortzen ziren. Jendea asko mozkortzen zen.

Transkripzioa

-Eta hemen Kofradixia edo zeozer bada.

-Bai.

-Kofradixia. Ze historixa da hori? Zeintzuk egoten zien?

-Lehen kofradixia, txala hiltten eben bertan, hamen. Berrogeta hamar bat edo (erralde?), hamen inguruan topau dot nik haundiña. Hamentxe ibilli mozkor-mozkor eindra astebete baten. Batien astelehena dalako, bestien zapatua dalako ta...

-Fel: batien preparetan ta bestien [...].

-Eta zera, agura eta halako gure moduko zarrak eta, bata etzunda egon zala arbolapien, bestie zerien.

-Fel: Txarto, txarto.

-Txarto. Ardaa be bakizu, holakotxen baten, bestelan... Ura, iturrikua, hangua, Mendrakakua.

-Bai, edarra. Ha Reginan terrenuen egongo dok ha, ha bokia han dak, ha labaderua ta?

-Bai. Ura.

-Ixilik egon hadi, ixilik.

-Ta holakotxiek aprobetxetan zarrak.

-Baiña erromeixa eleganten bat be ingo zan.

-Bai, sasafoia ta...

-Zenbat urtian sansafoia ta. Hamen, bueno, jaixak...

-Gero bezkeittan etortzen, eta neu be bai etorritta nak hona, Kofradixako soziua. Maletatxua ta noberen kubiurtuak eta noberen basuak hartu ta ta etorri hona ta...

-Neu be ni aittaz mutikua nitzala birrittan edo ta, garbantzuak eta makillaua beratu barik. Gazixaua...! Ta gero ardaa eran mordo bat, ardaa eran eta mozkorra ugeri.

3.5. Erramu Eguneko gurutzegaiak

- **Hizlaria(k):** Aizpurua Murgoitio, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-022/009
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:14:36. **Bukatu:** 00:17:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Erramu Egunez sahas-makila sorta apainduak eramaten ziren elizara bedeinkatzera. Gero etxe eta arloetan ipintzen ziren. San Gregorio egunean bedeinkatu egiten ziren.

Transkripzioa

-Atian kurutzia edo?

-Lehen bai, lehen kurutziek erueten zien baiña oiñ kurutzeik pe eztau iñok erueten da.

-Lehen sasoi baten?

-Hoixe! Zelako sortak erueten giñuzen geuk pe!

-Zein egunetan?

-Erremu Egunien. Erremu domekaz. Erremu Sapatuen Bergako ferixia, da

Erremu Egunien kurutziak eñ, ba sortak eñ zeñek baiño zeñek ederrauak eta haundixauak. Baiña zelako mutiko pilluak! Elixia dana beteta kurutzez. Harek erdiko gradak pe danak beteta egoten zien.

-Zela eruaten ziñusten kurutze-makillok edo?

-Sortak eindda, kurioso eindda. Da gero ba batzuk sokiaz, beste batzuk euren azalaz lotuta erueten zittuen, da kurutziak dotore beren zera eindda, eta erremua eta erauntzaz. Eta beste batzuk laranjak pe bai eta beste gauza asko; eta mutiko guztiak haretzek harrapetan.

-Naranjak sortan ipinitta?

-Bai, goixen. Da mutiko guztiok harek harrapetan ariñeketan han ibiltten zien. Bai, bai.

-Eta ze soka zan lotzekua?

-Jeneralien traillak, honek abarkak ebalten ebena, jeneralien.

-Da gero elizatik pasautakuan ze eitten jakuen harei?

-Harei, etxetara partidu. Eskatu eitten [...], neri sei ero, beste batek zortzi, beste batek hamar igual, da harei eruen, eta harek emon eitten eben erriel bat ero, ba zeozer. Eta orduen sasoiñ diru asko zan.

-Gauza dotoria izango zan, ezta?

-Hoixe, hoixe, orduen karamelo bat pe asko zan. Oiñ ez.

-Etxetara kurutzia eginda eruaten zan, ala?

-Etxetara lotuta pixkat, lau-bost edo zortzi [...] Solo bakotxien bat ipintteko. Gero, atzo izengo zan, San Jurgi edo zera, ur bedeinkatuen eguna. [...]. Ointxe astien ixen da ba, eguenien, eguaztenien ero. San Gregorixo! San Gregorixo!, San Gregorixo! Bai. Eta orduen egoten zan ur bedeinkatuoi, hori kurutzioi eñ eta soluen ipinttekoko. San Gregorixo ixeten zan ur bedeinkatua. Gure andriai aurtan be akordau dxako baiña ba!, elixara ez juetearren...

-Eta zela eitten zan San Gregorixo egunian ur bedeinkatuaki? Bota eitten zan?

-Gero kurutziai bota eta horrek soluetan sartu eta soluetan bota eitten zan apur bat, soluetan be bota eitten zan apur bat. Lehenauko zera. San Gregorixo egunian. Hamen bai. Lehen hori ur bedeinkatuoi ekarri barik... Pazkuetan ero hor izeten zan su bedeinkatua.

3.6. Mariri katua gonapean sartu zitzaionekoa

- **Hizlaria(k):** Aizpurua Murgoitio, Maria; Gallastegi Berriozabal, Bittori
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-024/045
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 01:24:30. **Bukatu:** 01:27:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Behin, dantzan zebiltzala, katua sartu zitzaion gonapera eta barruko arropak urratu. Hura estutasuna!

Transkripzioa

-Ba bagabitz kastillanuekin dantzan, esnie erueten [giñutzen] eta, kastillanuekin bagabitz dantzan, eta hori Anjelita Etxebarrian gizona, Josanton, sarjentuen semie edo zer zonan ha? Ba hori. Ta gu haretzekin, kastillano bixokin pieza bat eñ eta berbetan. [...]. Holakon baten in

dxonan, zeozer etorri dxatanan hanka bittartera.

-B: Adios!

-Banao holantxek, ta Josanton etorri dxatan, sarjentuan semia.

-B: Azpittik ala?

-Bai. Plazan erdixen. Ta Josanton etorten dxata. "Mari, debajo de la falda tienes algo?". "Yo no sé lo que tengo, pero sí hay algo". Gengonazen mutil bi ta neska bi. Etorri-ttun lau edo bost mutil ta ni erdixan. Eta esan ostan: "haz un paso". Katuan buztena.

-B: Ai ama!

-Katua etorri, hola. Harek hartu eben aurrian han Sixton etxe onduen, eta ekarri eben. Eta nora sartuko...

-B: Ai ama, menudo susto!

-Gona luziak eukiko ziñuzen...

-Ez, belauneraiñokuak. Abrigua neukan.

-B: Haundixak etzien erueten.

-Galtzak apurtu.

-B: Menudo susto, hija.

-[...] Pedro ta bixok Sixtonian behera [zentozen]. Eta esan jonan Pedrok:

"Juen in bihou Mariana, Mari txarto dau ta".

-Ni horrekin enon akordetan ni.

-Nik hori gaur letxe. "Juen ein bihou, Mari txarto dau ta". Etorri zonan eta: "Mari, zer pasetan dxatzu" ta, "ezebez? Ezebez? Txarto zauz". "Ez nau ba txarto". Orduko pasauta neukan-da. Ta dantzan ein bihoula. Ze dantzan? Itxera, derrepente!, derrepentien! Etorri naz etxera, galtzak apurtuta, esan in bihar amai. Honbre!

-B: esan in bihar, menuda paliza.

- "Ama...". Ez, palizaik eztostan emon. "Ama, galtzak apurtu-ittut". "Galtzak apurtu, zer?". "Ba katua sartu dxat". "Aiba laletxe, hoixe biha xonau. Katua? Zelan euki dittun ba hankok, holan?" (barreak). Goniak etxonan emoten asko eta nun koño... Bueno, zein! Eta gero horrek mutil horrek -San Luisenien bizi don, ospitalien gaiñien bizi don, gorengo..., eta lentxo-lentxo komentau dxonau bixok haraz. "Que no le he dicho a mi mujer todavía eso". "Porqué no le dijistes?". "Es que me diría cualquier cosa". "Tú no me has hecho nada. Allí vino el gato, y cuando vino el gato..." (barreak). Katua, aibadio...

3.7. Kuarta-denborak eta eguraldia

- **Hizlaria(k)**: Treviño Agiriano, Pantxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-025/018
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:23:13. **Bukatu**: 00:25:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak
 - Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Garta-denboretako ipuina eta esaera kontatzen du. Badu fedea garta-denboren (tenpora) kontuan. Pello Zabalak esandakoa. Elur urtea ona gauza askotarako.

Transkripzioa

-Kuarta-denborena kontau bihotsut. Aittittena.

-Zela da?

-Ba kuarta-denporetan eitten zan bijilixia, ta bijilixia itten zan eta ba auzuen, etxe haundixe euzen, krixaue euken-da. Krixaue bialdu dau auzora, ta: "Abemaria jeup! Etxekoandriak bialdu nau modu honetan/ kuarta-denporak diela aste honetan/ Asteazkena, ostirala, zapatuetan, olixo puxkat emoteko katillu honetan". Lehenaoko ipuiñak, lehenaoko ipuiñak.

-Eta kuarta-denporak zer die?

-Elixienak. Honek esango dotsu. Pellok esaten dau hori, Pellok. Datorren astien die.

-Badaukazu fedeik kuarta-denporetan edo.

-Honek Zaragozanua.

-Azertatzen dabe?

-Batzutan bai, beste batzutan ez. Pellok esaban, Pellok esaban udebarrixe ingo ebala, lelengue ez, bigarren hille, ... edo eztakit pa zelan esaban, hotza ingo dabela. Bai, hori esaban, hoixe esaban.

-Esaeraren bat hola, "edur urte...". Zer izaten da?

-Edur urte, gauza asko, ona.

-Gizona-lxkur asko badau... lxxur urte edur urte.

-Bai. Baiña edur asko itten badau, kanpuek barrue ondo buzten diela ta...

-Hori onerako izaten da, ezta?

-Bai.

3.8. Bainuetxeak eta beraneanteak

- **Hizlaria(k)**: Eriz Arbulu, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-030/006
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:07:39. **Bukatu**: 00:10:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin
harremana
Aisia » Oporrak
- **Laburpena**: Bi bainuetxe egon ziren, Elorrion. Uratsa zuten. Oso usain eta gustu txarra du. Beraneante asko etortzen zen Elorrion bera umea zela, baina ez bainuetxeetara, ordurako itxita baitzeuden. Oso jende aberatsa etortzen zen, Bilboko Etxebarriatarrak, esaterako. Madrildik ere bai.

Transkripzioa

- Balnearixuak aittatu dittuzu, sasoi batian balnearixuak egon zien, ezta?

- Bai. Bat euen Belerin, hor Mondraora goiazela eskumatara, ta bestia Delicias, oin dau han zerak, Convento de... Bueno, konbentua zan, oin eskola moduan dau, Asuncionistas, eta han dau aparte uratsa. Sasoe baten fama haundixa eukan harek, [Bilbotik] be etorten zan jentia, esate(n) eben hau "ezemas" ta zerendako, granuendako-ta ona zala. Baiña, joe, hori hartutakuen korroskaria eitten [ziñuenien] usain bat!, bueno!

- Heuk hartu dok?

- Bai. Bai-bai-bai, baiña jota..., arnasaik hartu barik. Ostien holan ardaua

eraten dan moduan..., pentsau be ez, klau! sartu ta begixak itxi-tta gero egon.

- Ona izan leike hori?

- Nok jakin. Etxaixak pa nik, neuk ezin neikek esan.

- Ze jente etortzen zan balnearixotara.

- Hona asko, ni akordetan naz... Orduan Elorrixon udan-eta dana beraniantiak. Bai-bai-bai, beraniantiak. Hasi hemen [...] eta Txanberañera edo San Juan kalera arte, ta Kuarteronak han Mondraora goiazela, Gravesena, bueno, asko beraniantiak.

- Gehixenak balnearixora etorrirta?

- Ez, ez, nik balnearixoik eztot ezautu. Ostien euren etxietara.

- Hire denporan balnearixuak amaittuta?

- Bai, bai, nere denporan bai. Hona ba holan famosuenak Casa Cadena, Tolenak (Tola), Gravesenak, Valientenak, Gonzalezena...

- Horrek beraniantiak.

- Beraniantiak bai, udan etorten zienak.

- Ze jente zuan?

- Onenak honek elegantiak, honek Etxebarrienak, horrek kaballuen-da ibiltzen... Orduen esaten [zien] hillien milla pezeta emo(n o)tsela; orduen denporetan. Gu haren atzien ibiltzen... tabako rubixuen usaiña hartu ta. Joe! Rafa, Jaime... horrek zerekuak, Etxebarria Bilboko tailler zerekuak.

- Eta nun bizi zittuan?

- Hementxe, hortxe, hortxe, hortxe.

- Eta urtian zihar, Madrilen?

- Bilbon. Hona Madriletik [etozian] nere zeretik haraxe Txanberinera etozenak. Zelan izena euken harek, enok akordetan. Neretako Madriletik haretzek, eta zerak be bai, Valientenak be bai, Buzkantz Kalera, horrek be bai, Madiletik.

- Buzkantz Kalia orduan?

- Bai.

- Jente aberatsa izango zuan, eztok?

- Bueno, guri zelan ez doskuen ezer eskatu ba ezin jakin. Eurak pe ez emon ezer, e!

3.9. Konjurua eta bulda

- **Hizlaria(k)**: Valenciaga Gacetabeitia, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-034/013
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:22:17. **Bukatu**: 00:24:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: "Konjuro-garixa" esaten zitzaion abadeari konjurua egiteagatik ematen zitzaionari. Garizuman okela jan nahi izatera, bulda ordaindu eta libre. "Artakuxuak" (txorimaloak) ipintzen ziren txoriak uxatzeko.

Transkripzioa

-Udaberrixan abadia etortzen zan konjurua eittera edo? Ezautu dozu sekula?

-Konjurue..., "konjuro-garixe" ta horrek esaten zien.

-Eta zer zan hori?
 -Ba honenbesteko bat gari abariai emon. Ta gero ba buldie be bai.
 -Zer da buldia?
 -Buldie zer dan? Garixuman okelie jan gure bozu, buldia pagau ta okelie jatia libre. Oseake...
 -Asko pagau bihar zan?
 -Eztakit zenbat, ideiaik pe eztaukat zenbat izeten zan.
 -Zeuek hartu ziñuen sekula buldaik?
 -Eztakit, ideiaik pe eztaukat, e. Nik neuk ez behintzet. Eta gure aitte be etzan holako...
 -Baiña ezautu dozu hemen abadia bedeinkaziñuak eittera monagilluekin edo konjurua eittera edo?
 -Hona ermittetara edo eztakit zelan zan, errogatibak edo, eurixa eskatzen.
 -Txorixak uxatzeko zeozer ipintzen ziñuen?
 -Garitzan artakuxuak ipini. Artakuxuak ba txapel haundi bat edo kapela bat edo, ta monigote bat ipini.
 -Ohitturia bai, ezta?
 -Bai, bai. Oin be, porejenplo, ointxe be, oin CDiak, cediak. Horrek ikera itten dabenien. Holakoxiak ipini. Keixai ta, makatzai ta.

3.10. Dantzaldiak eta erromeriak

- **Hizlaria(k)**: Eguren Amiano, Genara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-035/014
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:17:22. **Bukatu**: 00:20:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
 Aisia » Kultura » Dantza
 Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Elorrión izan ziren bere lehenengo dantzak. Abarka-galtzekin joaten ziren. Goiz itzuli behar, bideak ere txarrak ziren eta. Elorrioko plazan abadea begira egoten zen.

Transkripzioa

-Zuk erromeixen lehenengo akordua?
 -Elorrixon. Abarka-galtzakin neguen-da, abarka-galtzakin plazan dantzok itten.
 -A bai?
 -Buenooo! Danok giñen dantzarixak, bai.
 -Eta kaletarrak ez zotsuen begiratzen...
 -Bo, allá kuidaos! Baiña gero, askotan illundu orduko etxera. Klaro! Zelako bidiek euzen lehen ba, oiñezien etorteko?
 -Ez dago urrin ba (zure baserria).
 -Ez, baiña ez euen kamiñoik eta. Zera, abarka-galtzakin, klaro, derrigorrez.
 -Abarkak zelakuak, narruzkuak?
 -Ez, gomazkuak, ondo lotuta barrenian.
 -Zelakua izaten zan plazako erromeixia?
 -Ba trikitikixa asko. Sueltua, bai. Eske saso baten euen abade bat, agarrauen ez eban ixten, e! Gero ba ia ohitturie kendu zan baina, o! Bai, bai. Gero, bakizu, elizia ta plazia, bertan dau. Da abadia ikusten,

begiratzten.

-Eta soiñujole bat edo gehixao edo?

-Bai, soiñujolle bat normalian egoten zan, bai.

-Beste errumeixa-lekuak?

-Honbre! San Blas, Asentzio, San Lorentzo, horrek guztiok. Baiña oiñezien juen da etorri, e.

-San Blas Abadiñon?

-Bai.

-Zeintzuk zien zuendako errumeixaik onenak?

-Zeintzuk zien?

-Bai.-Honbre, igual San Blasekuak.

-Zergatik?

-Ba ezta kitta, hurrien hartzen zalako, herri txikixa be bazan, oin haundi eindda dao baiña bai. Oiñezien juen da etorri. Trena baeuen baiña. Ta oiñezien juen da etorri, bai. Gero Gazetan be bai egoten zan erreumeixia Gabonetan. Gero egoten zan Berrixon be bai; horrek egoten zien. Gero Santa Lutzia. Bueno, baiña behien eitten zan erreumeixia, hara ezkiñen joaten ze, karo, jueteko be bidiak be txarrak eta. Mezara jueten giñen gora, erminttara.

Santa Lutziara?

-Hori, Besaidetik buelta.

-Asentziora?

-Be bai. Hara be erreumeixara jueten giñen eta hara be oiñezien. Hamendik mendiz mendi...

3.11. Orain bekaturik ez, dena libre

- **Hizlaria(k)**: Kortazar Agiriano, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Eguen, Inma - Eriz Gongeta, Miriam
- **Erref**: ELO-037/029
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:42:02. **Bukatu**: 00:43:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Santo Tomas egunean mezarik ere ez zen egoten Mendrakan. Aldapen hiru ermita daude: San Juan, San Jurgi eta Santiago (Santixo). "Nausi" ei da Aldape. Orain ez ei dago bekaturik, orain dena libre. Dena kanbiatzen ei da, jaungoikoa izan ezik.

Transkripzioa

-Bestela mezetara ta zuek Santo Tomasen?

-Bai zera!, kalien. Orduen barriz lehenao mezaik be ez zan egoten Santo Tomas eguna ixenda be. Ez.

-Abareik ez, ala?

-Jentiak astik ez eta zerik be ez. Akabo. Astik be ez. Oiñ egoten da mezia. Abadek edo gorabehera, egoten da. Oin andrak be emoten dittue mezak.

-Aldapen zenbat ermita dare?

-Hiru zer dauz. San Juan, Sarn Jurri (Jurgi) ta Santixo.

-Eta zelan ba hainbeste ermita auzouna baten?

-Zer pentsetan dozu? Aldape nausi da.

-Zeozer izen biher.

-Jolin!, hoixe. Jolin!, hola.

-Ez dago Elorrixon holakorik.
-Hori ba, aber, Aldape nausi.
-Edo pekatu asko hemen?
-Bueno. Oin ez dao pekatuik. Oin dana libre da. Dana libre.
-Eta lehen ze pekatu egoten zan ba?
-Ez dakit ba nik. Lehenguok jun zien kokoraiñoiko (?) baiña oin dana libre da; itten dabena dana parkatuta dao oin. Akabo. Ze eingo dotsazu ba. Gauzak kanbixau eitten dia; jangoikua ez da kanbixetan baiña jentia kanbixetan da. Akabo.

4. Politika

4.1. Gerra hasiera: iheslariak eta taberna etxean

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Gorroño, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-016/003
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:03:28. **Bukatu**: 00:06:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Gerra hasi zenean, UHPko (Unión de Hermanos Proletarios. Milizianoak) guda-taldearen kuartela jarri zen eskolan. Giputzak ei ziren gehienak. Iheslari talde bat hartu zuten etxean. Gero, gerra komiteak etxean taberna ipintzera behartu zituen.

Transkripzioa

-Eta gerria urten zan urtian zuk... -Zortzi urte neukazen. -Eskolan edo bakaziñotan? -Batian be ez. Gerria urte ebenien hor fraillietako eskoletxien ipiñi eben kuartela, UHP, Unión de Hermanos Proletarios. Gipuzkuanoak zien gehixenak. -Zein aldetakuak? Eibartarrak edo? -Gipuzkua danekuak, Donostia ta, Oñati ta, Eibar d, Bergara ta, Azkoitti tta... -Dana dala, zuk zela gogoratzen dozu lehenengo eguna? -Lelengo eguna? -Gerria sortu zala ta... Bueno, hona aillegau zien eguna. -Hona aillegau ziena, gu giñien ortuen, mahatsa giñuken, txakolin-mahatsa, ta etxeko danak, orduen etzan telebisiñoik eta, eta etxeko danak atxur banaz mahats arteko bedarrak-eta ebaten, eta etorri zien zortzi-edo mutil formauta, eta hor etxe aurrien jarri zien, euren konpañietan eta euren lekuetan, da gu illuntzen hasi ebenien danok etxera ta atiek itxi danak barrutik eta, iñoi ez dotsagula zabaldu biher ateik-eta. Eta eten barik hamen mutillak [atartien], atia jo ta atia jo ta. Euskaldunak. Ta zarauztar batzui zabaldu otsen aittak atia. Haren izena be goguen daukat: bat zan [...] eta bestia Ignazio Idiakez. Gero sukaldera sartu ta beste lagun batzuk pe ekarri ebezen, da sukaldien eurek kantau ta trikitixen dantzan-da [bortzegixekin]. -Hori lehenengo egunian. -Lenengo gabian, bai. -Gero izengo zien kontuak, ezta? -Ez. Gero handik hille bi edo hirura gabe baten etorri zien, orduen "Comité de guerra" Casajarenien euen, republikanuena. Da gabe baten etorri zien goxeko laurak aldien eta, benga! Etxie hustu ein bihe(r) zala tabernie ipiñi biher ebela hamen-da. Eta aittak: "Ta ni umiekin nora bialdu biher nozue ba?" -Emaztea-Beratzi neba-arreba. -Euki eben hor etxe aurrien folloe bat eta geratu giñien barrido ohien. Eta esan otsen ekarteko jenerua eta

berak emongo otsela. Eta holan eitte(n) eben. Bagoien ekarten otsen igual sagardaua, eta burdixaz ekarri, eta hurrengo egunien dana eraten eben.

4.2. Lehen tiroak eta kanoikadak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Gorroño, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-016/004
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:06:34. **Bukatu**: 00:08:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: Arrasateko Garagartzatik botatako kanoikadak neska bat hil zuen auzoan. Beren etxea ez zuten, jo mendi tontor batek babesten zuelako.

Transkripzioa

-Eta lelengo tiruak edo bonbardeuak edo entzuten ziñuen hemendik?

-Intxortan.

-Eta Elorrixora ez zan ailegatzen kaiñonazoik edo?

-Bai. Lelengo kaiñonazua bota ebenien [...], eta abioiaz zintta bateaz eitten otsen kontraseñia, abioneta bataz ta. Bota eben kaiñonazua ta, Guarda Zobillen kuartela apurtzia zan destinuoi, eta lelengo pasau ei(n) eben, aurreragoko taberna baten sartu zan, ta neskia jo eban ta iztarra kendu otsan, ta hil ein zan segiduan. Tetuanengua.

-Tetuango neskia?

-Tetuangua. Ta gero bigarren kaiñonazuak jo eban kuarteloi ta gehixao etzeben bota.

-Nundik botatzen zebeñ?

-San Prudentziotik, Bergatik.

-Joño! Urriñetik, e!

-Andrea-Handik hona, orduan denporetan?

-Bai. Hau etxiau dau biziik tontorra dauelako hor. Hona bota ebezen berrogei kaiñonazo baiño gehixao hona fraillietara, UHPko kuartelera. Baiña zelan mendixak ganetik, ganetik pasatzen zien.

- Bai, bai. Horregatik nahiko zebeñ tabernak eta kuartelak eta bazterrian ipini?

-Tabernia gerian euan bakarrik.

4.3. "Nazionalak" Elorrio hartu bi lekutatik

- **Hizlaria(k)**: Arietaleanizbeaskoa Altzerreka, Felisa; Arietaleanizbeaskoa Altzerreka, Frantziska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-017/014
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:19:08. **Bukatu**: 00:20:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

- **Laburpena:** Elorriona eta Elgetara bateratsu sartu ziren francozaleak. Gazetara heldu ziren moroak argalak eta arinak ziren. Hurrengo egunean, arrosarioan zeudela itzuli zituzten gizonak.

Transkripzioa

-Nora sartu zien lehenago (Francoren tropak), hemen Gazeta, Berrixo aldetik ala Elorrixoko kalera. Zeintzuk ailegau zien lehenago? Fr-Hoixe eztakit. -Fl-Hortik sartu zien, Memarixatik sartu zien, da gero ba hau fallau ebenien Elgetako zeroi, ba bestiek ailegau zien da ba. Oiñ hori horko batasunoi eztakit zelan eiben (ein eben). -Batera samar, ezta, egun baten... Fr-Egun baten pasau zan hori danoi. -Handik sartuko zien Memarixa aldetik, eta bestiak ikusi zebeñian harrapauta zarela atzetik, iges egingo zebeñ... -Fr-Bai. Baiña zan..., bueno. Txikixak giñien, bost-sei urte. -Fl-Hona moruak sartu zien. Baltzak ez zien, e! Argaltxo batzuk zien, bigotiekin-da. ñeeeñeee..., ajillak eta zerak zittunan. Oin, bal-baltzak ez, e. Oin dauzen moruko baltzak ez. -Eske moruak, berez, marrokixak ezte baltzak. -Fl-Moreno-morenuak bai. Ta ba gu bialdu giñuezen... -Fr-"Manos abajo" itten ei etsen; "manos arriba!" itten ei etsen. Nik hori beorri entzunda. -Fl-Hurrengo egunien be barriro jun giñien erresaixora. Da handik etorri zien, mutil batzuk etorri zien, da, kirrinn, atia zabaldu eben; da, klaro, prisioneruek [eruen] zittuen da bialdu zittuen da. Orduen be haraxe erresaixora ailegau zittunan. Da, klaro, horrek etxatzuz ahazten sekula. Horrek ikusteozuz pelikulian letxek memorixan.

4.4. Errepublika aldarrikatu zen eguna

- **Hizlaria(k):** Igarza Zubiarte, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-020/013
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:17:53. **Bukatu:** 00:20:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Era guztietako mitinak izaten ziren plazan. Behin, gogoan du, herritar bat plazako maila batera igo eta "Abajo el clero!, Viva la República!" oihu egin zuela. Errepublika aldarrikatutako eguna izan zen. Nazionalisten mitinak.

Transkripzioa

-Behin ikusi giñuen gauza bat Patxik eta nik, parrapien euen erromeixia. Ze gerra aurretik beti euen mitiña batena, mitiña beste... Eta gu juten giñien hara eta "ha norena izen da?" eta "eztaitt, baiña esan dau Gil Robles, da igual, e. Eta bestien Prieto, eta bestien nor dan be ez. -Plazan beti egingo zan? -Bai. Eta juen giñien behin, egon giñien Patxi ta ni begira, da kojo bat euen Elorrixon eta igo eban aiuntamentu onduen mailla batera, maillatxo bat euen han, eta igo eban hara eta esa(n) eban: "Abajo el clero, viva la República!" Eta danak: "Viva!, eee!", zarata baten eta. Juan giñien ariñeketan ezkatzera eta esa(n) otsan amak, Don Justo abogau bat euen gurien, e, "Juez de Paz" zan orduen Elorrixon. Esa(n) otsan: "badatoz honek, badakarre honek zeoze". "Zer dau plazan?", ta. Zer

dan be ez "abajo el clero", eta "viva la República" be ez ta. Don Justok: "Nok esan dau ba?" "Felixek esan dau, igo dau maillara ta danak". Eta, klaro, urte(n) eben eta efektibamente. Plaza euen...! Eta zan, Eibarren ipiñi eben banderia, hortxe egunien, "el día de la República". Hori egunoi be guk... -Goguan daukazu? - Honbré! "Abajo el clero" eta zer zan be ez. Eta gero esa(n) oskunien kasik pekatua zan hori. "Abajo el clero, jo..." Hori geratzen xatzu... Hori edadioi da nik pentseteot... -Dana grabauta. -Bai, hobe izango zan eskolia ikasi bane(u) nik holan. -Zazpi urte edo eukiko ziñuan zuk? -Hamaika, hamaika. -Republikia. -A, republikia ez, hori, hori, gaztetxuaua. -Orduan juntaizu haundixa egin zan, jente asko batu zan? - Republika egunien? Plaza guztia. Herriko jentia etorten zan eta plazia bete. Eztait nundik eze kanpokuak pe etortzen zien. Eta esaotena, e, mitiñak eta be egoten zien asko. Eta guretzako, bueno, kalien denpora guztian da, ezebe ez zan egoten baiña, kalien egoten giñien. -Eta nazionalisten mitiñak? -Bai. Etortzen zan hona "Zabala dator", esaten eben, hau eta bestia ta. Hori zan nazionalista. Eta ikusten giñuen ba alkatia be zan Ariño, nazionalista zan, eta guk ezautzen giñuzen danak.

4.5. Gerra hasierako mugimenduak; kanoikadak

- **Hizlaria(k)**: Igarza Zubiate, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-020/015
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:20:40. **Bukatu**: 00:23:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Soldaduen mugimendua sumatzen zen alde guztietan. Bergararik botatako kanoikadak etengabe heltzen ziren Elorriora. Behin, etxean sartu zitzaien bat.

Transkripzioa

-Gerria lehenengo nun somau ziñuen hemen?
-Hamen ensegida, ensegida. Ez tiroik-eta, e. Baiña zeozer dauela ensegida, ze danak hasi zien, kotxietan sartzen zien eta gora ta behera, fusillak bentanan da paiñolo gorrixa ta, hamen sozialistak pe baeuezen, da ensegida. Baiña ez zan ezebe pasetan. Hamen hasi zan mobidia oktubre inguruen, oktubre inguruen. Eztakit zer egon zan hor Intxortan ero Irun be erre. Eztakit exakto egunak, baiña danak betetan [...], dana pasetan zan...
-Entzuten ziñuen Elgetakua izan zanian tiruak edo?
-Elgetakuak ez. Udalakuak entzuten giñuzen Igurixan basarrixan egon giñenien. Eta ez zan bihar Intxortakoik entzuteik, e. Ze hor Elorrixoko... ez herrira, baiña Txanberi inguruen, Txanberitik gora egun bat bai tta hurrenguen be bai kaiñonazuak egoten zien hor zazpirak inguruen. Bergararik botatzen zittuen. [...] Gero enterau giñien Bergararik botatzen zittuela. Eta guk giñukan han artillerua, militarra, orduen zan tenientia. Eta harek esaten eban: "Siempre andábamos antes de Elorrio, antes de Elorrio!". Eta etorri zanian lelengo-lelengo etorri zan aber etxia zutik euen ikusten. Eta esaten eban: "Pues nosotros hemos tirau, e. Jolin, por poco...". Jo eban behin Tribulin etxia da nere etxien onduen dagona, ezta, eta jo

eban alerue, esplotau eban kaiñonazo batek eta sartu zien ba holako... eperdixa obusena, jo eban hormia, sartu bentanatik, sartuko eban etxando txispas. Jo eban hormia aiuntamentukua, buelta ein eta jo eban pixu bat, holako bi kiloko pixua, ta zatittu ein eban. Eta gero bestekaldien euen balde haundi bat abarketakin; ze orduen abarketakin ibiltten giñien danok, eta gu asko giñien da abarketak pe asko. Eta euezen baldien lejiatan ipinitta. Jo baldia ta taberna guztia bete zan abarketaz. Jente guztia: "Pero qué... Zer dok, baiña, hau?" dana, dana abarketa pillua lurrien.

4.6. 34ko "Iraultza"ko oroitzapena

- **Hizlaria(k)**: Treviño Agiriano, Pantxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-025/015
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:19:26. **Bukatu**: 00:21:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: 34ko urriko "Iraultza" eguneko oroitzapenak: ama Eibarrera joana zen astoaz, eta aita larri, ez zelako agertzen.

Transkripzioa

-Akordaten naz, nik eztakit zenbat. Zenbat urte da Eibarko zeroi urten ebanien? Setenta?
-Bai, pasauta izango die, treintaiunuan zan eta. Eibarko zer?
-Hori..., gerra moduen edo zoeze jazo zan.
-Bai, bai.
-Eta gure ama jun zan esniekin Eibarrera, eta illuntzera arte ez zan etorri.
-Treintaikuatrua.
-Eta gure aittek hara tontorrera junda, handik basotik etorten zan eta, Zaldibartik. Zenbat buelta eitten eban? Eta ez zoskun ezebe esaten. Eta illuntzixen astuaz etorri zan.
-Ta zer pasau jakon Eibarren egun horretan?
-Ba ze zan jazo zana? Republikia.
-Ez, hori izango zan Hogetamalauko Reboluziñua edo modukua egon zanian, ezta? Zuk zenbat urte orduan?
-Eztakit ba, larogeta hiru daukadaz oin eta.
-Bost edo hola?
-Ba hoixe pentsetan dot nik pe, txikitxue nintzen eta.
-Hogetamalau izengo zan, bai, egon zan halako zer bat eta.
-Ba orduentxe. Ta ama iluntzixen etorri zan.

4.7. Durangoko bonbardaketa

- **Hizlaria(k)**: Urizar Zuñaga, Herminio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-027/003
- **Iraupena**: 0:04:55. **Hasi**: 00:07:35. **Bukatu**: 00:12:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Durangon, aurrez ere egon ziren bonbardaketak, baina gogorrena nola gertatu zen kontatzen digu. Ama zauritu zuten eta umeak Matienara aldatu ziren.

Transkripzioa

-Eta Durangoko bonbardeua gogorrena orduantxik izen zan. Ordurako Durangon bota zittuen, hille batzuk lehenau, bi-hiru lehenau edo, han frontoi bat euen, Ezkurdin, frontoi luze bat, da han bonban bat, bi edo hiru jausi zien eta hil zien, hilddako bi edo hiru egon zien itxuria. Baiña gero izen zan gogorra. Hori izen zan, bonbardeua izen zanien goxeko zortzitterdittan agertu zien abioiak, lau-edo honek bonbardeokuak, eta beste beratzi edo "de cazas" esaten dienak, eta horrek ba atzien protejitzien. Eta gogoratzen naz, ba sirenia entzun giñuenien orduentxe ni, amak armozue emo(n) ostan eta jueteko [...] ia gertau [nauen] nere anaiakin. Barria kalien, Calle Barria han dau bat, Konbentu kalia ez hurrengua harutz, ta haraxe jueten giñien egunero ba eskolara, Maristak euki eben han pixu bittan edo etxe baten Barria kalia, da hara jueten giñien. Eta orduentxe gertu jueteko eta abioiak agertu zien. Sirenia jo eban eta ikusi nittuen nik abioiak hametik Elorrixo aldetik. Klaro, hamen bonbak bota ebazen bi edo hiru eta gero segidu ei(n) eben harek abioiak. Da han gero han izen zan, e...

-Esaten dabe oso gogorra izan zala, ezta?

-Puff! Hara, Gernikakua be gogorra ixen zan, ze orduen be tokau yakun egotia Mendatan basarri baten, da Gernikatik bastante onduan.

-Ze diferentziakin izan zien Durangokua eta Gernikakua, zenbat egunen aldia egon zan?

-Bueno, ba, itxain. Elorrixokua izen zan, o Durangokua izen zan martixen pentsetan dot izen zala, hogetaseixen edo... Ez, ez, ez daitz ointxe. Hori bonbardeuoi Durangokua "treinta de marzo"-edo, martixen hogetamarrien edo ixen zan. Ta han izen zan hamen Intxortakohau frentia apurtu ebenien, hiru egun edo lau lehenau Gernikakua ixen zan. Ta Gernikan egon giñen han basarri baten ze ama Durangon hor bonbardeuen metrailliak holatxik besuan, ta hankan euki ebazen punto bi ta ama aittak eruen eban zerera, kotxien hartuta, ospitalera zera eitten, osatzera, da gu bestiok, aittak nere anai nausixai esan otsan "hartuizuz danak eta jun zaitte zeera, Abadiñoko auzua...

-Ze aldetara?

-Batek eukan tabernia hantxen Abadiñon, eta gero, zelan da bestia? Abadiñoko auzua, Durangotik Matixenara, Matixenan. Motxoia esate(n) otsen eta gure aittak asko ezautzen eban ze berak saldu otsan itxuria motorren bat edo zeozer. Eta hori Motxoia Elorrixora be asko etortzen zan ardaua saltzen-da. Ta han, Motxoianera juen zaittie eta esaiozue neuk bialdu zaittutela ta ni amakin zeera noia, ospitalera. Eta ospitalera juen zanien dana jentia baiño ez euen, heriduak o danak. Eta Duragokua izen zan, e... Pasau zienian abioiak hametik Elorrixo aldetik harutz [...], bostak holantxik, deskargau ebezen ba ehunetikiguel larogei bonbak danak golpien, osea, pasaizuen bota zittuen.

-Zu orduan Durangon zenden.

-Klaro, gu Durangon bizi giñien.

-Eta errefujixuan zendeten ezkutauta momentu horretan edo zela ein ziñuen?

-Ez, gu geure zerien, gure etxian, lokalian. Orduentxek amak armozua emon oskun da ba gu zeera, Konbentu kalera, ez, Barria kalera jueteko

giñien ba eskolara, maristetara. Eta orduantxek izen zan hori. Goxeko zortzi terdixak edo izen ziran. Goxian goxau izen zan.

4.8. Nazionalak eta moroak sartu ziren eguna

- **Hizlaria(k):** Egidazu Gongeta, Claudio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-031/011
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:29:45. **Bukatu:** 00:33:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Frontea erori bezperan, etxetik atera eta Bilbo aldera bidali nahi izan zituzten. Etxeko batzuk ganaduak hartuta joan ziren. Gerora, moroak Gazetara etorri eta gizonak eraman zituzten Elgetara. Ardiak lapurtu zizkieten.

Transkripzioa

-Hona nazionalak sartu baiño egun bat edo bi, etorri zan hona gabeko..., eztaitt orduetan, pistola eskuen eta, "Hay que salir fuera, hay que salir, hay que salir derrepente", ganauokin. Eta aber nora, aittak, koiñetuaz edo. "Dónde voy a ir con esta familia" ta. "Porque no llevais vosotros las vacas y todo el ganao?". "No no, hay que salir, ya están saliendo todos. Ya vendré enseguida". Laster etorri zan barrido be. "Cuando vengo yo ya tenéis que estar fuera". Danok negarrez, zer ein be ez; eta urten eben anaiak eta arrebiak, ganauak hartuta Bilboraiño juen zien. Ta beste bat veinticuatro de abril Elorrixon sartu zien. Gazetara jatzi zien moruak. Ez euken libertadeik hona etorteko, baiña seguramente ardixegaittik, e. Ze hiru-lau egunien edo ardixak etara barik euezen eta gosiaz kortan eta. Tiroteuoi akabau zanién arratsaldien ardixok etara zittuen kanpora. Ta Intxortatik edo ikusten zittuen ardixok. Beratzi edo bajatu zien, eta eztaitt hamabi lagun edo zenbat eruan zittuen. Ta gure aitta difuntua salbau zeikien, baiña hortxe Bolungaraiko [neskokin] roze haundixa giñuken eta etorri in zien. "Pedro, joan in bihar ziñake, hor eztaitt ba reunixon bat edo, fulano ta fulano ta fulano juen die eurakin eta. Zeu be joan in bihar ziñake aber ze esaten daben edo. Eta joan [ingo ete non ba] [...] horma gaiñien eta atzetik ondora arrimau zanién,e, "Paisa", kuadrillara. Nora doiazen be ez. Intxortara, Asentziotik ziber Elgetara. Elgetara aillegau ta ardixok "en un santiamen" desaparezidu. Dana moroz beteta Elgeta. Eta ardixok danok. Sartu ei zittuen han kuarton baten edo, dana bonbia ta muniziñua besteik ez ei euen, eta hantxe. Eta androk negarrez danok, alde batera, bestera. Gero bajatu zien domekan, hurrengo eguna domekia. Ta aber baten bat hemen, aiuntamentukon bat edo zeozer baekixen. Baiña iño, e... Horretako etorri zan kapitana gurera. Nik eztaitt, e, gure arreba bat Donostian euen eta haren famelixakon bat edo. Hantxe Bolungaraiko etxe onduen mutiko-neskato kuadrilla bat, eta gure aitten preguntie ein oskun. "Pedro Egidazu dónde?". "Pero no está, y la madre tampoco. Han ido el padre... Bajaron ayer los moros aquí y llevaron a no sé dónde. Ovejas y doce o no sé cuantos". "Moros aquí? No puede ser". Elgetaz itxuria libertade guztia euken Elgeta hartziarren moruok. Buelta eindda juen zan ta domeka gabeko hamarrak inguruan edo etorri zien gizonok etxera. Ardi barik. Hiru etxetako ardixak. Orduen errebañuek pe txikitxuak. Hogetamar

edo berrogei edo. Kuestiñua behintzet...
-Erendako hartu zittuela.
-Jateko. Bai. Segittuan desaparezidu zien ardixok.

5. Baserria

5.1. Auzoetako erromeriak eta errondak

- **Hizlaria(k):** Arietaleanizbeaskoa Altzerreka, Felisa; Arietaleanizbeaskoa Altzerreka, Frantziska
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-017/023
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:33:12. **Bukatu:** 00:35:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** San Estebanetan Berriora, San Lorentzotan Miñotara, eta abar. Angiozarko Itxua (Felix Aranzabal) soinujole famatuena. Gauez "errondia", gaupasa, neska eta mutil.

Transkripzioa

-Auzuetako jaixetara joaten ziñaten, Berrixo edo?
-Fran-San Estebaneta-da. San Lorentzora be bai Miñotan, barrixua-eta. Gero zerian be bai, Gazetan be beti egoten zonan zeroi. Igurixan be bai. Euren santuen egunien fiestia.
-Eta zela izeten zan erromeixia? Ze soiñujole ta ze...?
-Fran-Hamen baakizu nor egoten zan sarri? Itxua, Felix. Hamen sarri haxe. Hamen holakoxe bat izen biher, ze ostantzien traste [...] Oiñ akaso...
-Fel-Hamen etorten zonan beste bat Isaak, Angiozarko tabernakua. Ha be etorten zan soiño-joten.
-Korro bat baiño gehixao ez zan egingo, ezta?
-Fra-Keba. Korro bat, korro bat.
-Kobrau-eta, mutillei kobratzen zotsen?
-Eurek jakingo eben; ostantzien ez eben kobretan. Mutillak izengo zien soziedadeko zerok.
-Fel-Edo etxen baten; orduen ez euen soziedadeik pe, [...], han itten zan erreimeixioi, ta txokolatie gabien eta errondia-ta, ba holakotxe gauzak. Lehenaoko kontuak.
-Errondia zer zan?
-Fra-Ba afalostian juntetia barrido. Dantzan eiñ da. Gero goixaldera txokolatadia.
-Fel-Txokolatia ta berakazopia.
-Osea, gaupasa eitten zan.
-Fra-Bai, bai. Hoixe izeten zan fiestioi.
-Fra-Baiña hamen esaten otsen "errondia".
-Fel-"Gero etorri, e! Ez geatu etorri barik, e!", eitten oskuen. "Etorri!".
-Neskak be joaten zien errondara?
-Bai, bai, danak. Neska ta mutil.
-Egun seiñalauak izango zien, ezta?
-Gurera be..., enjeneral hor beheko etxian egoten zan Felix.
-Parientia da Felix, Itxua, hamengua. Aranzabal.

5.2. Iratan

- **Hizlaria(k):** Eguen Belar, Martxel; Errasti Onagoitia, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-021/013
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:17:48. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Santa Maiña eta Erdella mendietara joaten ziren iratan. Hogeitaka burdikada ekartzen zituen Martxelek. Satsari buelta ematen zitzaion ilberan. Kortako leihoak itxita edukitzen ziren, ganaduentzat haizea txarra zelakoan.

Transkripzioa

-Udazkenian iratan eitten ziñuen?
-F-Baitta, baitta. Hori zetan esan be ezta?
-Nora joaten ziñaten idatara? Zela eitten ziñuen?
-M-Irixekin, eta behixak beste pare bat, eta hor Santamaiña, Erdella, Mendisololo... Horraxe mendira. Egunien bieje bi ekarri, da gero lepoka jaso.
-Nora?
-M-Gora. Ta gero artua zurittu, aparte. Da gero porrusaldia.
-Basora iratara zein joaten zan lelengo ebaitzera? Zeuek?
-M-Bai, klaro. Ebai tta preparau ein biher. Batzuetan haxiek erueten zittuen. Da bestiok ba...
-Eta oso urrin zeren ida-sailak ala ez?
- (...) Hortxe...
-Zegatik zan hain inportantia iria?
-Iria? Hogetaka burkarak ekarten giñuzen, hogeta zortzi-beratzi bat burkara. Sabaiok itxi, bete, ta gero metak ein gaiñera.
-Lan gogorra, ezta?
-Satsa eitteko.
-F-Satsa eiñ eta ha gero solora atara-ta. Eneeee.
-M-Da ilbarrixe zanien buelta emon satsai, ze-zeia egon daitten.
-Ilbarrixa zanian?
-Ilberan emon buelta. Aaai...
-Kortan emoten jakon?
-Kortan, kortan. Oiñ kortan ganauak pe danak-eta; bentanak -zuek "leihua" esaten dotsazue, ezta-, harek pe zerrau, haxeik pe etxakuela komeni behixei tta. Oiñ kanpuen txalok eta behixok eta. Edarto.
-F-Ipurdiko zulue be garbittu ondo.
-M-Aber zelan dien gauzak.
-Bai, zelan kanbixau dien, ezta.
-M-Dana zerrauta.

5.3. Zenitako auzo-errota

- **Hizlaria(k):** Esteibarlanda Aizpurua, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-022/003
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:05:18. **Bukatu:** 00:08:34

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artoa
Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Artoa urkultzen egiten zuten txikitan. Zenitako auzo-errotaren sorrera-akta buruz esaten du, erdaraz. Ia hogeit hamar errota zeuden sasoi batean Elorrion.

Transkripzioa

-Sutonduan lanik egiten zituena mutikotan artua zuritzen edo?
 -Artua xehetzen-da, urkultzen-da; hori bai.
 -Eta zurittu?
 -Zurittu tartien zerian askaurrien, askaurrien.
 -Askaurrian hori, sukaldian ez, zikinddu eitten zan sukaldia. Artua urkuldu, berriz, sukaldian, ezta?
 -Bai, enjeneral, neguen-da bai; ostien, bero baeuen kanpuen be igual edo.
 -Erresaixua errezauaz ala ez?
 -Bai, bai. Errotia, auzo-errotia giñeukan. Partia astelenak, bata bai eta bestia ez. Da hori errotioi barriztau zan zerien, milla seirehun da hogeta zazpizen barriztau zan. Hamalau parte zien, hamalau astiak [...] bakotxien. Eta hori ein zan, e, dana esango-ot?
 -Zerbait esaten badozu gustatzen etxatzuna, eztou ipiniko, zu trunkil.
 -Erderaz dago idatzitta: "a primeros días de febrero del año mil seiscientas ventisiete convenieron los vecinos de Zenita, Berrio, Gastea, Mendraka y Lekerikas para renovar eso". Da konpondu eitteko [uetua?] izan daittela, eta izan daittela tiro bikua. Honenbeste oiñ, arra, kana, kana bi tterdi uste dot daukala.
 -Zerk dauka kana bi tterdi? Zeren neurrixa da hori? Errotiak?
 -Ez. Kania da larogeta zortzi (koma) hiru zentimetro daukaz. [...] kaniak, "la vara", erderaz. Berrehun dukat zan dirue eta juntau. Juan Rementeria zan maiordomua. Kondeziñua: "Para poner andante y moliente para el día de Santiago del año corriente".
 -(Barreak) Bertsoan orduan. Asike auzo-errotia zeunken.
 -Bai, eta beste bat euan zerien. Elorrixon ba hamazortzi, eztakitt, hemeretzi errota badaz. Batzuk auzo-errotak eta beste batzuk partikularrak.

5.4. Lixiba eta ehuna

- **Hizlaria(k):** Lasuen Ugaldea, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-023/029
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:53:58. **Bukatu:** 00:56:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Lixiba nola egiten zuten esplikatzen du. Errekara joaten ziren arropa aklaratzera. "Erauntz-orrixe" (ereinotz-hostoa) botatzen zitzaion usain ona izateko. Ehun-arropa erabiltzen zen gehienbat. Bere amaren sasoiak ba omen ziren gorulak (goruaz haria egiten zutenak)

Transkripzioa

-Zelan eitten ziñuen lixibia?

-Lixibie? Hementxe euen beheko sua, holakoxe kanpae haundi bat euen tximinixia, goraiño zan libre hau, kanpaie lakoxe bat tximinixie, hor beheko sue ta hemen holan barrikie eukitteko lekutxo bat askatxo bataz, eta lixiba-ontzixe esaten dxakon hari; ha lixibie zan ohe-errobie ta erropa zurixe. Eta azulak azpixen ifintten zien.

-Zertzuk?

-Erropa azula azpixen. Bai, ta bestie gaiñien. Ta harek jabonau ta sartzen zien han. Ta gero ur berua botaten dxakon, hastrapua esaten dxakon, ehunezko tela-zati haundi bat ifintten [dxakon] hari gaiñien ta surteko hautsa botaten dxakon hari gaiñien apurtxo bat hartu deixen harek. Ur berue bota handik. Lelengo urek kendu itten dxakozen danak. Handik askatik etara ta fregaderatxo bat euen hor eta handik behera botaten zien. Eta gero handik aurreraoko urek behekie hartu ta gora bota. Ta gero errepara jueten zan hak garbitzen barrido. Errekan eitten zien. Hortan ama guria erropia garbitzen gutxin morukua zan.

-Errepara akklaratzeko edo?

-Errepara akklaratzeko danak. Akklaratzeko errepara, hartu...

-Errekan bazuenken lekuik...

-Bai, harrixe be bai, eta ona geuken errepara. Ur ona gaiñera, ur garbixe. [...], eta akabo oiñ. Baiña orduan ur ona egoten zan.

-Zeozer botatzen zontsen usaiñandako?

-Erauntz-orrixe. Erauntz-orrixe ganien ifintten dxakon, ta hastrapue esaten dxakon hari ganie hartzequai. Ta ha trapue ifintten dxakon eta surteko hauts apur bat eta erauntz-orrixe gaiñien.

-Harek usain gozua eukiko eban.

-Bai, haretzek etaraten eban zeroi. Baiña lelengo urek hara etorten zienak goittik behera, fregaderatik behera. [...] ostera berua egoten zala ta ba behera. Eta gero errepara.

-Eta zelakuak geratzen zien?

-Kolare ona. Eta usain bat... Orduen ehuna izeten zan dana, ehun-errobia.

-Ehuna latza geratuko da ba, ez?

-Garbitzen-garbitzen argitzen da. Garbittuta bai, mehetu eta argittu itten da. Eta finddu.

-Egiten zan hemen ehuna?

-Ama guriak-eta eitten ebela esaten eben. Eta lehenao basarri-etxe askotan halako propietarixo haundiek itten zittuen, "gorulak" esaten otsen harei. Goruetan eitten eben. Eta ama guriak eonda dauela esaten euen holako lekuetan eitten. Auzuen han eztakit zeñek, badakit zeñek. Nere ama zan, Aramiño esaten dxako, Berriozaletatik harutz hiru-lau etxe. Hantxe, hemetikaldeko etxia, jausitta dao, [etxekue] zan nere ama.

-Gorulak orduan bazien zuen aman denporan eta.

-Bai. Nere aman sasoiñ bai gorulak bazien. Eta gaubelak pe bai.

5.5. Otea ebakitzen basoan

- **Hizlaria(k):** Treviño Agiriano, Pantxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-025/010
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:13:53. **Bukatu:** 00:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Artean umea zela, aitarekin basoan otea ebakitzen nola ibili zen kontatzen du. Aitaren jarrera goraiatzeko du. Ama plisti-plasta (belarrondoka) ibiltzen ei zen, baina aita ez.

Transkripzioa

-Zuk ota-jotia ta ezagutu dozu?

-Jotie ez baiñe ebatie bai. Basuen. Eta aittittek, e, aitte taillerrien ebillen. Eta aittittek "juen in biko dxonau"; holakoxe denporia. "Juen in biko xonau". Bai, zer... [...]. Urte biko ota-bedarra. ["zelan juengo ga?"]. "Ba jueten ezpagaittun etxonau ebaiko, etxonau ebaiko ba", ta. Piper-txorixeruek hartu merixendetan eta bagoiez. Segie zorrozten ez zekixen aittittek, eta aittek segie ekarri ebanien etxera, guk hartu, ze igeteixak eta ibiltten giñen eta. "Egunen baten hainkan bat ebai bixok honek, hainkan bat ebai bixuek honek umiok!". "Hartzen ezpadabe eztabe ikesiko", aittek. Eta juen ga. Nebie be bai, e, Iñaki be bai. Ta juen ga eta ni hasarre, berua euen eta ezin zeikien ebai ta. Etorten da honen amen osaba bat Gasatik. Bakizu nun dauen Gasá? Tio Euxebio. Etorri hadi geurea kridxada, horrenbeste bihar ezton eingo ta". "Zuk eztozu iñor biheko geldi egoteko", nik. Eske...

5.6. Linua eta ehuna

- **Hizlaria(k):** Irazola Arietaleanizbeaskoa, Dominga
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-026/013
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:22:30. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Amak linuaz arrea egin zuen. Egunez josten etxerik etxe eta gauez goruetan. Ez du ezagutu linasororik. Gorua nolakoa den. Gerra ostean ehunezko arropak josi zituen; zakuzkoak ere bai.

Transkripzioa

-Zuk liñua ereitten zebela-ta entzun dozu, zure aurrekuak edo?

-Bai, bai. Gure ama difuntiek arriua ein eben berak goruetan. Zien hamahiru, hamaika, ezkondu zien hamaika; ez, hamar, hamar ezkondu..., hamahiru zien, hamaika bizi; hamar ezkondu ta bat soltero. Danendako arriua ein eban liñuaz berak.

-Eta hemen erein egitten zan liñua edo beste nunbaitetik ekarriko zan ordurako?

-Ez, ez, ez, beste nunbaitetik ekarri.

-Zeuk ez dozu ezagutu liñu-soroik eta ez, ezta. Horrek die lehenaoko kontuak.

-Bai. Eta goruetan, egunez josten eitten eban etxeik etxe, eta gabian, klaro, gabien goruetan danak, kandela argixaz goruetan. Eta arriua neba-arrebendako danendako eiñ eban liñua berak eindda.

-Gorua zelakua da?

-Ba gorua da holako zer bat, holako bat, eta hemen holako buelta bat, holan emoten otsen buelta, holan emoten otsen buelta. Buelbaka. Hemen

bolatxo bat, eta holan bueltaka holan batu... Holan zertu ta bueltaka holan emoten otsen buelta.

-Zeuk ikusi dozu goruetan?

-Bai, ikusi dot.

-Errondak edo eitten zan, gorularixak juntau gabian ta?

-Bai... Ez. Errondak ingo (e)bazen baiña ez; gabien ba berandu arte ez.

-Zeuk ehunezko erropak ezagutu dittuzu?

-Bai, bai, bai. Harixa be gurien asko euen-da. Ixerak eta be bai, asko, asko. Asko euen.

-Ze moduzkua da? Ez da latz samarra geratzen edo?

-Ez, behin ohien ipiñi ezker ezta geratzen latz, ez. Ondo.

-Hor be egongo da hari fiñaua ta...

-Bai. Senduaua ta mehiau ta bastuaua ta. Zelan eitten dan gorua, zelan eitten dan gorua. Gorua zelan itten dan be bada.

-Zeuk josi dozu harizko edo?

-Ez. Bueno, gerra denporan bai josi giñuen zakuzkuak eta holakuek eta danak gerra denporan. Ze orduan ez euen telaik, eta zelan ez euen gerra ostien telaik ba... Zakuaz be eindda nau.

-Bai, e?

-Orduen josten ikesi barri neuen baiña. Nire aiztiak pe afan haundixe euken josten eitteko. Ta aiztiak josi itten oskun, ta lagundu ta ba.

-Zakuaz akordatzen za ze josi?

-Bai, zakuaz be akordetan naz.

-Zer, erropia ala beste zeozer be bai?

-Gonak, gonak, gonak. Gonak eta. Enjeneral zakuakin gonak.

-Eta txukun geratzen zien edo?

-Bai, ondo. Ba eruen eitten zan da ba eruen.

-Modan jarriko zan eta.

-Modan jarri zan. Besteik ez euen eta dauena. Gerra ostian euen.

-Hola izaten die gauzak.

5.7. Arbillo kale-baserria

- **Hizlaria(k)**: Eriz Arbulu, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-030/002
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:00:44. **Bukatu**: 00:03:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 - Baserria » Baserriko lanak » Garia
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Jaio zen etxe berean bizi da, baina berri egin zuten semea ezkondu zenean. Kamara eta sabaia zuten lehenago. Kale-baserria zen Arbillo. Soroa, ortua, behi bat... denetik zuten. Garia ere bai. Nola jotzen zuten garia.

Transkripzioa

-Umetan ezaututako etxia ta oingua oso diferentiak dittuk?

-Bai. Lelengo bizi giñuaz ointxe urte bi arte goixen. Ta gero zelan

ezkondu zan semia hona behera, ta familixa hasi dxakun [esaten], "Aitta, ba guk beste leku batera juan bihou, hemen ezka kabitzen. Eta gura bozue ba zuek bajau behera ta guk igoko dou gora, ostian kanpora juan bihou. Eta esan giñuan, guk daukun edadian iñor barik geratzia etxien be, ba esan giñuan: "Ez, gu juango ga behera eta zuek etorri gora. Eta orduen ein eben obria goixen eta harek bizi die goixen eta gu hemen behien.

-Lehen igual ganbaria izango zan goixa, ezta?

-Kamaria ta sabaie gaiñera. Kamaria ta sabaia, bixak.

-Eta kamaran eta sabaixan jenerua eukitzen ziñuen?

-Jenerua bai, guk orduan denporan giñien sei neba-arreba, ta hartzen giñun hor soluen artua ta patatia ta babak. Ta urtien hazten giñuzen ba saso baten txarri bi. Gurian, ezta esatiarren, baiña egoten zan ogixa ondo, ta zaragi-ardaua kortan. Aittak eukitten eban bost kuartilloko botillia, ta danei emoten oskun ardaua ta ogixa. Hori sekula ezta falta izen. Gero babak, lentejia edo gura dana; lujoik bapez. Baiña jana bai. Eta orduen soluen itten giñun biharra. Ta kamaran eukitten giñun ba artua ta patatia.

-Ganaurik ez?

-Ganaua bai, behi bat. Bai, gero ya kendu giñun, baiña lelengo behi bat euki giñun.

-Kale-baserritxua zan orduan.

-Eske hemen kalia danak euki giñun behixa orduen, gehixenok. Ta orduen denporetan garixe be bai. Ni eindde nau San Ferminetatik etorri eta gari ebaten eindda.

-Zeuk be garixa...

-Neuk pe bai, neuk pe bai ereindda nau. Ta ida ebaten be bai basuen, e. Ez, ez, danak inddakuak ga gu. Eta orduen denporan egoten zan kalia, pentsaizu zelako trafikua egongo zan, garixa etaraten zan hemetikaldetik betik, enjeneral [...] euzkixak hona jotzen eban ba. Ta kamiño erdixa eta honek zera danok garixa jo biha zanian ipini harri haundi bat edo bi zerien eta han jotzen giñun garixa. Gu mutikuak lastua altzau kamarara. Guk ez, guk ez [giñun] asko hartzen, baiña ni ibilitta nau hor beste etxe baten lastua altzetan.

-Eta garixa jotzen heu bai?

-Ez. Ikusi. Klaro, ni oinndiok ba gazte.

-Hori gerra ostian galdu zan.

-Ni gerra ostian egon nitzan, San Fermiñetara joateko, ba nik hogeitau urte edo eztaikit zenbat eukiko [nebazen] orduen.

-Orduan gari asko ez ziñuen hartuko.

-Ez, solo txiki bat, solotxo bat. Ohitturia zan eta zerian ba horretxegatik.

5.8. Gazetako errota eta turbina

- **Hizlaria(k)**: Egidazu Gongeta, Claudio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-031/003
- **Iraupena**: 0:04:14. **Hasi**: 00:04:06. **Bukatu**: 00:08:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Errota
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

- **Laburpena:** Bi auzo-errota zeuden Gazetan, bata garirako eta bestea artorako. Argindar etxearen historia. Lau urte zeuzkala sartu zen argia etxean. Pozez zoratzen.

Transkripzioa

-Errotia zeuek ez ziñuen eukiko, ezta?

-Errotia hor ehun metro be ez, hur-hurrien etxetik. Gazetan euezen errota bi, baten euezen harri bi garixe eittekuak, eta gure etxe ondokua artua eitteko. Ipiñi errotia martxan, presia bertan euen, da taluak eta eitteko uruna, [gu mutikuak] holan bigun-biguna hartu da eskuen raa! pelotie eitten zan, ura oso latza euen ganauei ero emoteko. Harrixa altzau pixkat [da urtete(n) eban granulaua], uruna ona eitteko ha hartu holan uruna, bra-bra! botatzen eban urunak kajora, da hola hartu ta pelotia eindda; ha izaten zan, e.

-Errotia ze zan, auzo-errotia?

-Auzo-errotia. Auzo-errota bi. Depositua euen... Bueno, nik esangotsut lelengo argi-inddarra. Nik lau urte; lehenao umetan ez euen argiik, karburua ero zera, ta eiben depositua etxetik bastante... kilometrua ta baiño gehixua, eta eiben depositto haundi bat. Eta ha segittuen esateben bete zala deposittuoi. Hemen Elorrixon bastante jente ekixenak esan ei etsen ha depositua txixa eitten jun biko zarie ero hori deposittuoi betetako. Baiña zela manantialak onak euezen, segittuen bete zan depositua, itxuria. Eta Anguzarko bat zan zeroi, argi-inddarreko jefioi, Paulino izena euken bat. Ta behien ein eben etxetxo bat, oin be han dau eta han ipiñi eben turbina bat, da handik kable bat gure osabia bizi zan lekura, da etxetik emoten otsan argixai, ipintten eban martxan turbiñioi be. Da ha zan pozan bonbillok ipinitta, argixoi ikusi giñuenien zoratzen danok pozen pozaz. Argixoi han [agertzen] dzzi... suabe-suabe bonbillok ixotu eben eta bueno! Nik lau urte neukazela. Da gero oiñ herrixek sartu zittuen urak, urak herrira bajatu zien eta oin argixa Iberduerokua ero dau emonda Gazetara.

-Goguan daukazu etxera argixa aillegau zan lelengo eguna?

-Eguna, eztaukat fetxaik eta. Lau urte neukazen. Da hori Anguzarkuoi Paulino ha zan jefioi, harek zertu eban dana. Honbre, hoixe akordetan nazena.

-Pozik, ezta?

-Bueno! Zoratzen danok etxian. Harek han kandillatxua eta behin illundutakuen gabien ohera aguro.

-Zenbat bonbilla egoten zien etxian?

-Ba bastante ipiñi eben, habitaziño bakoxtien bonbilla bat, kortan da kamaran be bai, eta gero gure osabiak eitteban gabian hor hamarrak ero inguruen, "media luna" esaten moruen, argixa bajau eitteban, gutxiao gastetiarren ura ero, etxetik, bolante bat euken kuartuen, da handik ipintten eban ba argixoi bajauta jentia erretiretako holako orden. Gau guztien egoten zan argixa baiña gero goxien kendu eitteban.

-Zela kontrolatzen zan, uran pasuakin edo?

-Urak zela goittik behera... Gaur be han eongo die oinddion honek kolauzko tuberixia, [holakoxe] tubuak. Eta depositua bastante haundixa ein eben goixen, ondo. Da han etortzen zan ura, bueno, leku bittatik, ur asko etorten zan.

5.9. Gazta egiteko esku hotza komeni

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Egidazu , Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-033/011
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:18:58. **Bukatu:** 00:21:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Eskuz egiten zuten gazta. Esku hotzekoa behar da gazta ona egiteko. Berari zapaldu eragiten zioten, bera horrelakoa delako. Gari-arkan sartuta kontserbatzen ziren. Ez zen keetzen.

Transkripzioa

--Gero gaztaigiñan.

-Gaztaia eskuz egiten ziñuen?

-Bai, eskuz, eskuz eitten zan orduen. Da gaztaiak, e, oin ba etxako igarten, ze oin makiniakin eitten da eta, frigorifikuak daokozuz-da, gaztaie kuretako eta, bueno. Enfin. Baiñe orduen eskuz ein biher izeten zan, da gaztaia siketu ein biher zana urte guztirako, hodei bat etorten bazan ha sikatzen danian be ba txarra izeten zan. Gero eskua be ona bihoku gaztaia eiteko. Esku berua daukonak gaztaia ona ezin leike etara. Eskua hotza bihe da, persona esku hotzekue bihe da gaztaia ona etarateko. Bai. Eta hori eztakit inportantziaik emoten otsien oin. Baiña lehenau inportantzia haundixe euken horrek. Nik etxien eitten zien gaztaiak, etxerako, ya urte guztirako siketzen zienak neuk eitten nittuen.

-Orduan zeu gaztaigiña izan zara.

-Bai, nire aitta zanak-eta neri zapaldu eraitten osten gaztaia, ze ni esku hotzekua beti izan naz.

-Bai, hori eztakit oin emoten otsien oiñ inportantziaik. Baiña lehenau inportantzia haundixa euken.

-Eta zuen etxeko gaztaiak fama ona eukan edo?

-Orduen ez euen famaik oingo moruen. Oin dauko gaztaiak ba Idiazabalgua eta bestekua ta. Orduen ez euen holakoik.

-Baina ona.

-Baiña gaztaia, gaztaia ona. Gari-arkan sartuta eukiten zan. Garixa garbittuta arketan, da han sartuta egoten zien gaztaiak urte guztirako.

-Zergatik, konserbau eitten dau garixak?

-Konserbau eitten dau garixak.

-Eta kerik emoten zontsen?

-Ez. Bueno, keia... Ezkatzen egoten zien siketzen sarritan, ta ba hartzen eben, baiña hori "aumaua" esaten xakena, oiñ esaten xakena eta holakoik ez euen.

-Salmenta zer moduzkoa eukitzen zeban gaztaiak?

-Gaztaia ta? Ezin neiketzu esan.

-Kanporako.

-Kanpora saldu be asko ez zan eitten orduen, ba ezagunen bati edo, baiña ostien ez zan...

-Etxerako.

-Gero etxien gaztaia faltau barik, ba ogixen moruen jan.

-

5.10. "Ota-karobixa"

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Egidazu , Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-033/025
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:49:32. **Bukatu:** 00:54:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
mugimenduak
- **Laburpena:** "Ota-karobixa" deitzen dio karobi tradizionalari. Egunez otea sartzen zitzaion eta gauetz abarra. Hiru edo lau egun behar ditu erretzeko. Bobeda nola egiten den. Lurrak beharrezkoa du karea. Garia ebakitzen zenean botatzen zen karea, arbia erein aurretik.

Transkripzioa

-Zuk ezautu dozu lehengo karobi zaharrik?

-"Ota-karobixak" esaten dxakena? Bai. Eindra be bai karia. Eindra nao ni ota-karobixa. Lelengo kargetan zan, eitten dxakon bobedia, kargetan zan karobi-zuluoi, eta otia ebaten zan, otia euen orduen leku askotan, ta otia ebaten zan, arluak. Ta egunez otia sartzen dxakon, ta gabez abarra, sorta-abarrak ta egurra.

-Zergatik diferentzia hori?

-Ba gaba deskantsuz pasetako. Otia sartu ta sartu ta sartu ibili biha ziñien, berotu in daitten. Ta bestiak ba aguantia, aguantia.

-Lan gutxiao egiteko gabaz.

-Gabez ba lan gutxiao eitteko.

-Zenbat denpora bihar dau ondo erretzeko?

-Hiru egun. Gau ta egun.

-Bobedia zeñiek eitten zeban zuen kasuan?

-Erreza da eittia. Enaz gogoratzen nok eitten eban. Gure aittitta-zanak edo aitta-zanak edo eztakitt nok itten eban baiña. Kare-atxakin samurra da, ze karobixak asientu bat eukitten dau behian. Hasten zan altzetan eta puxkat kanporatxuau, kanporatxuau, kanporatxuau; betetan, betetan zerrau eitten dozu. Hori harri haundi samarrakin. Eta gero handik gora ba zehiaua kargau. Gaiñian torretu artian. Ta gero karia eitten zanian igartzen dxakon zelan eindra dauen. Hiru egun esan dot baiña lau egun biharko littuke su gutxiaz ibili ezkeño baiña. Botaten dauen keia ta lllamia gora azul-azul-azula botaten dau ia eindra dauenian.

-Diferentia, igarri eitten jako?

-Bai, igarri itten dxako gaiñian azul-azula, brisa. Azul-azula.

-Eta geratzen da bobedia osorik ala hundidu eitten da?

-Ez, ez, osoik. Osoik gelditzen da.

-Eta gero ze eitten da?

-Ba gero etara, goittik. Goittik, goittik, husten, husten, husten.

-Eta haustu noiz?

-Karia haustu soluan ein biha dok.

-Ia hauts bihurtuta geratzen da haura?

-Ez. Ha harrixen dau. Ota-karobixen eta bestien be bai, ha harrixen urteten dau. Eta juen biha dau solora; orduen garixa ebaten zanian botaten dxakon arbixa ereitteko. Eta joan bihozu solora, harrixe eruen bihozu. Apurtzen dozu soluen eta zabaldu.

-Zela apurtzen dozu?

-Ba porrillua esaten dxako, zer bat; mailluketiaz be igual. Apurtu ta zabaldu soluan.

-Errez apurtzen da?

-Errez. Ta gero ha burdiñariaz edo brabanaz edo nahastau eitten dozu lur azpira joan daitten. Ta lurra harrotu eitten dau harek.

-Asko ontzen da lurra kariaz?

-Bai. Oin be lurra karian premiñia badauke. Ortuetan eta. Eta oin hasitte dau jentia puxkat botaten.

-Artua, garixa..., danandako erabiliko zan karia? Laboriandako gehixenbat edo?

-Karia botaten zan garixa ebaten zanian, arbixa ereittek.

-Nundik ekartzen ziñuen harrixa?

-Harrixa bertan etaraten genduen guk. Bertan kanteria.

-Zelan esaten jatzue, "kare-harrixa"?

-Kare-harrixa, bai. "Atxarrixa" esaten dxakona.

5.11. Pinuaren neurketa eta salmenta

- **Hizlaria(k)**: Ardanza Errasti, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-036/006
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:11:00. **Bukatu**: 00:13:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Salerosketa erregateoa ohikoa zen. Garai baten begira ere ere saltzen zen, baina aspaldian neurtu egiten dira. Gerrian eta alturan. 2005 inguruan egin zuen prezio onena pinuak. Beti izan ditu gorabeherak. Aspaldian asko jaitsi da.

Transkripzioa

-Tirabira haundixa egoten zan? Erregateo haundixa?

-Klaro haundixa. Arreglau be ez makiña bat bidar. Eta beste bateana juen be bai.

-Eta kalkuluak zela etaratzen dittu bai jabiak eta bai erosliak, "honek piñudi honek hainbeste jaukak edo".

-Ba neurtu ein bihar.

-Zutik dagon lekuan?

-Zutik dagon lekuan neurtu. Alturia puxkat gora behera ta.

-Ta zenbat neurtu? Zenbat? Ehun piñu badare, zenbatekin eitten da kalkulua?

-Ehun piñu badaukazek ehunak neurtu bixuek uno por uno. Ta alturia batzuei gutxiao ta gehixao ta gero promedixua. Tanto.

-Heuk ezautu dittuken tratuetan, begira egindako traturik bai, ala banan-banan neurtu die.

-Horrek lehenao eitten zittuan, oiñ berrogetamar urte-hirurogei urte eitten zittuan begira tratuak; Baiña oiñ eztok eitten begira tratuik. Oin danak neurtu uno por uno, [...].

-Ze prezio akordatzen jak heuri, aspaldi, e, lelungoko preziuak, kubikua zenbaten?

-Gu salduta gazek zazpirehun pezetan be ta. Año cincuenta y tantosian eta. Millan be bai.
 -Gero?
 -Gero hogeixen be bai ta. Ya aber.
 -Diru gehixen ein daben sasoia zein?
 -Diru gehixen ein daben sasoia? Izengo zan dos mil sinco-seis baten edo hor ein dxuan diru gehixen piñuak.
 -Preziuan bai baiña proporziñuan? Poporziñuan oin dala berrogetamar urte diru gehixao ez?
 -Etxakixat ba nik hori, orduan zenbat proporziñuan. Proporzziñuan orduan gehixao eingo dxuan oin baiño.
 -Noiz hasi zuan asko bajatzen piñua?
 -"Ni idea". Piñuak euki [dxok] gora-behera-gora-behera-gora-behera. Nik etxakixat ba, nik ezautu jittuat hiru-lau bidar gorabeherak eta. Etxakixat ba nik noz.

5.12. Laiaketan ibilitakoa

- **Hizlaria(k)**: Kortazar Agiriano, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Eguen, Inma - Eriz Gongeta, Miriam
- **Erref**: ELO-037/018
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:22:05. **Bukatu**: 00:23:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
 Baserría » Baserriko lanak
- **Laburpena**: Baserriko lanak denak gogorak. Laiaketan ere ibilitakoa da hamabi urtegaz, izotz galantarekin, kuadrillan.

Transkripzioa

-Biher gogorak egingo ziñuzen ba basarrixen?
 -Basarrixen biher gogorra dao betik, ein in biher da basarrixen bihera. Oin ez askorik, baiña lehen? Buenooo!
 -Zer daukazu goguen, holan biher astuna edo, akorduan holan biher eskasa?
 -Laixaketan eta danian eindda nao ni, laixaketan. Zuk ez dakizu zer dan laixaketia. Laixaketan; hartu, zerak hartu ta lurra bueltau. Hamabi urteaz kuadrillan. Eztao. Ixotza galanta-ta [...] kuadrillan. Holantxe, aurrera.

5.13. Elurzuloaren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Azkargorta Berrio, Paulina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ELO-043/002
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:00:35. **Bukatu**: 00:02:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Unamuno, Arianne
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

- **Laburpena:** Neberia zelakoa zen. Elur-bola izugarriak batzen zituen gizon batek "Neberia" izenarekin ezaguna zen txabolan. Eskaera handia egoten zen uda sasoian.

Transkripzioa

- Neberia, neberia izeten zan zulo haundi bat, txabola bat, edur denporan, edur-bolak sartzen zien barruen. Gizon bat e dediketen zan e edurra batzen zeaittik orduen oingo moduen e oingo moduko adelantoik ez zeuen e, zera esan gura dot, frigorifiko ez zera, ez frigorifikoik eta holako adelantoik ez zeuen. Ta udako denporan edurra eitten zittuen ikusgarrixak. Oin e larogei urte ingurua danien nabil esaten, e? Ta gizon bat dediketen zan edur batzen zeaittik udan eukitzen eban eskabide haundixa ba hoteletarako, fondetarako, ta holako e tabernetarako ta, pixkat e fresketako. Ba e estimaziño haundixe eukitten eban. Ta berak e ikusten eban ba, ba zeoze etara leikiela, edurra batu ezker. Ta edur-bolak ikaragarrixak sartzen zittuen txabolan ta han egoten zien negu guztien. Ta gero udie etortzen zanien ta berua ba eskabide haundixa eukitten eban. E edurren eskabidia, ba gauzak hotz hotz hotzien eukitteko, hotza frigorifikoik moduen.

- Bai, ez zauan eta.

- Ez zauan eukitteko. Ba berak e, berak ikusten eban ba merezidu dabela gordetia, ta beste iñoi ez jakon akordetan ta gizon bat zan ta haure gizon hoi edur haundixak eitten zittuenien etortzen zan edurren bila ta edur-bolak ikeragarrixak eitten zittuen. Hiru edo lau gizon ekartzen zittuen berakin, zeaittik hori batek eta bik ezin leikie eiñ, ta hiru edo lau gizon etortzen zien.

- Bonbero.

- Ta izena eukan Bonbero. Bueno, izena berena Juan baiña.

- Juan eta ze apellido zeukan? Badakizu?

- Bonbero ta apellidua ezin akordau.

5.14. Elurzulua nola betetzen zen

- **Hizlaria(k):** Azkargorta Berrio, Paulina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELO-043/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Elurzulua nola betetzen zen.

Transkripzioa

- Ta kuestiñua da ba bolok eiñ ta Bonberok dirijitzen zittuen, harek esaten otsen zer ein bi [biher] daben. Han han bolok eruaten zittuen baiña indar haundixa biher zan horretarako, e? Ze karretilla baten eruen balittue baiña...

- Ez, bueltaka.

- Holan bueltaka-bueltaka-bueltaka-bueltaka-bueltaka-bueltaka lurretik, lurrien bueltaka-bueltaka-bueltaka ta ikusten giñuzen ta [...]buuum!

Botatzen eben ta han geratzen zien ta ...

- Eskuaz edo pentsetan dot...

- Bai, bai eskuakin.
 - Atia be haundixa zan e?
 - Bai, bai, haundixa zan ta...
 - Ta bolia barruraino faten zan.
 - Hori da. Ta botatzen zittuen barrura bakotxien bat, bakotxien bat, bakotxien bat, ta gero ikusten ebenien “ bueno e, ixa bete da” baiña gutxienez dozena bat baiño gehixau bolak e? Ikeragarrixak zien, e? Oin momentu hontan ez naiz ondo gogoratzen, ezta? Baiña gutxienez dozena bat baiño gehixau bai zeaittik edurzulua, edurzulua zan bastante haundixa.

5.15. Uda sasoian elur-eskaera handia

- **Hizlaria(k):** Azkargorta Berrio, Paulina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELO-043/007
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:12:41. **Bukatu:** 00:14:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Elurzuloa betetzearen lanak. Uda sasoian elur-eskaera handia zegoen tabernetarako...

Transkripzioa

- Bonbero horrek e, ekartzen zittuen berak e esan dozu lau-bost gizon?
 - Bai lau edo bost gizon ekartzen zittuen...
 - Eta horrek e zer zeuzkan e jornalian edo eukiko zittuan?
 - Bai e jornala pagetan otsen. Ba esaten otsen ba “emongo dotsuet jornala”. Orduen jornal txikixek izeten zien gero, e?
 - Ez za akordauko zenbat, ezta?
 - Zenbat? Orduen e egun guztirako bost bost pezeta asko izengo zan. E egunien egunera hori bihar hori eitten eben denporan egunien, eguna paseten eben e igual, ezta? Zeaittik bola asko ein biher izeten zan. Ta ba bueno bueno eguna total ez baiña nahastu eitten eben behintzat eguna, ta harek esango otsen bueno ba “etorten bazaie ta hoixe eitten bou [badou], ba emongo dotsuet honenbesteko bat”. Gehixen be bost pezeta emongo otsen, gehixau ez, zeaittik orduen ez zan irebazten diruik. Fabriketan bez ta iñun bez, danik eta ofizialik onena izenda be, danik eta ofizialik onena, esate baterako, arotzan, nahi argiñan, nahi... Honen aitteitta... Esatia gure izen dot. Ba gero ba Bonberok itxuria ondo urteten eban, udia, udako denporia allegeten zanian ta beruek haundixak ta jentiek gure izeten eban tabernetarako ta ba, ardaua freskua eukittek, edo bakizu, freskuria. Oin e zera egoten da, oin zelan, oin e beste modu baten arregleten die, ezta?
 - Bai, frigorifikuek doaz, ta neberak.
 - Frigorifikuak, neberak, frigorifikuak. Geuk be hamen daukou esate baterako hemen gauzak fresko-fresko edarki eukitten dittu. Hamen, frigorifikua ba hemen gauzak ondo konserbeten zatzuz. Neberia ta horrek danok baiña, badaukou, baiña, orduen ez zeuen holako adelantoik.
 - Ez ba. Paulina, eta ha gaiñeko txaboliak e ze ze harri zeaukan, harrizkua zan?
 - Bai, harrixa, harrixa.

- Ha be harrixa zan.
- Bai bai harrixe, ta gero teillia gaiñien.
- Gero teillia.

6. Euskara

6.1. Elorriion diferentzia txikiak euskarak

- **Hizlaria(k)**: Arietaleanizbeaskoa Altzerreka, Felisa; Arietaleanizbeaskoa Altzerreka, Frantziska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-017/041
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 01:01:48. **Bukatu**: 01:03:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Euskarak baditu diferentzia txikiak auzo batetik bestera. Eta kaletik auzoetara. "-dxo", auzoetan, "-xo" kalean. Auzoetan antzera, baina Berrixo eta Apatako euskarari aldea sumatzen diote.

Transkripzioa

-Elorrixon zuen ustez nun eitten da euskeraik onena? Edo danak antzerakuak die?

-Fra-Ez, "distintos hay, hay distintos".

-Fel-Berrixon be diferente itten da.

-Fra-Bai. "Muy distinto".

-Hemendik Berrixora...

-Fra-"Hay diferencia".

-Zeozter, berbaren bat edo...

-Fra-"No sé qué pero algo sí".

-Fel-Bai. Dauko ba... "Elorrixokuak" edo beste...

-Fra-Elorrixokuak kalekuan dittun horrek eitten dabena "xua" ta hori. Guk "Elorridxokuak", "Elorrixokuak" barik, eta kalekuak"Elorrixokuak".

-Fel.Baiña diferentzia dago hamenditxik zerera be...

-Fra-Apatara be zelakua... "Se nota la persona".

-Fel-Hamen Igurixan, Gazetan, hamen Azkarretan...

-Fra-"Esto parecido".

-Eta Miñotan edo Berriozabal edo?

-Berriozabaletan eta "no he notado yo así..."

-Diferentzia haundirik ez.

-Fra-Nik eztot notau.

-Nik gehixen Berrixo aldekuak.

-Jontxo! Ba eztago urrin, e!

-Fel-Berrixokuak.

-Elgeta alderako jokeria dauke?

-Eztakit zer dauken baiña zeozertxo diferentia.

6.2. Belauniko euskaraz egiteagatik

- **Hizlaria(k)**: Lasuen Ugaldea, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin

- **Erref:** ELO-023/028
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:52:19. **Bukatu:** 00:53:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolan ikasi zuen erdaraz. Txirten gainean belauniko zigortzen zituzten euskaraz egiteagatik. "Eskolante" oso ona ei zen. Erdaraz orduan dena.

Transkripzioa

-Nere aittek erderaz ondo ekixen, e, nik paiño hobeto.
 -Zuk zeuk erderaz noiz ikasi ziñuan?
 -Eskolan erakutsi oskuen, belaunbiko ifintten giñuzen txirten ganiien euskeraz eitten bagiñuen.
 -Zigorra? Kastigua?
 -Kastigue izeten zan belaunbiko txirten ganiien. Grabillie, grabillie. Iñ in biher.
 -Orduan egonda zare belaunbiko txirtan gaiñian?
 -Bai, grabillien ganiien egonikue naz ni. Bueno azkena [...], laster ikasi nittuan nik. Eskolantia gogorra nintzen ni. Eskolan... Diputaziño eskolak zien horrek, da bieltzen oskuezen hillien behiñ edo holako liburu txikitxo batzuk ipoiñ moduen. Ipoiñek edo oso zien zerak. Maistriek leidu itten oskuzen harek, eta "onduen eitten dabenak berendako". Euezen danak etara nittun nik. Ta neuken holakoxe pillue, eta atzenien esaotsen, e, "Todo saca Margari, para que vamos a hacer".
 -Osea, zeuk irakurtzen ziñuan onduen?
 -Bai, leitzen ona izan naz ni. Eskribitzen be politte, ondo.
 -Dana erderaz egiten ziñuen?
 -Eskolie erderaz. Euskeraz eitten giñuen geuk, baiña erderaz eskolia ikasi giñuen guk.
 -... noiz, sasoi hortan?
 -Ba gaztieki giñen; nik hamaika urte [orduko] eskolia itxi neban. Da gero batek, hemen maixue zan, hemen auzoko batek ba bakaziño denporan eskolie emoten eban. Hantxen [ibilli] nintzen, hillebete terdi edo eztakit zer ein neban. Eta hantxe ikesi neban hasta regla de interés tresera arte, baiña lau zerak bai baiña bestiek ez.

6.3. Etxera etortzen laga ez erdaraz ez baldartzeagatik

- **Hizlaria(k):** Eguren Amiano, Genara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-035/012
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:15:22. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Zortzi hilabetez ez zioten etxera etortzen utzi kriada zegoen lekutik, Arenetatik, "porque me iba a entorpecer con el castellano". Lankide batek ugazabei sartutako gezurtxo.

Transkripzioa

-Erderaz be orduan ikasiko ziñuan, ezta?

-Zu, ni zortzi hillebetien ez osten itxi baserrira etorten "porque me iba a entorpecer con el castellano". Pentsa, e, pentsa. Ni telefonoko neukan kargua, telefonokua, atia eta mahixa. Eta ni telefonotik berbetan eta eurak entzuten egoten zien "a ver cómo hablaba el castellano". "No, no, usted no puede ir al caserío porque allí se va a entorpecer".

-Eta gaizki esan ezkeru zeozer?

-Ba-ba-ba-ba! Egon zien hamen bi señoritak, egun baten etorri zien " a ver en qué ambiente vivía". "Qué cosa!". Ze gauzia, e! Esaten otsen, nigaz egon zan donzella bat, zan Santardergua. Berriotxo, bakizu, jaixak ixeten die Elorrixon. Etorri gintzazen eta esan otsen:"María, usted mire a ver en qué ambiente vive esta chica". Nigaitik, e. Aber. Ta gero jun zani, esaten otsen: "María, qué tal vive esa chica allí?". "Uuuu, señorita, yo no sé cómo está sirviendo", hondiño ez dakizu?, "tiene un ganao!, tiene una cantidad de tierra!". "Ai, no le diga usted nada porque sino se nos va a escapar". Bestiak guzurrak, ez dakizu, haundikerixak esaten. "No le diga usted nada porque sino se nos va a escapar".

7. Herria, azpiegitura

7.1. Berriozabaletako iturri famatua

- **Hizlaria(k)**: Arietaleanizbeaskoa Agirrezabal, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-018/022
- **Iraupena**: 0:03:48. **Hasi**: 00:36:02. **Bukatu**: 00:39:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Arropak garbitzeko, ura edateko, denerako erabiltzen zen lehenago iturria. Munarri antzekoak ditu, gainera. Gauean petrolioaz argi egiteko erabiltzen omen ziren. Isabel la Católica ezagutu, Perun diruak egin eta jauregia eta iturria eraiki zuen herriko indianoaren istorioa. (Iturri Inka ere deitzen zaio iturri honi, Peruko inken iturri baten imitazioa ei delako)

Transkripzioa

-Gero hemen iturririx dau famosua.

-Elorrixon?

-Elorrixon ez, hementxe auzuen. Ikusi dozu?

-Ez.

-Ikusi biozu gero. Ikusikozu iturririx sekula ikusi eztozun morukua.

-Zer dauka ba?

-Ura ona dau, baiña gero bihera eindda halantxek. Erropak garbitzeko lehenau auzo guztiko [...] danak hantxe. Ta erropak garbitzeko be danak hantxe, andra danak haraxe juten zien erropak garbitzen. Ura erateko be haraxe, ganauentako be haraxe, eta iturririx elegantia. Gero daukoz munarrixek alde bixetan, harrizkuak; da munarrixek, eta munarrixek dauke erdixen zulo txo bat, da ha iñok eztaki zetako etorten dien han eta zetako dien be eztaki iñok ha munarrix. Nik entzunda daukat gure uezabai, Bengoa, abogaua zan da, harek esate eban petrolixua ero holakua bota da

gabien argi eitteko ha zulotxua. Zera bizi zan ba hemengo zeroi, fundadorioi ero zeroi. Hemen esateban harek, hemen etxien jaixo ei zan hor Herreritonian ero ba mutillen bat listo samarra zana. Historixioi itturrixana. Eta bialdu eben Madrillera estudixetan mutikuoi, eta estudixetan dauela mutikuoi, mutilla ixa eindda, mutikuoi, geixotu, txartu, hil bihar [...], elixakuek eruan otsazen, "viáticos". Han suertau zala "la reina Isabel la Católica". Joño, gaixuoi hantxe elixakuek-eta eruenda; berak be bisitta bat ein bihar otsala gaixuorri ero. Eta halantxe juen zan, nungua zan-da, ba Bixkaikua, famelixa pobrekua zala. Ba osatutakuan eitteko bisitta bat berai. Ta halantxe mutilla osatu eiñ ei zan. Ein otsan bisittia erregiñiorri eta esan i otsan erregiñiorrek estudixetako kolokauko dabela ta. Da halantxek estudixau ei eban, da orduko abogau karrera ero orduan akabau. Da Perura kolokauta bialdu eben. [...] Baiña ha be beren parajera etorri atzera, bertara etorri. Ta handik hona etorri eta in zittuen hori itturrixoi, hori etxioi palazixuoi, da hori ermittioi eta galtzadak hemetik Elorrixora ta San Austiñera, kamiñua, orduko zerak, galtzadak, aldamenien losak, erdixen gantxue ta galtzadak, elegantiek ein zittuen. Gero haren konserbaziñorako, galtzaden konserbaziñorako, itxi eban etxe bat hortxe, oiñ konejuen granjia dau han, eta ni etxia ezaututa nau han, etxia ondo ganauekin eta danekin. Eta harek emuten zittuen errentia aiuntamientuak itxi otsan haren kargu hartzeko, haren errentiaz galtzadak arregletako. Galtzadak elegantiek hemetik Elorrixora eta San Agustiñera gero hortik. -Bixetara.

-Bai, bixetara. Harexek arregletako. Hor hortikaldekuek -orduen San Agustiñera elizara danak etorten zien-da- horrek eurok arreglau eitten zittuen, eta guk ez, guk bapez. Haren arregliaz aiuntamentuek euken ha kargua itxitta ha arregletako. Eta honaxe etorten zan horretxek Herrerito lehen esan doten horrek, horrek zien argiñek-eta orduen. Horretxek arregletan zittuen kaltzadak. Lau pezeta euken jornala egunien. Eta idixekin harritten eittie kanteratik sei pezeta, ta ni mutikua etorten nintzen, ta aguazilla etorten zan horraxa abixetan. Ta galtzadak egoten zien elegantiek.

7.2. Felisa auzolanera alarguna zelako

- **Hizlaria(k)**: Eguen Belar, Martxel; Errasti Onagoitia, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-021/014
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:20:20. **Bukatu**: 00:21:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Bidegintza zenean egiten zen auzolana. Udalak zahagi bat ardo ematen zuen. Gizonen lana zen, baina Felisak egin behar izaten zuen alarguna zelako.

Transkripzioa

-Auzolanik eitten zan zuenetan?

-M-Ez, e, holantxe bidegiñen itten zaniñen, bai. Basora urtien birritan eta hona galtzaria arregletan hau kamiñuau egiñ aurretik. Ta aiuntamentuek emuten eben garrafoe bat ardu. Orduentxe eraten eben hamengo jentiek ardaue gure aiña. Bidegintza egunian.

-Lasuenetan, Lasuenetik ekartzen zifuen? Lasuenien, San Juen kalien, ha bodegatxua, Lasuenenien.
-Egun ona izango zan haura, ardauekin-eta.
-Bai. Ardaue-edo baltza behintzet. Ardaue... (Barreak).
-Andrak-eta auzolanik-eta ez, ezta?
-Nik bai, ni jueten nintzen, neu joan [bihoten] gurien.
-Alarguna, alargunduta zeunden?
-Ni alargunduta neuen berrogei urte, berrogeta batekin, ez, berrogei. Baiña hiru umegaz. Kalien, kalien, etxie erre xakun. Orduentxe etxie erre xakun, handik sei hillebetera hil zan gizona.
-Etxia erre jatzuen, basarrixa erre jatzuen?
-Bai, Berrixon.

8. Familia eta harremanak

8.1. Errondak eta ezteguak

- **Hizlaria(k):** Arietaleanizbeaskoa Agirrezabal, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-018/030
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:49:36. **Bukatu:** 00:51:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Ezkontza egunean, gauez, erronda egiten zen. Soinujolea, jan-edana eta dantza, baserrian bertan. Eztegu batzuetan olio-azak eta garbantzuia izan zen menua. Bera ezkondu zenerako gauzak "aurreratuta" zeuden. Tabernan egin zuen eztegu-jatordua.

Transkripzioa

-Errondarik-eta ezagutu dozu?
-Ezkontzen [zietzenien] eta bai. Ezkontzen [zietzenien] gabien lelengo ba izeten zien, bezkeixek eukitten zittuen horrek eurok inbitauok eta. Ta gero gabien ba errondara, hara juenda. Han gabien ba ardaue-ta emuten ebenda; orduen ardaue-ta be gauza haundixa ixeten zien-da. Ogi edo [...] haintxe emun-da, haintxe errondan. Haxe ixeten zan orduko errondioi.
-Musikaik egoten zan?
-Bai, bai, musikia egoten zan. Soifujollie enjeneral, soifujollan bat.
-Hori basarrixan bertan?
-Basarrixan, basarrixan, basarrixa ezkonduakuan, basarrixan bertan egoten zan bazkaixoi.
-Ezteguak esaten zontsen?
-Ezteguek, bai, ezteguek, ezteguek.
-Eztegurik akordatzen jatzu, ezteguen bat? Zeuria akordauko jatzu.
-Bai, bi be bai. Hor Leizen bat, eta beste bat Aiztekua, lehengusu-lehengusifak. Ta harekin zela egonda nauen ni ezteguen. Ta ni mutikuoi, ta haintxe. Ta ezteguen ba akordetan naz baten garbantzuak eta azak jan giñuzela.
-Eztie txarrak.
-Bai, orduan esaiezu honei... Bai, ta orduen pozik, joño!, ezteguek eta ezteguek.
-Oilaskon batzuk be hilko zien baiña.
-Bai, gero okelia be egoten zan-da, bai.

-Zeu ezkondu ziñanian zela izan zan?
-Ni ezkondu [nintzanien] ia aurreratua euan, nik tabernan ein naban bezkaixoi, bai, Elorrixon [...] ezkondu nintzanerako. Orduko ya kanbixauta.

8.2. Neska-laguntza, dantza eta apaizak

- **Hizlaria(k):** Aizpurua Murgoitio, Maria; Gallastegi Berriozabal, Bittori
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** ELO-024/018
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:29:42. **Bukatu:** 00:33:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Etxera lagundu eta kito. Elkarri ukitu ere ez. Dena bekatua zen. Abadeek egundoko kontrola zuten. Apaizak erromeria amaiera agintzen zuen plazan.

Transkripzioa

-Neskalaguntzia-ta esaten dabe izaten zala. -Mari-Honbree, bai, bai. Honbre. -Zela izaten zan neskalaguntzioi? -Mari-Ba, etorri... (barreak). Lenago ezebe. Ahí no había nada. Oin die horrek oingo gauzok. -Baiña nada... -Mari-Lagunak, lagunak, lagunak. -Bittori-Lagundu batak bestia, eta bestia bestekaldera, ta agur. -Mari-Eta etxera. Eta punto. -Eskutik helduta? -Mari-Bai..., holan ala?, holan ala? -Ikutu be ez? -Mari-Ezta ikutu bez. -Orduan be izango zien batzuk atrebidutxuauak. -Mari-Horretxeatik esaten dotsut ba kaletarrak hasi zienien, gero beste mutillok hor zien, harek aprobetxauko giñuzela ta, bai, etorri hari! Etorri hari! Ikusikok bueltia zelan daukon. Honbree. -Belarrondokua be errez orduan? -Mari-Haunditxuaua be igual, belarrondokua be igual barik. Buenooo. -Bittori-Dana pekatu zan, abaria eukitten giñuen elixospien zelan dantzan eitten giñuen eta dana. -Mari-Hola joten oskun don Anastasiok (txaloak), barrura! Gu ezkutau. Eta gero hori baiño haundixaua, akordauko haz hi Hijas de Mariena, han goittik behera grada guztiak beheko barreneraiñoko ta, pulpittora juen, eta enon akordetan abadia zein zan. -Bittori-Don Anastasio izango zonan, honbre, ha zonan Hijas de Mariena. San Luis, Hijas de Maria, baiña goizeko zortzitterdittan, e! Elizia dana bete-bete eindda egoten zan goittik behera, medallakin. -Mari-Atzo illuntzixen dantzan plazan ein ebenak barrido konfesetan jueteko, esaten dau. Nik etxakiñat ba, heu be eongo hintzanan igual, beti alkarrekin [ibiltten gintzonazen]. Eta esan notsan: "jun bihon?" "Ez." "Ba neuk pe ez. Berak in baxon pekatu bera konfesau daixela. Guk etxonau bai holakoik eiñ ezer, da konfesau daixela bera. Ta asko buelta eiñ eta barrido konfesonarixora. Zetan? Por aki! -Bittori-Ba penitentzixia hartzen. -Mari-Bai... -Bittori-Eztakitt zenbat errosaixo edo, zenbat pater noster edo zenbat "zulora laster". Besteik ezebez. -Eta abadia begira? -Mari-Pulpittuen. -Dantza denporan, e. -Bittori-Bai, elixospien, elixospien. Mari-Amaitzeko, erresaixua hasi bihar zala barruen eta. Etzan amaitzen erromeixia, eta gu hantxe. Eta hona etorten zanien, ha hona etorten zan ba, eta aittaitta eta amama ba, bueno, tio ta tia, bronkia. Eta behin sartain bat [...] beko atien, oin serrauta dauen atien, sartain bat esegitta, galdaria xauanan esegitta, eta haxiak [...] don

Anastasiuoi sartu, joixon atiak eta halabiarrian etxonan buruan jo abadioi. - Bittori- Galdariak (barreak)- -Eta, klaro, etorten zan eta gure gizonai esaten otsan: "Asentzio, gero Marik babak erreten dotsuenien bronkia bota, zaindu daitzula!" Enotsan kontestau oninddoko gaztetxua nintzelako, gaur ixeten bada, ti-ti!, zuk zeuria ta nik neuria. Hamentxe. Hori neria da eta zuk zeuria. Gaur izan balitzonan, baiña orduan oindi..., bueno! -Bai, gaiñera abadie errespetua, billurra. -Mari-Hamen hamabostian behin etorten zien, tia ohian euela be, hamar hillebete ohian ein xonazen... Baiña don Austin etorten zonan eta don Austin zan un santo. -Bittori- Un santo, ha santo bat zan. -Mari-Beneditino (Benedictine) kopatxua ta mostotxo bi, da, klaro, nik ganauak neukazen, ta, ba, zerak, urten ein biher, ta esan notsan: "Bueno, Don Agustin, ni ganauekana noie solora eta zu be kantsetan zarienien, itxi atia, tiratu atiai ta juen". Akabau ta etorten zien. Baiña don Anastasio, buo!, menudo!

8.3. Gaztetatik dantzan

- **Hizlaria(k)**: Eguen Zabala, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-028/009
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:13:05. **Bukatu**: 00:16:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Hamabi urte ingururekin hasi zen dantzan, herriko plazan. Gizonak ordaindu egin behar izaten zuten eta kalabaza emanez gero haserretu egiten ei ziren. Elorrioko plazan "granbolia" (gramola) egoten zen, eta jaietarako Arrasateko edo Durangoko bandak etortzen ziren.

Transkripzioa

-Akordatzen zara lelengo aldiz erromeixa batera noiz joan ziñan?
-Plazara, granbolie euen da, hortxe ikesi giñuen dantzan. Dantzan bere berezkue neuken nik. Dantzan ikusi hamabi urtegaz edo. Eta gero bestetik auzoko neska ta mutil danok batera bejatzten giñen kalera.
-Asko ziñaten?
-Bai, kuadrillia giñien, kuadrillia giñien, hamabost bat ero iguel. Da bai kalera bejatu alkarraz neska ta mutill da bai ixon be bai.
-Zenbat urtekin esan dozu?
-Hamabi bat urte arte ero.
-Plazan orduan eitten ziñuen dantzan. Sueltua edo agarraua be bai?
-Bai, danera, danera. Baiña sueltue be asko. Da agarraue gero gizonai kobrau eitte(n) otsen plazan, txapatxo bat ipintte(n) otsen, ta kalabazak emoten botsazuz ba ha galdu itte(n e)ben, ha pagau eben-da.
-Ze pagatzen zeben, pieza bakoitzeko ala?
-Ez, baten, baten. Baiña ha pagau dabe ba dantzan eitteko. Ta gero ba neskak pe okerrak eta saso baten kalabazak pe emon itten giñutzezen. Da, bueno, nik behin bakarrik emon notsazen, behin, da bertan garbatu xatan da kitto.
-Hasarretu eitten zien mutilak?
-Hasarretu itten zien. Pagau eben txapie ta, bai. Bueno, ba holan.
-Erromeixa-lekuak kaliaz aparte, nora joaten ziñaten erromeixara?

-Juen kanpora ni enintzen jueten, e.
-Hemen inguruan baiña, auzuetan?
-Auzuetan. Auzuetan eta gero granbolie euen plazan, da herrixen.
-Zeintzuk zien hemen erromeixa onenak auzuetan?
-Eztakitt onenak ero zer. Soiñojollak zien. Plazan ez, plazan granbolie, baiña ostien soiñojollak zien. Da jaixetan, Elorrixoko jaixetan Durangoko musikie da Mundragokue etorte(n) zien, etorten ez, ekarri itten zittuen, da harek joten zittuen piezak markatzen giñuzen, bueno!, bueno!

8.4. Izekoren euskal eztegu ikusgarria

- **Hizlaria(k)**: Eguen Zabala, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-028/015
- **Iraupena**: 0:06:05. **Hasi**: 00:29:18. **Bukatu**: 00:35:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Izeko antzinako erara ezkondu zen. Bi arreo-gurdi eta asto bi, soinujolea... herri guztia pasatu zuten. Zoragarria izan ei zen. Gurdian zihoazen gauza batzuk: gorua, maletak, altzariak... Idiak txilintxoekin.

Transkripzioa

-Eta hori izekuoie ezkondu zaniene, hori izekuoie edo, eruen zittuene arriue, amaz, geugaz bizi zan, ezkondu zaniene burdi bi arriuaz eta asto bi. Eta beste guztiok oiñez, soiñojolliaz, hori Gelatxoaz. Orduan Gelatxoaz. Ta soiñojolliaz. Ta Elorrixo guztie pasau. Eztakitt noz aillegauko giñene bezkeitteko. Elorrixo guztie pasau zan, ta harrezkero eztakitt halako ezteguik zertu zan. Baiña zoragarrixee! Zoragarrixee! Soiñue jo, saltoka, danok sasokuek...

-Arreo bi burdi esan dozu.

-Burdi bi ta asto bi. Asto bi asto-otzaretan ba jeneruaz. Ha zan, harek bai merezi ebalatarietie. Gaurko egunien...

-Ze edade zeunkan zuk orduan?

-Bai nik orduen neukezan hamahiru urte inguru. Tia ezkondu zaniene hamahiru urte inguru neukezan nik. Ze lagun neure gizonaz ba hango anaiek zien. Aiztak anaiekin aiztak. Gaurko egunien neuk be ahaztuta daukot neure familixiaz be. Ta, baiña zoragarrixee...

-Ze baserrittik ze baserrira izan zan ibilaldixa?

-Ba ibilaldixe zan neure etxetik, Telletxetik Gazetara.

-Joanaldi edarra.

-Juenaldixe kristona.

-Eta akorduan daukazu burdixak eta irixak eta zela zoiazene apainduta?

-Bai, bai.

-Kontauko ziñuke puxkat?

-Ba burdixek... Burdixene eztakitt oin zer eruen giñuen. Baiña mueble ta gorue be bai, gorue be bai, gorue be bai burdi baten, aurreko burdixene.

-Bistan?

-Bai, aurreko burdixene gorue be bai bista-bistan. Eta, zer esangotsut nik; eruen zer in zan? Etxata akordatzen, baiña maletak pe bai, erropetan batu beste erropa batzuk eta, ba maletak pe bai. Muebliek pe bai baten batzuk.

-Eta irixak apainduta zoiazan, hola zamarrak edo zeozer?
 -Bai, txilintxuekin. Ta ardi-narrue zuri-zuri-zurixe, horrek irixok eruen eben. Gero besteko bezinuek, bestekaldeko osabie zan neure partetik, harek eruen eban behixek, behi gorrixek. Behi gorrixek eukezan eta behi gorrixek. Narru zuri-zurixaz. Eta harek eztakitt eruen zittuen txiliñak, eztakitt eruen zittuen harek, enaz akordatzen.
 -Gero entzunda dauka entzuteko-edo ardatzari zeozer emoten jakola irrintza edo, zaratia etaratzeko...
 -Soiñujollie giñuken, soiñujollie giñuken guk Gelatxo, ta eztakitt beste zarataik. Baiña ganauek dingi-danga, dingi-danga euren martxan, ta asto bi ba, astuek pe sokatik, muturretik astuek pe. Ta zan zoragarrixel!
 -Eta hari jarraitzen zuen familixia.
 -Atzien, ezteguna giñoiezen danok, danok.
 -Eztegu egunian bertan hori, edo bezperan?
 -Ez, ez, egunien, eztegu egunien. Ta ezkondu eztaitt nun ein zien... Elorrixon ezkonduko zien.
 -Eta hori zan ezkondu gero?
 -Ez, orduentxe egunien; orduentxe egunien. Eta gero bezkaixe be koziñerakin-eta baserrixen. Asike baserrixen oingo zerien barik ba orduen be ahal dana eindda baiña. Hainbeste jente ta baserrixen beheko sue euen bakarrik. Beheko sue.
 -Oillaskon batzuk edo...
 -Oillasko edo gixau edo. Zer jan giñun eztakitt.

8.5. Nobio-kontuak

- **Hizlaria(k)**: Eguren Amiano, Genara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-035/020
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:30:10. **Bukatu**: 00:32:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Erromerietan-eta ezagutzen ziren nobio-gaiak. Harremanak eta ohiturak. Gona luzeak, besoak estalita, prakarik ez. Tabernara joaterik edo zigarroa erretzerik ere ez.

Transkripzioa

-Zure kasua diferentia izango zan baiña, hola nobixua ta noiz topatzen zan, edo zela edo?
 -Bai, bai. Honbre, ba etorten zien porejenplo ba Abadiñotik edo Apatatik edo hortik etorten zien mutilak, ta itten zittuen hori, dantzan edo, ta gero lagundu ta batzutan esaten otsen ba bueno ba "ez etorri gehixao". Baiña bai.
 -Neska-laguntziak eta?
 -Hori da, neska-laguntziak. Baiña nobixo ez, bestelan ba lagundu.
 -Eta nobixo izateko (kasu bakoitzian diferente izango zan baiña), mutillak esango zotsan normalian neskiak.
 - Normalian bai, neskiak ez.
 -Eta lelelengo eguna ze izaten zan, geratzen zien zerbait hartzera, edo erromeixan dantzan...
 -Ez. Erromeixan dantzan, ze lehen hartzera ezer etzan joaten tabernara ta

neskak. Bo... Keba! Neskak zan apuntauta atzamarraz. Ez, ez, ez.
 -Nobixo eindra gero be ez?
 -Umm! Gutxitxuao. Oingo moruen eta bueno-bueno-bueno. Keba-keba! Eta zigarrua erretan, bueno... Ez eraten be ez eta ezebez. Erremeixatik, erremeixa [amaitzen?] zaniel etxera.
 -Zinera?
 -Bueno, ni Arenetan bai. Arenetan bai joaten nitzen, baiña hamen bertan Elorrixora gutxi, gutxi.
 -Zigarrua erretzen zeban baten bat ezagutu dozu?
 -Neskak? Ez. Keba. Ezta, ezta pentsau be ez. Oingo bezela? Boo.
 -Erropiai ta asko begiratuko jakon, ezta, eskotiak eta.
 -Bai, bai, honbre!, hoixe bai. Honaiño tapauta.
 -Gonia be...
 -Ez motza. Belaunetik behera. Eta frakak eta, holakoik be ez sekula. Boo!
 -Baiña izango zien puxka bat atrebidatxuak.
 -Honbre! Batzuk beti dana, beti. Batzuk salidatxuak edo gehixao [jakintzailliak] edo.

9. Lanbideak

9.1. Josten erakusten: puntada

- **Hizlaria(k)**: Irazola Arietaleanizbeaskoa, Dominga
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ELO-026/017
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:32:50. **Bukatu**: 00:35:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Puntada ikasten da lehenengo. Puntada klase ezberdinak. Ikasle batekin gertatutakoa.

Transkripzioa

-Jostun batek zer erakusten dau lelengo eta zer gero, eta zer pauso eruaten da?
 -Enjeneral ba puntadia erakutsi eztakixenai. Ze puntadia ezpadaki ezin leike josi.
 -Ze puntada klase dare?
 -Lelengo ba albpuntadak, sobreilauek eta halako gauzak. Pespuntiek eta holako gauzak. Pespuntiek, albpuntadak, sobreilauek, ojaliek eta holakuek. Lentxo baten batek; eta enekixen, akordetan nintzen ibili zala, baiña gehixao enitzen akordetan, ze. Ta lehentxo baten jokuen ibili nintzen arkalaz, eta esan notsan ze: "zu gurien ibilitte zaoz, ezta, josten?". Ta "bai", esan ostan. Denpora gitxi ein eban, e. Harek pentsau eban igual emongo gotsazela erropak edo, ezta pa. Lelengo puntadia erakutsi biha da, ze puntadie ezpadakizu. Eta esan ostan, e, "zu ibilitta zaoz gurien. Ni akordetan naz gauza bataz", esan notsan. "Bai" esan ostan. Ta gero esan ein notsan ze zan. Zan "Abadetxue" edo esaten otsen, Apatako abadien loibie zan. Ta kamiño ezkiñan euen gure etxia, ta balkoik ez euen orduan, bentanak zien. Ta ni bentanan holantxek makiñan josten eta. Preguntau osten atzekaldien "Zein da? Zein pasetan da?", eta esaten dotsat: "Abadetxuena". Ez!, kontestaziñua berak. Ez! Eta hoixe esan ostanien barreguriak emon ostan. Eta behera jun nitzen, eta barre pillo bat inda

gero jun nitzen atzera. "Maixuen alabia" esan biherrien, "Abadetxuena". Beroi zan Abadetxuena. Eta abadia zan txikixa, ta. Maixuena esan barik Abadetxuena esan (barreak). Hoixe akordetan nitzen etorri zala eta. Berak esan ostan: "Bai, e, gero arbolatik jausi ein nitzen eta enitzen gero juen gehixao. Eta esan neuen, hau, seguramente, pentsauko eban emungo notszela erropak edo. Lelengo puntadie erakutsi bihe da. Puntadie ezpadakizu...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Berriozabaleta auzoa, Elorrio (ELO-001/002)

Leaniz eta Berriozabaleta auzoen inguruko informazioa. Kokapena, baserriak, Santa Katalina eta iturria... Berriozabaleta auzo txikia da, baina ermita eta iturri handia ditu. Iturria indiano batek eraiki zuen, eta Hego Ameriketako figurak ditu, inkenak. Inguruko auzotar guztiek Elorriorako joera izan dute beti, ez horrenbeste Berrizera.

2. Elorrioko hizkera ingurukoaren artean (ELO-001/003)

Elorrioko euskara eta ingurukoak. Berrizkoa oso antzekoa omen da. Durangokoa ezberdinagoa, baina ez horrenbeste. Eta aldaketa handiena, Elgetara eta Arrasatera.

3. Ehizan Gasteizko urtegian (ELO-001/004)

Beti izan da ehiztaria, gehienbat zozo-birigarrotan. Gehienetan Elorrio inguruan egin du ehiza, baina lehenago Urbasa ingurura ere joaten ziren, eta baita Gasteizko urtegi ingurura ere. Orain 25 urte ehiza egitea libre zegoen urtegian bertan. Ehiza gutxi egiten zuten, baina gustura jarduten zuten hegaztiak ikusten: hegaberak, antzarrak, istingorak, ahateak... Legutiano inguru horretan hotz handia egiten zuen, eta Urbasara joaten hasi ziren. Han ere hegazti asko zegoen, nahiz eurek zozo-birigarrotan egiten zuten.

4. "Keixapean", gereizondoetan ehizan (ELO-001/009)

"Keixapean" (gereizondo inguruetan) ere aritu izan da, baina ez zaio gustatzen. Goiz izaten da (ekainean), eta oraindik kumatzen ari direnez zozo-birigarroak, Lorenzori ez zaio gustatzen, kumaldiak galtzen direlako. Pikupean edo makazpean ere egin izan du inoiz, baina gutxi.

5. Belea eta bele nagusia (ELO-001/011)

Beleak: bele beltza eta bele handia (erroia). Biak ezagutu izan ditu Elorrio inguruan.

6. Saiak, gabiraiak eta zapelaitzak (ELO-001/013)

Saiak, gabilloiak (gabiraiak), eta saaparduak (zapelaitzak).

7. Galeperrak ere ikusten dira Elorrion (ELO-001/015)

Eperrik ez du ezagutu Elorrion, baina pospolina bai, galeperrak. Berriozabalgo ermita ondoan ere ikusi zituen ama eta zazpi kume.

8. Itsasoko hegaztiak: hegaberak, txurlitak... (ELO-001/017)

Frankolinak, hegabera eta txurlita (kulixkak). Lehenago "txurlita nausixa" ere agertzen zen, moko oker handi bat.

9. 1924ko maiatzean Gazeta auzoan jaioa (ELO-004/001)

1924ko maiatzaren 30an jaio zen, Elorrioko Gazeta auzoko Gerbilla baserrian.

10. Elorrioko "Escuelas vascas" (ELO-004/002)

Eskolara zortzi urterekin hasi zen Elorrioko "Escuelas Vascas" delakoetan; dena euskaraz ikasten zuten. Baserrian lan asko zegoenean ez ziren joaten. 10 urterekin egin zuen lehenengo jaunartzea, prestatzen hasita. "Escuelas Vascas"eko maistra Antoni deitzen zen eta maisua Federiko. Behin bazkaldu barik zigortu zituen maisuak barrabaskeria batengatik; orduan gertatutakoa kontatzen du. 1936an frontea Elorriora etorri arte ibili zen eskolan.

11. Milizianoak etxean (ELO-004/004)

Frontea etorri zenean eskolak zarratu egin ziren. Baserrian ondo zeudela dio Luisek. Milizianoak baserrira joaten ziren hamabostetik behin-edo, jan bila. Haietariko bat Hondarribiko Sabino zen. Bere amak artoa, ogia... ematen zien tabako truke, bere aitak tabakoa erretzen baitzuen.

12. Gazetatik gerra denboran ikusitakoak (ELO-004/006)

Elorriora Besaidetik sartu ziren, beraiek etxetik ikusten zituzten. Bere bi anaia Elgetan egon ziren. Intxorta ostean ere egon ziren. Gazetatik ikusten zuten guztia kontatzen du zehaztasunez.

13. Moroak auzora sartu zirenekoa (ELO-004/007)

Etxean ez zuten tiroketarik-eta izan. Auzora moroak sartu ziren, baina haien ofiziala, kapitaina, espainiarra zen. Gazetan ardiak harrapatu zituzten, eta ardi mordoa Elgetara eraman. Izugarriak egin zituztela dio.

14. Behiak, idi-parea eta ardiak baserrian (ELO-004/008)

Bost behi eta idi-parea izaten zituzten baserrian. Anaia karreterotzan ibiltzen zen, egurra basotik ateratzen. Ikatzik-eta ez zuten egiten. 110 bat ardi inguru izaten zuten. Urtero 20 bat saltzen zituzten. Bildotsak irendu egiten zituzten, aharitxoak, hurrengo neguan jateko. Haragia gozoagoa geratzen ei da. Soldadu joan zenean saldu zuten artaldea.

15. Baserrian edozenbat lan (ELO-004/009)

Lehen lan asko zen baserria: garia, artoa, belar-ondoa, udazkenean iratarra basora... Lur sail handiak lantzen ziren. Zortzi anai-arreba ziren. Aita etxekoa zuen, Gerbillakoa, eta ama Aramaiokoa, Arragabehekkoa.

16. 14 urterekin morroi (ELO-004/011)

14 urterekin kria (morroi) joan zen. Ordura arte ez zekien baserriko lanez gauza handirik, ardiekin ibiltzen zelako beti. Baina morroi egon zen etxean

laster ikasi zuen, berari tokatzen baitzitzaion lanik gehien. Han ikasi zuen behiak batzen, segan eta abar.

17. Hiru anaia gudarietan (ELO-004/012)

Hiru anaia gudarietan izan zituen. Horietako bat hortik zehar zazpi urte egin eta gero itzuli zen. Burgosen egon ei zen soldadu.

18. Soldadutzako "nobatada" (ELO-004/013)

45ean joan zen soldadutzara. Zazpi urte eta gehiago zeramaten soldaduak ba ei ziren kuartelean. Ofizialek ere beldurra omen zieten haiei. Soldadutzara heldu eta bigarren egunean egin zieten "nobatada" kontatzen du.

19. Gerran galdutako koinatua ezustean agertu (ELO-004/014)

Koinataren etxera joan zen morroi 14 urterekin, Gazetako Matsorriaga baserrira. Hango seme bat gerran galdu zen, inork ez zuen haren berririk. Eta hara non, Luis idiekin Elorriora jaitsi zen batean, mutil hori agertzen den. Inori ezer ez esateko eskatu zion eta sekretua gorde behar izan zuen.

20. Arto ereiten auzolanean (ELO-004/015)

Sasoi hartan baserritarrek asko laguntzen zioten elkarri. Hamaika hilabete egin zituen morroi, eta birritan tokatu zitzaion artoa sartzea. Lehenengo urtean euria eta euria egiten ei zuen eta San Antonio eguna heldu eta artean sartzeke. Egun batez, auzoko sei idi-pare etorri eta berehala sartu zuten. Hango nagusiak esaten ei zuen sekula ez zuela halako artorik hartu.

21. Soldadutzan zegoen bitartean aita eta ama hil (ELO-004/016)

Kerejeta lantegian 15 urterekin hasi. Bi urte egin zituen. Handik Siba-ra pasatu zen. Soldadutzaren ondoren ere Sibara itzuli zen. 29 hilabete eta lau egun soldadu. Bitartean aita eta ama hil. Aitak zeharo galdu zuen burua azkenerako. Ama, hotzak harrapatuta gaizkitu eta hil ei zen.

22. Txulokua eta Gerbilla baserriak (ELO-004/017)

Elgetako Txulokua baserrira ezkondu zen soldadutza ostean. Kortasakon da berez baserriaren izena. Txulo esaten diete baserri horretakoei. Bera ere 'Gerbilla' (jaiotetxearen izena) ezizenez ezagutzen du mundu guztiak.

23. Elorrioko Siba lantegitik Elgetako Zabalanera (ELO-004/018)

Hamar urte bizi izan zen Txulokoa baserrian. Baina herritik urrun dago, eta Elorriora lanera joateko deseroso. Gainera, koinata hil zitzaion, susto baten ondorioz, dirudienez. Andrearen ama ere ez zen ezertarako gauza. Horregatik, Elgetan Zabala Anaian lantegian eskatu zuen lana.

24. Elgetako Zabala lantegian jubilatuta arte (ELO-004/020)

Jubilatu arte Zabala Hermanos fabrikari ibili zen. Eskopetagintzan, makinetan. Sekula ez zuten huelgarik egin.

25. Balak euren ingurura 1936ko urriaren 4an (ELO-004/022)

Gogoan du 1936ko urriaren 4an tirotea izan zela Intxorta aldean, eta balak sartzen zirela eurak (mutikoak) Gazetan jolasean zebiltzan inguruan. "Nazionalak" ia Intxortaraino heldu ziren, nonbait, baina gero atzera egin behar izan zuten. Soldadu-talde bat igaro zen beren aurretik, tartean emakume bat.

26. Gazetako bi errotak prezintatuta (ELO-004/023)

Gazetan bi errota zeuden, baina biak prezintatuta egon ziren gerra denboran. Durangora eraman behar izaten zuten garia ehotzera; "moturia" kobratzen zieten, laka, hainbeste kiloko hainbeste gari, ehotzeagatik.

27. Uberara gauzez errotara (ELO-004/025)

Uberara joaten ziren gauzez hiru mutiko beren astoekin errotara. Eurek ez zuten udaletxean garia entregatu beharrik izan. Txerria hiltzea ere debekatuta egon zen sasoi baten, baina hiltzen zuten.

28. Baba (indaba), eguneroko bazkaria (ELO-004/027)

Eguerdian baba jaten zen ia egunero, urdai zati batekin edo. Eta afaltzeko porru-patatak. Gazura beroa zopekin ere gozoa izaten ei zen.

29. Hiru anai Elgetan morroi (ELO-004/028)

Sasoi hartan lan asko izaten zen baserrian, baina nork egina ere egoten zen. Hiru anai morroi egon ziren Elgetako baserri ezberdinetan, nahiz eta ez batera. Zein lekutan azaltzen du. Anai batek, urtebete egin ondoren, planto egin zuen.

30. Argindarra umetatik ezagutu du (ELO-004/029)

Auzoan (Gazetan) bazen zentrala, eta umetatik ezagutu du argia. Orduan ez zegoen etxetan aparatu elektrikorik, eta argia ondo heltzen zen. Ura ere bazuten. Goialdean ur-saltoa eta makinetea zeuden, beherago errota bat, eta beherago beste bat. Gero Elorriok hartu zituen urak eta Iberdueroko argindarra ipini zen etxeetan.

31. 1941-42 inguruan sartu zuten etxean ura (ELO-004/030)

1941-42 inguruan sartu zuten etxean ura. Haize handiak eta uholdeak gertatu ziren urte haietan Elorrio aldean. Gogoan du ia haizeak eraman zuela behin asto eta guzti. Gerbillan (bere baserria) haizeak haitz luzeak ipurditik atera zituen.

32. Baserri askotako ukuiluak etxebizitza bihurtu dira (ELO-004/032)

Gazetan 24 etxebizitza zeuden. Aspaldian txalet modukoak dezente egin dira eta familia gehiago izango da orain. Baserretik inor gutxi bizi da. Baserri askotako ukuiluetan etxebizitzak egin dira eta semea edo alaba bizi da. Bera morroi egondako baserria oso eskasa zen orduan baina obrak egin zituzten eta orain dotore dago. Ogia egitera dedikatzen dira.

33. Elgetak aldaketa handia azken 50 urtean (ELO-004/034)

Asko aldatu da Elgeta bera etorri zenetik. Kalez lautik bat ere ez zen orduan. Baina baserriak jendez eta aberez beteta zeuden. Orain ez dago ia abererik baserrietan, ardi banaka batzuk izan ezik. Gazteak ondo bizi ei dira orain.

34. Baserritik kalera bizitzera (ELO-004/035)

Hamar urte Txulokoa baserrian egin ondoren jaitsi ziren Elgetako kalera bizitzera. Elorrion saiatu zen lehendabizi etxea bilatzen, baina ezin. Azkenean Elgetan eskuratu zuen pisua, eta pozik.

35. Familiaren nondik norakoak (ELO-015/002)

Bolungarai, baserriaren izena. Aita bertakoa, ama Lekeriketakoa. Errenteroak ziren.

36. Eskolara denbora gutxi (ELO-015/003)

Herriko maistra partikular batekin ibili zen bolada bat dotrina-eta ikasten. Herriko eskolara hilabete bat bakarrik joan zen. Eguraldi ona zenean baserriko lanak egiten geratzen ziren.

37. Umetako jolasak: txankurrika, txirikillan.. (ELO-015/004)

Txankurrika, txirikillan, txitoka... ibiltzen ziren. Jostailurik ez zuten ezagutu.

38. Boletan bai, igerian ez (ELO-015/005)

Aitak bolalekua egin zuen etxe ondoan eta inguruko mutilak etortzen ziren boletara. Berak ere egin izan zuen. Presa bat zegoen etxetik hurbil, baina neskek orduan ez zuten igeri egiten. Nebak, berriz, oso ondo ikasi zuen.

39. Kofradixak: Gazetako jaiak (ELO-015/007)

Bolungaraiko "titulua" kanpora ezkondu zen anaiak eraman zuen, eta bera ezin joan Kofradiako bazkarira. Txahal bi hiltzen ziren. Gauean afaria, baina neska barik. Hurrengo egunean Kofradiako bilera egiten zen eta karguak berritzen ziren.

40. Txahalaren partiketa (ELO-015/008)

Baserri bakoitzari "puesta" bana ipintzen zitzaion: haragi lote bat. Ondoren bazkaria, diputatu eta "kofradak". Bezperan egiten ziren odolosteak.

41. Gerra hasiera (ELO-015/009)

Gerra hasi zenean, goialdeko baserrietakoak beheko baserrietara etorri ziren bizitzen. Inguruko neska-mutikoak elkartu eta olgetan ibiltzen ziren.

42. Tropen mugimenduak (ELO-015/010)

Soldaduak janaria erostera etortzen ziren. Zenbait baserrian "labasua" (ogia) ere egiten zen tropentzat.

43. Bederatzi bonba bota erretiradan zihoazen abioiak (ELO-015/012)

Antiaereoak zeuden Berrion. Bonbak eta tiroak etxe inguruan. Egun batean, abioiak atzera egiten ari zirela, bederatzi bonba bota zituzten batean eta bestean.

44. Sor Mikaela, mirariak egiten zituen moja (ELO-015/013)

Elorrio bonbardatu zuten eta euren ezagun bat hil. Sor Mikaelak sendakuntza harrigarriak egiten zituen belar-enplastoen bidez.

45. Bergaran kria da gerra irten zenean (ELO-015/015)

Maria Jesus kria da Bergaran gerra irten zenean. Elorriora etorri zen zaintzen zituen bi umeak hartuta. Bat oso bihurria. Frontea Bergara heldu zen bezperan "entregatu" zituen umeok.

46. Iheslariak babes eske (ELO-015/016)

Ihesi zetorren Bergarako gizon-talde bat hartu zuten etxean. Bosniako gerra gogorarazi izan dio Juanitari orduan ikusitako iheslari andanak.

47. Iheslariak etxeko ganbaran (ELO-015/018)

Hamar gizon hartu zituzten etxeko ganbaran, eta beste hamar beste baserri batera joan ziren. Eurenean beti izaten zen zer jana. Gero uste du "Batall&ocute;n Saseta"n sartu zirela.

48. Karea nola egiten den (ELO-015/020)

Hiru baserriren artean egin zuten azkenekoz karea. Zubia ere karobi-bobedaren teknikaz egin zuen aitak. Karegintzaren prozesua kontatzen du. Su bizia behar da.

49. Karobiaren bobeda (ELO-015/022)

Aita eta aitaita teknikoak ziren bobedagintzan. Zubia ere bobedaren teknikaz egin zuten.

50. Erromeriak (ELO-015/024)

Juanita gazte-gaztetatik Asentziora. Urte batean Arratera 24 lagun joan ziren oinez Gazetatik. Urkiolara aitarekin Atxartetik gora.

51. Bakailoaren saltsa prestatzen (ELO-015/028)

Bakailao ona behar da. Eta olio, kipula gorria eta piperra. Saltsaren osagaiak eta prestakuntza.

52. Bakailoa kazuelan egiten (ELO-015/029)

Bakailoaren prestakuntza kazuelan. Xehetasunak. Eragin-eragin gelatina irten dakion.

53. Kaleko neskak txarto euskaraz (ELO-015/031)

Eurek beti euskaraz egin dute. Kaleko neskek gutxi eta txarto egiten zuten euskaraz. Aurretik erdaraz egiten zutenak, gero euskarara etorri ziren politika zela eta. Baina lehenago eurak "aldeanas boronas" eta besteak "castellanas buenas".

54. Gorpua "zordanbidetik" eramaten zen (ELO-015/032)

Kalera gutxi joaten ziren. Eskolara gutxi. Elizara mezetara-eta bai. Gazetan ez zen mezarik. "Zordanbidetik" eramaten zen gorpua kanposantura. Apatako (Apatamonasterio) adibidea.

55. Gazetan euskararik onena (ELO-015/035)

Gazetan euskararik onena, Maria Jesusen ustez. Euskaraz asko eta garbi. Doinua ere onena.

56. Abrigo berriaren istorioa (ELO-015/039)

Hiru ahizpei abrigo berriak josi zizkieten jaietarako. Osabak erroskillak erosi zizkion Juanitari; etxera zetorrela, ordea, estartara jausi zen goiko bidetik, eta abrigoa eta erroskillak lokatzez bete.

57. Auzoaren toponimia (ELO-015/040)

Auzoak bi alderdi zituen: "Aldabixa" eta "Barrandeixa", eta eurak bizi diren tokia, ostera, izen bakoa da. Igurixa beste auzo bat da, baina kofradiakide dira baserri asko.

58. Ikastolara (ELO-016/002)

Ikastolan ibili zen gerra aurrean. Arreba zen andereñoa. 150 bat ume ziren, herriko ume gehienak. Katona euskaraz ikasten zuten. Lurrean eseri eta dotrina ikasten jarduten zuten zarata baten. 8 urte handiagoak ere baziren eskolan.

59. Hegazkinak Elorrio bonbardatzen (ELO-016/005)

Lehenengo bonba plazatik 100 metrora jausi zen. Geroago, egun batean bi bonbardaketa egon ziren: bata goizean eta bestea arratsaldean. Hainbat hildako izan zen. Fonda la Paz txikituta geratu zen.

60. Algortara, gerrari ihesi (ELO-016/006)

Arreba bat Nafarroan zegoen neskame; eta, gerra irten zenean, etxera bueltatu zen. Iñaki, amarekin eta neba-arrebekin, Algortara joan zen izekoren etxera. Arreba eta aita geratu ziren etxea zaintzen.

61. Nazionalak Algortan (ELO-016/008)

Formatuta sartu ziren frankistak Algortan. Tiroketa Ibaiaren alde bietatik. Itsasontzira igotzeko esan zioten, baina ez zuen nahi izan. Bestela, agian, Errusian amaituko ei zuen.

62. Algortatik Elorriora oinez (ELO-016/009)

Idiek tiratutako gurdian ipini gauzak, eta lehen etapa Sopelaraino. Bigarrena Morgaraino. Hurrengo egunean, gauerako etxera. Elorrio konpontzen hasita zeuden. Ez zen asko apurtu. Elgeta gehiago.

63. Erdara indartu gerraostean (ELO-016/011)

Dotrina erdaraz ikasi behar izan zuen hamar urterekin. Batzuek gustura egiten zuten erdaraz, horrela gehiago zirelakoan. Euskaldunak euskaraz egiten jarraitu zuten baina giroa nahastu egin zen.

64. Senide ugari kartzelan (ELO-016/012)

Arreba, osaba eta bi koinatu kartzelan egon ziren gerraostean.

65. Funcorreko ordezkari Caja Laboralean (ELO-016/014)

90 bat lagun ziren hasieran Funcor kooperatiban. 5 ordezkari joaten ziren bileretara, beti lan orduetatik kanpo. Fundizioa lan gogorra da baina bera ondo defenditzen zen.

66. Produzio urriagatik itxi zen (ELO-016/015)

Hasieran ondo joan arren, gauzak aldrebestu eta itxi egin zen lantegia. Gastu fijo handiak eta produkzio txikia zuelako, bere ustez.

67. Euzkadiko dirua: "diru zurixa" (ELO-016/017)

Ba omen zeuden zilarrezko diruak gorde zituztenak. Euzkadiko diruari "diru zurixa" esaten omen zitzaion, ez zuelako balio. Gerra denboran, 700 pezeta pagatu zituen aitak behi batengatik.

68. Azpeitian ikusi zuen lehen pilota txapelketa (ELO-016/020)

Gipuzkoa Bizkaiaren aurka, Bizkaiak irabazi. 12 urte zituen. Arrebarekin joan zen. Kortabitarte, bere denboran egon den atzelari onena. Gogoan ditu partidu hartako jokaldiak. Publikoa ere beroagoa zen.

69. Hilario Azkarateren hasierak (ELO-016/022)

Hilario Azkarate, gero txapeldun handia izango zena, Bilboko Deportivo frontoira joan ohi zen gaztetan jokatzera. Pilotari ona izan zen. Garzia Ariñoren aurka Eibarren jokatuako partidu bateko anekdota kontatzen du.

70. Azkarate eta Atanilloren arteko finala (ELO-016/024)

Beretzat inportanteena, Atanillori irabazi zion finala. Elorriotarrek diru asko irabazi zuten apustueta azkoitiarren kontura.

71. Joxe Agirre eta Azpillaga, gehien ibiltzen zirenak (ELO-016/027)

Joxe Agirre eta Azpillaga ibiltzen ziren gehien Elorrio inguruan. Balendin Enbeita "bertsolari konpondua". Musikaz eta abar lagunduta zebilelako

72. Mattin eta 'Xalbador', benetako bertsolariak (ELO-016/029)

Mattin eta Xalbador bertsolari oso onak. Xalbador onena. Hunkitu egin da Xalbadorrek Eibarren bota zuen bertso batzuk gogoratuta. Telebistaz jarraitu zituen Donostiako bertso famatuak. Jendeak ez zuelako ulertu jo zion txistu.

73. Lizaso eta Peñagarikano gustukoenak orain (ELO-016/031)

Lizaso eta Peñagarikano ditu gogokoen. Peñagarikano onegia delako baztertu omen dute.

74. Azkeneko bertso-txapelketan propaganda larregi (ELO-016/033)

Bilbon egin zen finala neurritz kanpoko iruditu zitzaion. Propaganda larregi eta haren atzeko zenbait gauza ere larregikoak. Antolaketarekin konparatuta, maila baxua erakutsi omen zuten bertsolariak. Denbora asko bertsoa pentsatzen.

75. Egaña oraingoan artean onena (ELO-016/034)

Egaña onena oraingoan artean. Bertsoaz gain beste gauza asko egiten omen ditu. Besteak ez ditu ezagutzen. "Pilotariak bezala entrenamendu hutsez" ei dabilta.

76. Gogokoa du Maialen Lujanbio (ELO-016/036)

Hamasei urte zituela entzun zion Maialen Lujanbiori bertsoan eta asko gustatu zitzaion.

77. Joxe Agirre eta Azpillagaren laguna (ELO-016/037)

Bertsolari-bertsolaria ei da Joxe Agirre. Adiskideak dira. Azpillaga eta hirurak sarri elkartu izan dira Mutrikun, Azpillaga sukaldari dela. Berak ere egin izan du bertsoan. Puntutan ondo konpontzen zen eurekin.

78. Lehenengo ikasi zituen bertsoak (ELO-016/038)

Lehenengo ikasitako bertsoak kantatzen ditu. Andre-gizonen arteko bertso pikanteak, Ondarroako abadeak erakutsitakoak.

79. 'Basarri' eta 'Uztapide'ren arteko bertsoa (ELO-016/039)

Zaldibarren Basarri eta Uztapidek elkarri botatako ziri-bertsoa kantatzen du. Manuel Olaizola Uztapide 44 urterekin ezkondu zen, eta Basarrik adarra jo nahi izan zion, baina erantzuna ere jaso zuen.

80. Pello Mari Otañoren bertsoa (ELO-016/041)

Behin kanpoko bertsolari bat joan omen zen Pello Mari Otañoren herrira eta bertsoa bota zuen, kontrario bila, Errekalderen bila. Haren iloba Otañoren mutikoak jendeartetik irten eta erantzun zion.

81. 'Txirrita', bertsolari konpletoa (ELO-016/042)

Jose Manuel Lujanbio Txirrita bertsolaria asko gustatzen zitzaion. Gai guztietan ondo moldatzen zen. Haren bertso bat botatzen du.

82. Gasteizen eta Zaldibarren eskolan (ELO-017/002)

Felisa Gasteizko Sagrado Corazón ikastetxean ibili zen urtebete inguru, eta Zaldibarren abade batekin ere bai. Abadearekin ikasi zuen erdaraz.

83. Mojetan dena erdaraz (ELO-017/003)

Elorrioko mojen ikastetxean ere ibili ziren. Erdararik ez zekitenez, ez zuten ulertzen irakurtzen zutena.

84. Umetako jolasak (ELO-017/004)

Gogoan dituen jolasak: "txopika" (txitoka), "paoka" (gordeka), Garizuman "txirikillan"... Baina amarik ez zutenez, "ardurapian" hazi ziren eta ez zuten jolaserako asti handirik izaten.

85. Bi morroi izaten zituzten (ELO-017/005)

Pare bat morroi izaten zuten beti. Kriadak ere bai noiz edo noiz. Ingurukoak izaten ziren. Abeltzaintza, laborantza (artoa, garia) eta basoa ziren Barrutiko bizibide nagusiak.

86. Komunioa atzeratu gerragatik (ELO-017/007)

Dotrina soilik ematen zuten bi ahizpa katekistarengana joaten zen Frantziska. Euskaraz ikasten zuten dotrina. Monjetara eskolara. Komunioa egitera zihoazela, gerra irten eta gerra ostean egin behar izan zuten.

87. Zazpi hilabetez, frontea hurbil (ELO-017/009)

Intxorta aldean egonkortu zen gerrako frontea; eta zazpi hilabete egon zen, irailetik apirilera. Azkenean, Memaria-Besaide aldetik sartu ziren "nazionalak". Tiroak eta kanoikadak etengabe.

88. Frontetik hurbileko baserriak hustu (ELO-017/010)

Frontetik hurbileko etxeak hustu zirenean, familia bat hartu zuten etxean. Gauza bera gertatu zen beste baserri batzuetan ere.

89. Moroek Gazetako gizonak atxilotu (ELO-017/012)

Frankistak sartu ziren unean, arrosarioa errezatzen zeuden Gazetako ermitan, eta soldadu moroek preso hartu zituzten gizonak. Sasoiko gizonak eta bi artalde hartu, eta Elgetara eraman zituzten. Andrazkoak eta umeak etxera.

90. Bandoz aldatu ziren bi soldaduren istorioa (ELO-017/013)

Gerra hasieran, "gorriek" bi soldadu francozale harrapatu zituzten. Boluntario gisa eman zuten izenaerrepublikako armadan eta berriz pasatu ziren beste aldera. Bi horiek izan ziren sartzen lehenetariakoak.

91. Bonbardaketak Gazetan, Elorrion eta Durangon (ELO-017/015)

Euren etxe ondoan erori zen bonba bat. Pertsona bat hil zuen. "Abioi Baltza"k bonbardatzen zuen. Berrion antiaereoak. Abioiak zetozenean, babeslekura joaten ziren.

92. Gudariak janari eske (ELO-017/016)

Goserik ez zuten pasatu, baina nahi zutena jaterik ere ez zuten. Gudariak janari eske etortzen ziren, diru truke. Txokolatea agintzen zieten umeei.

93. Garia kendu, artoa utzi (ELO-017/017)

Iheslariei ez zieten garia kendu; eta, gainera, errazionamendua ematen zieten. Gero denen artean banatzen zuten. Oso ondo konpondu ziren bi familiak.

94. Andikoara ihesi (ELO-017/018)

Emakumeak bakarrik geratu ziren baserrian. Gizonak "hankajokua eginda" zebiltzan hortik zehar. Azkenean, Berrizko Andikoara aldatu ziren batzuk. Gazetako bonbardaketa ikusi zuten handik.

95. Gose denboran ikastetxean Gasteizen (ELO-017/019)

Gasteizen ikastetxean egokitu zitzairen gose denbora zati bat. Ondo jaten zuten. Udan eta Erramu Egunez etortzen ziren.

96. Jairik jai (ELO-017/021)

Pazkoetan Bergarara, Santo Tomasetan Mondragoera, Andramarietan Elgetara... Urkiolan ez zuten dantza loturik onartzen eta Durangon egiten zen.

97. Elorrion musika-banda garai batean (ELO-017/022)

Aita txikia zela musika-banda ei zegoen Elorrion. Jende aberats asko etortzen zen bainuetxeak zirela eta. Euren ez dituzte bainuetxeak funtzionatzen ezagutu.

98. Abarketak gordetzen, errondetako jolasa (ELO-017/026)

Abarketa bat ibiltzen zen mahai azpitik. Ez dira ondo gogoratzen jolasaz. Eurak joan ohi ziren auzoko errondara, baina goiz etxeratzen ziren.

99. Baso handiak dituzte (ELO-017/027)

Basoan lan asko egin dute. Pagoa, haritza, eta batez ere pinua izan dute. Baso sail handiak erosi eta pinu sartu zituzten. Baina gaur egun ez dute dirurik balio.

100. Abadeak erakutsi kubikatzen (ELO-017/029)

Liburu baten laguntzaz egiten zituzten kubikazioak. Abadeak erakutsi zieten.

101. Pinu markatarien izenak (ELO-017/031)

Hiru alditan egiten ziren kobrantzak. Pinu-merkatarien hainbat izen ematen dira. Gehienak elorriarrak, baina kanpokoak ere etortzen ziren

102. Basoan zuzendari lanak egiten zituzten (ELO-017/032)

Basomutilen lana zuzentzen jarduten zuten bi ahizpak: mugarriak zehaztu, bota beharreko arbolak markatu, eta abar. Pinudi garbitzen ere ibiltzen ziren gaztetan.

103. Etxaunak (ELO-017/034)

Etxaunak (maiorazkoak) ziren. Gaur egun denak ei dira. Orduan ere Gazetan ia denak ziren. Euren erreterro bakarrik etxe ondoko Barrutikoak ziren, "Andikua" deitzen dieten baserrikoak.

104. Barruti baserria, antzinakoa (ELO-017/035)

Beste etxea (Barruti) utzi eta orain bizi direna eraiki ei zuten orain dela 100 urte pasatxo. Baserri zaharra oso antzinakoa da, oholezko ormak ditu, eta museo bihurtzea proposatu zien Diputazioak.

105. Elorrioko emakumeek erdararako joera (ELO-017/038)

Gerra ostean erdara indartu zen herrian, emakumeen artean batez ere. Oraintxe ikasi omen dute batzuek euskaraz beren ilobekin. Batzuk gaizki eta beste batzuek hobeto.

106. Ulertzen dute telebistako euskara (ELO-017/039)

Euskara batuko berba batzuk ez aditu arren, "konbersaziñuak berak ekartzen dau". Pilota partiduak ikustea gustatzen zaie.

107. Beheko sua etxean; argirik eta urik ez (ELO-018/003)

Beheko sua ezagutu du etxean. Bazuen tximinia. Beheko sua kendu eta ekonomika jarri zuten. Ez zegoen ez urik eta ez argirik. Aitaita ez zuen ia ezagutu.

108. Boletan eta txirikilan (ELO-018/005)

Udan boletan ibiltzen ziren. Garizuman San Agustinen txirikillan. Bestela, ermita inguruan egiten zuten olgetan. Pilotan egin nahi, baina nagusiek ez zieten uzten umeei.

109. Auzoko elbarri baten kontuak (ELO-018/006)

"Inutile" (elbarria) zen auzoko aberatsena. Erlojuak konpondu, ilea moztu, abarkak egin... Artista hutsa ei zen.

110. "Herrerito"ren kontuak (ELO-018/007)

"Herrerito" izeneko errementaria, pilotazale itzela zen. Logroñora eta Donostiara ere bizikletan joaten zen partiduak ikustera. Animazio handia jartzen ei zuen frontoietan, apustuak zirela eta. Diruz urri ibiltzen zenez, enpresariak doan uzten zioten sartzen.

111. Umetatik etxean lanean (ELO-018/008)

Umetatik lanean etxean laguntzen: ittaurrean, arbia garraiatzen, arto zuritzen...

112. Miñotara eskolara (ELO-018/009)

Eskolara gutxi. Miñotan zegoen auzo-eskola. Mutiko batek erakutsi zien maistrak baino gehiago. Maistrarekin ezkondu zen handik urte askora. "Txepetxa" deitzen zioten maistrari.

113. Maistraren zigor mingarria (ELO-018/010)

Behin mahai batean brusa-poltsikoa trabatu mahaian eta tinta guztiak bota zituen lurrera. Maistrak zortzi "palokada" eman zizkion hatz puntetan erregelaz. Amorru handia hartu zion hori dela-eta.

114. Errekete batek hiru miliziano atxilotu (ELO-018/012)

Prismatikoekin hegazkinei begira egoten ziren. Lehengusina bat prakak josten ari zen erreketen bati; eta hiru miliziano agertu zirenean, aurre egin eta atxilo eraman zituen.

115. Beste bandoan ibilitako soldaduaren istorioa (ELO-018/013)

Soldadu bat Billerlen atxilotu zuten; eta geroago, beste bandoan sartu zen soldadu, kintek harrapatu zutenean. "Nazionala" Elorrion sartzean, bere lagun ohiekin elkartu zen.

116. Bi gerra-hegazkinen kontuak (ELO-018/014)

Bazen "Cabroni" esaten zioten hegazkin bat, mantso-mantso ibiltzen zena. Gero bota egin omen zuten. Beste bat oso behetik joaten ikusi zuten eta Berrizen lurreratu zen. Antiaereoak jota zetorren.

117. Hildako milizianoaren istorioa (ELO-018/015)

Memariatik San Agustinera sartu ziren "nazionalak", borrokarik gabe. Hildako miliziano bat lurperatu gabe egon zen luzaroan. Emakume batek lurperatu zuen lehendabizi, eta gero apaiz batek hezurak atera eta hilerrira eraman zituen.

118. Gose denboran txarto (ELO-018/017)

Gosea pasatzen zuten. Baserrian hobeto. Soldadutzatik baimenaz etortzen zirenean jatea zen poz handiena. Egun bateko soldata ez zen aski kilo bat gari ordaintzeko. Aramaioko Gantzagaraino joaten ziren garia uruntzera.

119. "Errentadoriak", baina ugazaba ona (ELO-018/018)

Gari-jotzea eskuz, gari-eskuta harlauza baten kontra joz. Kanean gose handia, baina baserrian hainbestean. Kontrabandoan eros zitekeen jeneroa baina oso garesti zegoen. Maizterrak ziren eta dira, baina ugazaba oso ona izan dute. Garia ugazabari, udalari, apaizei entregatu behar eta eurak artoa jan behar.

120. Arineketan lantegira (ELO-018/019)

Arrebak jaikitzen zuen ohetik lantegiko adarra entzuten, eta abiada baten joaten zen ordurako heldu ahal izateko.

121. Kanean ere gehienek euskaraz (ELO-018/021)

Kanean ere gehienek euskaraz egiten zuten. Gerra ostean galarazi egin zuten euskaraz egitea.

122. Abadiñora San Blasetan (ELO-018/025)

Inguruko erromerietara joan ohi zen. Abadiñora urtero San Blasetan behorrek. Egun handia izaten zen. Behin, bueltan zetozela, istripua izan zuen motoaz herriko jauntxo baten semeak. Apur bat nagusitutakoan Urkiolara ere joaten ziren.

123. Propietarioak gura ezkontzeko (ELO-018/026)

Mutilek ordaindu egin behar izaten zuten erromerietan, dantzaz egiteko. Batez ere diruari begiratzen zitzaion bikotea aukeratzeko orduan.

124. Angiozarreraino neska-laguntzen (ELO-018/028)

Behin Angiozarreraino joan zen beren lagun bat neska-laguntzen. Hurrengo egunean biae (behi gazte) bat ikusten izan zela kontatzen zuen.

125. Danbolintero itxua (ELO-018/029)

Eskopetarekin istripua izan eta itsu geratu zen danbolintero. Boletan ere egiten zuen. Artista omen zen. Soinujole ezagunak, berriz, "Malla" (Mallabikoa zelako), Angiozarko Itxua, eta izena gogoan ez duen beste Angiozartar bat

126. Gerra ostean lan gutxi tailerretan (ELO-018/031)

Tailer gutxi zegoen eta gaitza zen lanera sartzea. Burdiñola eta Zubia lehenbizikoak. Osaba bat zuten Bergarako Altos Hornosen, eta haren errekomendazioaz sartu zen tailerrean.

127. Igitaiaz lau ira-gurdi ebaki auzoko batek (ELO-018/034)

Beti gustatu izan zaio ganadua. Behiak izan ditu, baina ez du esnetarik egin. Igitaiaz egun batean lau gurdi-ira ebaki zituen gizonaren pasadizoa. Garai hartan, ira oso inportantea zen.

128. Auzoko bihargin handi baten istorioa (ELO-018/036)

"Herrerito"ren anaia langile aparta zen. "Harrijoillia" zen ofizioz. Behin, haren seme batek idiek alorra goldatu ahala apurtu zuen aitzurraz. Gero burutik endredatu eta azken txarra izan zuen.

129. Uberako Errementaria (ELO-018/038)

Uberako errementaria ezagutu zuen mutikotan. Gizon alegrea. Berak egindako gurdi-gurpilak ekartzera etortzen zen Elorriora domeka goizetan.

130. "Makila-eskopeta"ren kanoia lehertu (ELO-018/040)

Anaiak lagun eibartar armagina zuen laguna, honek makila itxura zuen eskopeta egin zion, eta behin, kanoi-muturra garbitzea ahaztu eta lehertu egin zitzaion Eusebiori.

131. Harrika (ELO-018/043)

Harrika egiten zuten asko mutikoek, auzo batekoek bestekoen kontra. "Herrerito" familiakoak ziren gogorrak. Txoriak ere botatzen zituzten.

132. Txahala istripuz hil (ELO-018/046)

Saldutako idiskoa garraiatu ezinik zebilela, behi bat azaldu, hari salto egin, idiskoa erori eta hil egin zen. Gero komeriak izan zituen hiltegiari kobratzeko.

133. Beraneanteak etxean (ELO-019/002)

Etxe handia zen. Argia, 7.000 m etxe kontrari. Fonda izandakoa. Akordatu da nola beraneanteak etortzen ziren txikia zenean.

134. Moroek bere senide batzuk hil zituzten Elgetan (ELO-019/004)

Moroak Elgetan sartu zirenean, Pilarren senide ziren senar-emazteak hil zituzten, eta alaba zauritu zuten.

135. Baserrian lanean umetatik (ELO-019/007)

Eskolarik ez zuen galtzen, baina umetatik lan etxean jo eta ke: behiak jaisten, ortuan, plazan jeneroa saltzen... Sagar asko izaten zuten. Elgetara eta Zaldibarrera oinez.

136. Memariaraino iratan aita eta alaba (ELO-019/010)

Txirikillan, gorde-gordeka... egiten zuten, baina asti gutxi izan du jolaserako. Beti lanean. Basoan iratan ere egin du. Korta nolakoa zen kontatzen du. Memariaraino joaten ziren iratan.

137. Gari-jotzen (ELO-019/012)

Etxea kamino kontran zuten eta etxeko "ataurrian" jotzen zuten garia. Eskuz, azaokak harri baten kontra joz. Ez du goserik pasatu.

138. Ogia beste etxe bateko labean egin (ELO-019/013)

Orea etxean egin eta beste etxe batera eramaten zuten erretzera, etxean laberik ez zegoelako.

139. Taloa eta morokila (ELO-019/016)

Artoa hartzen zuten. Taloa eta morokila gustura jaten zituen. Porru-patatak, babak., eguneroko jana. Berakatz-zopak afaltzeko. Gaztainarik ez.

140. Bilbon 5 urte kriada (ELO-019/018)

Bost urte egin zituen Bilbon neskame ezkondu arte. Sota ontzigilearen alaba baten etxean. Delclaux gizona. Bost edo sei zerbitzari ziren. 950 pezeta irabazten zituen 1959an. Harremanetan jarraitzen du andrearekin.

141. Sotatarrek nazionalista, baina euskararik ez (ELO-019/019)

Umeak eskolara eramaten zituen eta señoaren arropak janzen. Nazionalistak izan arren, Sotatarrek ez zuten euskaraz egiten. Hilean bi domeka arratsalde bakarrik zuten libre. Oporretan etorrita ezagutu zuen gizona. Lana sendo egin arren, ezin izan zuen diru asko aurreratu.

142. Ezteguak nolakoak izan ziren (ELO-019/022)

Arropak eta izarak Bilbon "markau" (inizialak jarri) zituzten. Elorrioz ezkondu zen. Zirkuloan bazkaria. "Merluza langostada" eta oilaskoa jan zuten. Zirkuloa, oso jatetxe ona.

143. Ezkon-bidaia (ELO-019/023)

Bilbon egun bat eta bederatzi Madrilen.

144. Taberna, denda, telefonoetxea (ELO-019/025)

Taberna, denda eta telefono-etxea izan dute Legution. Jana ez ei da falta izan, baina lana edozenbat.

145. Dendaritza oso diferentea (ELO-019/027)

Granelean saltzen zen ia guztia dendan. Zapatilak, aspirinak, denetik saltzen zuten, janariaz gain. Legutioko dendak zeintzuk ziren.

146. Erromeriak Elorrion eta inguruan (ELO-019/029)

Plaza, Argiñeta, San Lorentzo... Erromeria lekuak. Durangora ere joaten ziren, gutxi. Tabernetan ez ziren sartzen eta pintatzen zena "fulana"tzat hartzen zen.

147. Lehenetariko telebista (ELO-019/031)

Errekadistak hornitzen zituen. Jokoan asko egiten zen tabernan. Telebista ipintzen lehenetarikoak izan ziren eta taberna beteta izaten zuten horregatik.

148. "Eulatzuen" haurtzaindegira eta herri-eskolara (ELO-020/002)

Bost urte arte "Eulatzuen" eskolara joan zen, haurtzaindegira. Gero herri-eskolara. Pisurik gabe joaten ziren. Hamar urterekin izan zuen lehenengo liburua. Pizarratxo bat eramaten zuten.

149. Gerra ostean, erdaraz eskolan (ELO-020/003)

Komunioa euskaraz egin zuen, baina gero "ensegida etorri zan erderia", eta handik aurrera dena erdaraz. Mojetan zebilen gerra irten zenean. Ez ziren gehiegi ohartu; autoak, irratiak... dena errekiatzuten zutela, horrekin bai.

150. Etxean laguntzen ume-umetatik (ELO-020/004)

Etxean laguntzen zuten behar zen guztian. Taberna zuten eta euren etxean trebatzen ziren baserrietatik etorritako zerbitzariak, eta gero Madrilereta-eta joaten ziren batzuk.

151. Kanean jolasean (ELO-020/005)

Plaza eta kaleak ziren beren jolaslekua. Pilotan ere egiten zuten neskek. Hazitxoagoak deseatzuten egoten ziren nobenak-eta egoteko, etxetik irteteko aukera izateko. Sakaponekin (tortolosak) egiten zuten jolas. Ondo daki jokatzuten. Ilobentzat egin behar du sakapon-joko bat.

152. Beraneanteek jolas berriak ekartzen zituzten (ELO-020/007)

Beraneante asko etortzen ze Elorriora Madrildik-eta. Jolas eta kantu berriak ekartzen zituzten. "Hallo la vía" izenekoa, esaterako. Berehala ikasi zuten erdaraz. Etxean, berriz, beti euskaraz.

153. Gurasoen sailetan jolasean eta lanean (ELO-020/008)

San Agustin aldera joaten ziren errekarra jolasera. Gurasoek txabola bat eta lursaila zuten auzo horretan, eta hara ere joaten ziren. Baita baserri batera ere.

154. Elorrioko mutilek Elgetakoei harrika (ELO-020/010)

Gerora jakin zuen eurengana dantzara etortzen ziren Elgetako mutilei harrika egiten zietela Elorrioko mutilek Txanberiko errebueltan.

155. Gerra aurreko bilerak (ELO-020/012)

Sozialistak, karlistak eta abar, bakoitza bere aldetik biltzen ziren gerra aurretxoan. Umeak izan arren, zerbait arraroa sumatzen zuten.

156. Arrisku handiko lekuan gerra denboran (ELO-020/016)

Elorrioko bonbardaketa. Igurixara joan ziren baserri batera. Gero jakin zuten leku txarrenean egon zirela. Hegazkinak zetozenean, kanpandorrea ezkutatzen ziren. Beldur handia pasatzen zuten.

157. Bonbardaketak Elorrion (ELO-020/017)

Elorrioko etxe asko apurtu zituzten bonbardaketek. Lehena, jabe nazionalista batek zuen etxe dotore bat izan zen. Gero, "Fonda de la Paz" eta beste hainbat.

158. Milizianak (ELO-020/018)

Baziren milizianak, emakume soldaduak, Elorriokoren bat edo beste ere bai. Eurek ez zieten "Rojos" deitzen errepublikazaleei. Gero ikasi zuten hitza, "errebeldeak" sartu zirenean. Galdeketa zorrotza egin zieten. "Rojo pendón". Gelditze-agindua gauetan.

159. Tropak plazan formatuta (ELO-020/019)

Elizaren arkupetik jotzen zuten diana. Tropak plazan formatu eta mendira joaten ziren. Orduan ikasi zuen "Eusko Gudariak" kantua, baina ez zitzaieen burutik pasatu ere egin frankistak sartu zirenean kantatzerik.

160. Beldurra errebeldeak sartu zirenean (ELO-020/020)

Beldur handia pasa zuten errebeldeak sartu zirenean. Moroek bortxatu egiten zuten zurrumurrua zebilen. "Extraterrestreen" itxura hartu zien, beren manta, bizar, medaila eta trepetxuekin.

161. Luebakiataraino joan neska-mutikoak (ELO-020/021)

Ia Kanpazarreraino joan ziren neska-mutikoak, jausi zen abioi bat ikusteko asmoz. Behin hegazkin batek ametrailatu eta ia garbitu zituen. Beldurra gorputzean sartuta geratu zaio betiko.

162. Eurak goserik ez gose denboran (ELO-020/033)

Taberna zuten, lurrak ere bai, gainera aita tratularia zenez, ez zuten goserik pasatu. Dena dela, hasieran ez zuten ia ezer izaten tabernan ere. Aitak lokal bat harakin bati alokatu zion astean behin haragia jan ahal izateko. Baina jendeak oso txarto pasatu zuen. Kanpandorrera, bonben ihesi.

163. Agintari berriak lapurretarako gertu (ELO-020/034)

Alkateak, apaizak, baita barrenderoak ere, aldatu ziren gerra ostean. Aurrenengo sei urteak izan ziren txarrenak. Nahikoa lapurtu zutenean baretu omen ziren apur bat. Aitari gertatutako kasua.

164. Gerra osteko errepresioa (ELO-020/035)

Udaletxean agintzen jarri zirenak ez ziren izan lehengo karlista nabarmenenak. Karlistak asko kexatzen omen ziren eurek sufritutakoaz. Norbaiten aldeko sinadura eske etorritakoan, zenbaitek ez omen zuen ondo erantzuten.

165. Elorrioko lehen komando klandestino (ELO-020/036)

Senarrak parte hartu zuen Elorrioko lehen talde klandestinoan. Atxilotu eta kartzelan egon zen. Taldekideen izenak. Ajuariagerra zuten gidari.

166. Espainiako bandera lapurtu zutenekoa (ELO-020/037)

Behin, Espainiako bandera harrapatu zuten, eta nazionalista jendea kuartelera eramane eta jipoitu. Handik gerora agertu zen, "Rosita Tremens" enterradorearen alabaren leihoan.

167. 'Xabiartxo' liburua desagertu gerra ostean (ELO-020/039)

Euskara nagusi gerra aurrean. Gero gutxiago. Familia kanpotar asko etortzen zen udan Elorriora. Libururik ere ez zuten ia. Etxean zuten Xabiartxo liburua gerra ostean desagertu zitzaien.

168. Serenoa eta "Sakamanteka" (ELO-020/040)

Serenoa bazen gerraostean. Berak semeari harekin sartzen zion beldurra, baina gero konturatu zen lagunak zirela. Bere denboran, "Sakamantekak" eta "Tuli-tulipa" deitzen zioten andrea ziren beldur-emaileak.

169. Buzkantz kaleko lantegia (ELO-020/041)

Arrasatear batzuk Buzkantz Kalean jarri zuten tailerra. Aurretik zapata fabrika egon zen leku berean.

170. Zinea plazan (ELO-020/042)

Plazan botatzen zen zinea, horman proiektatuta. Mutua zenez, gizon batek egiten zuen berba. Gogoan geratu zaie orduko esaldi bat. Geroago sortu zen Udala zine aretoa.

171. Pagarik ez (ELO-020/043)

Eurei ez zieten pagarik ematen. Tabernan "errejilla" batetik behera jausitako txanponak hartzen zituzten. Txakur haundi bat izan ohi zen paga normala.

172. Errebonbilloak eta sablea (ELO-020/044)

Feria Nagusia, hiru egun, irail hasieran. Urrian "Errebonbilloak". Festa horretan erabiltzen den sable baten historia. Teniente karlista batez maitemindu zen senidea.

173. Erromeriak (ELO-020/046)

Abuztuan Argiñetakoa lehenengo, gero San Lorentzo Miñotan, eta San Agustin. Santixago Aldapen... Oso neska dotoreak Elorrioren mutilak ere bai. Gero etorri zirenak ez hainbeste, baina haiek ere dotoretu ei dira.

174. Beti sukaldari, gustatu ez arren (ELO-020/047)

Tabernaria eta sukaldaria bizi guztian. Ama ikusiz ikasi zuen jana gertatzen. Erretiratu zenean errebelatu zuen bere sekretua: ez zaio sukaldeko lana gustatzen.

175. Jatetxearen horniketa. Arraina gose denboran (ELO-020/048)

Hasieran ahal bezala, gero Bilboko biajante batek hornitzen zituen. Baserritarrek ere bai: berdura, arrautzak... Dena etxera ekarri izan diote. Arrainak kendu ei zuen gosea gerraostean. Arrain-saltzaileen pasadizoak.

176. Perretxikoak (ELO-020/052)

Perretxiko asko prestatzen zuen, baina klase ezagunak bakarrik. Pozoitze istorioak.

177. Legatza, bere plater preziatua (ELO-020/053)

Jende askok gauza bera eskatzen zuen beti. Baina agian "lebatza" izan da bezeroek gehien estimatu diotena. Errezeta ematen du. Arrasateko bezero porrokatu baten kontuak.

178. Atuna (ELO-020/054)

Atunak arriskua du lehortzeko. Berak kipulaz eta tomatez prestatzen zuen. Momentuan jan behar omen da

179. Kirolarien eta beste bezero batzuen pasadizoak (ELO-020/055)

Okela kontuan denetik prestatu du. Jenero ona bada, ondo prestatuz gero, beti ona. Azkarate pilotaria eta haren lagunak etortzen ziren asko jatetxera. Bezero handikiaren pasadizoa.

180. Paella eta oilaskoa eztegu bazkarietan (ELO-020/056)

Paella eta oilaskoa izaten zen eztegu bazkari ohikoa. Ez zen erraza izaten oilaskoak topatzea.

181. Ardoa: "Palacios" (ELO-020/058)

Ardoa zen nagusi. "Palacios", euren tabernan. Txanpana oso gutxi. Pattarra, anisa, ardo goxoa...

182. Hozgailua (ELO-020/059)

Izotz-barrekin frigorifikoa. Gero argindarra jarri zioten. Zarata handia ateratzen zuen, eta argia sarri kentzen zuten, ez zuen balio. Beti argi barik, beti kandlekin.

183. Bezero zaratatsuak (ELO-020/061)

Bezeroak egunez isilak, baina orduak aurrera egin ahala hasten ziren animatzen: bertsotan, eta abar. Amak irratia altu jartzen zien.

184. Fraga Elorrion (ELO-020/062)

Behin Fraga etorri zen Elorrion "Paradorea inauguratzera", artean etxearen pareta bakarrak zeudenean. Sekula ez zen egin. Orduko argazkiak ditu.

185. Bezeria oso ona izan dute (ELO-020/063)

Jana estimatzen du bezeroak, eta harekin batera tratua. Maila altuko bezeria izan dute. Zerbitzariak, etxeak batez ere. Orain jendeak ez du asteburuan lanik egin nahi. Lehen ez zen horrela.

186. Propinak (ELO-020/064)

Propina ematea normala zen. Behin talde batek, "Los Amigos del Pais" edo, bakoitzak duro bana eman zuten. Pezeta bat ere asko zen garai hartan.

187. Pertsonai zelebreak (ELO-020/065)

Kontzejal zelebre asko egon ei zen, gatzizena anaiak-eta ipintzen ei zieten. Mozkor asko garai batean, jan ere ez zen egiten eta. Eloiren kontuak: kartzelan egonda gero, nola konpontzen zen jazarpenari ihes egin eta parrandan ibiltzeko.

188. Gazte-denbora gogorra Felisak (ELO-021/001)

Datu pertsonalak. Berrion jaio. Hamazazpi urterekin aita hil Felisari. Urtebete Bilbon ikastetxe batean. Gero Donostian kriada "sartu eta urten" bost urtez. Ez litzateke bueltatuko ezergatik ere gazte-denborara.

189. Fabrikan lan egiteko eskaintza amak (ELO-021/002)

Aita hil zenean, fabrikan lan egiteko eskaintza egin zioten amari, baina ez zuen onartu. Hutsegite larria, Felisaren ustez.

190. Jostailuak, jolasak, kantuak (ELO-021/004)

Umetan ez zuten Erregenetan erregalorik. Berak ere estu hezi ditu ondorengoak. Kanean jendea ezer egin gabe ikusten duenean, "honek ezin dau aguentau" pentsatzen du. "Erromala" (sokasalto) umetako jolasa. Dantzan, kantuan... Bizimodu sana.

191. Gerra Elorrion (ELO-021/007)

Eskolarik gabe egon ziren hiru urtez. Zortzi urte zituen. Besaidetik bonbardatzen zituzten Intxorta eta Elorrio. 30 hildako.

192. Francoren soldaduak etxeko atea jotzen (ELO-021/008)

Frankistak Elorrion sartu eta baserriko atea jo ondorengo gorabehera latzak. Txakurrari tiroak, zakarkeria familiarekin. Mutikoak soldaduen artean.

193. Galdaratik artoa eta esnea jaten zuen familia (ELO-021/011)

Taloe gustura jaten zuten. Errotik esnea jetzi ahala, bota artoa mehe ebakita eta hainbat familiak galdaratik nola jaten zuten. Orain milionarioak baino hobeto bizi ei gara.

194. Etxea erre izanaren penarik ez (ELO-021/015)

Etxea erre zitzaien eta kalera jaitsi zen familiarekin bizitzera. Baina ez du horren penarik. "Lehenago erre balitz hoba" dio, auzoko bizimodua gatxa zelako.

195. Argiñetako elizpean bazkaltzen (ELO-021/017)

Martxeli behin baino gehiagotan familiak erdibidean zegoen Argiñetako elizpera ekartzen zion bazkaria, etxeraino joan beharrik ez izateko.

196. Eskekoak eta paragueroak (ELO-021/019)

Eskekoak asko ibiltzen ziren, "Porru" esaten zioten mondrauetar bat du Martxelek gogoia. Paragueroak ere etortzen ziren, ontzi-konpontzaileak. Burlakantu bat kantatu ohi zieten.

197. San Esteban egunez etxea erre (ELO-021/020)

San Estebanak dira Berrioko jaiak, jai inportanteak. San Esteban egunez erre zitzaien baserria. Orduan esandakoak.

198. "Buzterriginak", bikote bilatzaileak (ELO-021/023)

Felisari auzoko batek topatu zion nobioa. "Buzterriginak" deitzen ei zitzaien bitartekari lanak egiten zutenei.

199. Haurdun ezkondu zen Felisa (ELO-021/025)

Denetik zegoen orduan ere nobioen arteko harremanetan. Guztiz aldatu da gizartearen ikuspegia. Haurdun ezkondu zen bera. Ez du ezkutatzeko.

200. Dena pekatu (ELO-021/027)

Ezkondu aurreko harremanen kontra berba egiten zieten elizan. Lehenagoko bizimodua.

201. Bodak eta eztei-bidaia (ELO-021/029)

Martxelek ez zuen egin eztegurik. Bidaia bai. Felisak, berriz, eztegua eta bidaia. Zirkuloan despedida eta Tanger jatetxean eztegu-bazkaria. Menua esaten digu. Donostiara ezkontza-bidaia.

202. Funcor-eko langile (ELO-021/030)

Biek egin zuten lan Funcorren. Ondo hasi zen, baina poliki-poliki okerrera egin zuen. Berari gertatutako pasadizo bat kontatzen du Felisak.

203. Andrak Funcorren (ELO-021/031)

Hamalau andrek egiten zuten lan Funcorren. Lehenengo lau orduetan normal errenditzen ei zuen, baina gero ez.

204. Funcorren gauza onak (ELO-021/033)

827 langile ei zeuden plantilan. Eskolak. Soldadutzara joandakoei soldata. Txirringulartar taldea. Oso pozik dago Felisa lantegiaz, nahiz eta azken txarra izan.

205. Hilario Azkarate pilotaria (ELO-021/035)

Urte batzuetan Elorriok fama handia izan zuen bere pilotariengatik. Hilario Azkarate hainbat urtez izan zen txapeldun.

206. Idi-probak eta apustuak (ELO-021/036)

"Matahombres" izeneko zaldibartar baten apustua. Idi-probak bazuten indarra sasoi batean. Pertsona batzuei buruzko komentarioak

207. Pinudiak baino hobe errenta ona (ELO-021/038)

Pinuak ez du dirurik egiten gaur egun, eta hobe ei da hori baino pisu bat errentan izatea.

208. Euskara nagusi Elorrion (ELO-021/039)

Estudiatzen edo kanpoan egondakoren batek bakarrik egiten zuen erdaraz Elorrion. Besteek euskaraz. Berak apopiloekin ikasi zuen erdaraz.

209. Felisaren bizibideak eta erreteroen gorabeherak (ELO-021/040)

Apopilo-etxea izan zuen. Diru asko egin du, txindurri lanean. Erreteroa ziren. Zenbat ordaintzen zuten

210. Gerrateko kontuak (ELO-021/042)

Martxel mutikoa zelarrik, trintxerak non zeuden erakusteko agindu zieten "nazionalek". Preso hartu zuten auzotar baten istorioa. Aita Amorebietan preso izan zuten, karlistei eman ei zielako botoa.

211. Baserria (ELO-022/002)

Mila seiehun eta pikokoa da baserria. Esteibarlanda abizena, Gazetatik etorritakoa. Baserrian egindako obra. Ekonomia 50ean sartu zen.

212. Anbotoko Señoria (ELO-022/004)

Umetan entzundako ipuinik ez du gogoan, Anbotoko Señoriana izan ezik. Anbototik Eguarbitzara joaten ei zen airean.

213. Errepublikak sortu zen egunean jaioa (ELO-022/007)

1931ko apirilaren 14an jaio zen Jose, errepublika aldarrikatu zen egun berean. Patxi lehengusuak, elkarriketakideak, 10 urte zituen ordurako eta bera zaintzera etortzen zen. Behin mantarretik galdu ei zuen Patxik ume txikia.

214. "Erauntza" teilatuan (ELO-022/008)

Etxe berri bati teilatua egindakoa "erauntza" (ereintz adarra) jartzen zitzaion teilatuan. Orduan jabeak afari bat eman behar zien langileei, "montxorra".

215. Su bedeinkatua begizkoaren kontra (ELO-022/010)

Pazkoa egunez su bedeinkatua ekartzen zen elizatik etxera. Behiak igurzten ziren harekin begizkoari aurre egiteko.

216. Patxiren eskola-egunak (ELO-022/012)

Euria zenean bakarrik eskolara. Hotz egiten zuen neguan. Dena erdaraz, eta ez zuten ulertzen. Gaueko eskola.

217. Errepublika jaio zen eguna (ELO-022/013)

Eibartik bandera ekarri eta bandak jo zuen plazan Errepublika aldarrikatu zen egunean

218. Alderdi politikoek lokalak Elorrion (ELO-022/014)

Nazionalistek, errepublikanoek eta karlistek bazuten bakoitzak bere lokalak Elorrion. Herrian oso estimatua izan ez zen alkate baten kontuak.

219. Milizianoak baserrietara; bonbardaketak (ELO-022/016)

Milizianoak baserrietara etorri ohi ziren janari eske. Iheslari baten istorioa. Babeslekuetan ezkutatzen ziren bonbardaketak zeudenean.

220. Bonbardaketak Elorrion (ELO-022/018)

Abioiek zein kanoiek sarri bonbardatu zuten Elorrion. Abioiek bonbardatu zuten egunean, hiru edo lau hil ziren. Argiñetan hilobi bat apurtu zuten.

221. Frankistak sartu osteko errepresioa (ELO-022/019)

Jende asko sartu zuten kartzelan, baina ez ei zuten inor hil. Elgetan, ostera, bai.

222. Alderdien egoitzak inkautatu (ELO-022/020)

Errepublikaren aldeko alderdien egoitzak inkautatu egin zituzten. Non zegoen lokal bakoitza.

223. Jose lanean mutikotatik (ELO-022/021)

Ez zuen eskolara joateko astirik izan. Aita gerran galdu zenez, etxean lan egin beharra izan zuen txiki-txikitatik.

224. Aitita, istilu-bitartekaria (ELO-022/022)

Joseren aitita oso argia eta estimatua ei zen. Bitartekaria izaten zen istiluetan. Batez ere, errenteroak errenta ordaindu ezinik geratu eta etxe-alderak (aldaerak) egin beharrean aurkitzen zirenean. Auzoan gehienak errenteroak ziren, gutxi etxaunak (etxejabeak).

225. Patxiren bizikleta (ELO-022/023)

Patxik zeukan auzoko bizikleta bakarra. Behin etxaun handi bat etorri zitzaion eske.

226. Gezurretako apaizak informazioa lortzeko (ELO-022/024)

Beldur handia zegoen gerraostean. Edozer gauzogatik "Batallón de Trabajadores"era eramaten zituzten. Ba omen ziren han apaiz mozorrotzen ziren poliziak, konfesioan informazioa lortzeko.

227. Estraperlo kontuak (ELO-022/026)

Aramaioa, Angiozarrera edo Eitzara (Zaldibar) isilpean errotara . Cuatro Vientos-era (Aramaio) ardo bila. Ermuko baserri bat, ona kontrabandorako. Guarda zibilak "untatuta".

228. Auzo-errota zaharraz (ELO-022/027)

"Tiro biko" errotarria artatxikiarentzat. Auzo-errotaren gorabeherak.

229. Isuna patata ez deklaratzegatik (ELO-022/028)

Nagusiari eta udalari garia entregatu behar zieten, hartzen zuten gehiena. Artoaz moldatu behar etxean. Patxik multa bat jaso zuen zenbat patata hartu zuen ez deklaratzegatik.

230. Eguneko jornalaz ezin abarketa-parea ordaindu (ELO-022/029)

Bi pezeta, Patxiren lehen journala. Abarketa pareak 10 errial balio (2,50).

231. Estatarroak (ELO-022/031)

"Zamia", gurdiaren atzeko abar-mordoa frena dezan. Estartak edo estatarroak eragiten zituen. Estatarroei buruzko solasa.

232. Garia erein eta zaintzen (ELO-022/033)

Zemendian (azaroan) erein ohi zen garia, baina urtarrilean ere ibilita daude. Martian arearekin apur bat jorratzen zen. Gariari buruzko esaera. "Errotu" egiten da garia, hazi batetik hainbat landare.

233. Gari-produkzioa lurraren araberakoa (ELO-022/034)

Lur gozoa eta aidosoa behar du gariak. Berrio, Mendraka..., goi aldea ei da ona. Berrioko Amurdi baserria izan zen azkenetarikoa garia ereiten.

234. Garia ebakitzen (ELO-022/035)

Igitaiaz ebaki ohi zen garia, segaz eta segadoraz gero. Gero azaoak, eskutak, egiten ziren. Hamarnaka elkartzen zituzten, lapurretan eginez gero konturatzeko.

235. Garia ebaki eta jotzen (ELO-022/037)

Eguraldi txarrak etorriaz gero, eskutak "kopetetan" jartzen ziren, burua beti airean izateko. Eskutak egiteko ziria, sahatsezkoa. Eskuz jotzen zen antzina. Txoriak uxatzeko trikimailuak.

236. Txondorrek eta karobiak (ELO-022/038)

Txondorrik ez dute eurek egin. Berrio aldean eta bai. Karerik ere ez, baina karobi zahar asko ezagutu dute. Ezagutu dituzte taldean karea egin dutenak.

237. Txerria hazten (ELO-022/039)

Urtero pare bat txerri hazi izan ditu Josek. Irendu egin ohi ziren. Asun-uraz sendatu eta txukundu ohi zituzten. Saltzailea Nafarroatik oinez, txerriak aurrean hartuta, antzina. "Ordotxa" nahiago, garbitasun kontuengatik. Gaixotasunak.

238. Txerria hil eta banatzen (ELO-022/040)

Gantxuaz hiltzen zuen txerri-hiltzaileak. Txarri-bodia: txerria hiltzen zen egunean egiten zen afaria: solomoa eta odolosteak. Gibela goizean jaten zen. Erregaluak.

239. Txerrikia kontserbatzen (ELO-022/041)

Arkan gordetzen ziren urdaiazpikoak. Haritzezkoak dira Joseren etxeakoak. Gero gatza ematen zieten. Bizimodu estua ordukoa.

240. Funcor kooperatiban lanean (ELO-022/043)

Fundizioa eta nekazari-makinaria egiten zen Funcor kooperatiban. 400 bat langile inguru omen ziren, 60 bat emakumeak. Lanaren xehetasunak.

241. Funcorren obra sozialak (ELO-022/045)

Umeentzat eskolak debalde zituen Funcorrek. Lursailak ere bazituen, orain Eroskik duena, esaterako.

242. Elorrio, herri euskalduna (ELO-022/047)

Elorrio ia guztiz euskalduna zen beren ume denboran. Bi edo hiru erdaldun gogoratzen dituzte. Josek dio ez dakiela ia erdararik. Beren denboran ez zen ia inor joaten Arabara erdaraz ikastera, baina lehenago bai.

243. Hagindun igitaia (ELO-022/048)

Hagindun-igitaiaz egindako ebakia txarra ei da oso. Lehen muna bazterretako belarra ebakitzeko ere erabiltzen zen.

244. Baserritarrak eta kaletarrak (ELO-022/049)

Kaletarrek ez zuten baserrira ezkondu nahi izaten. Baserritarra bajutzat hartu ohi zen.

245. "Burdinaraketan" bala artean (ELO-022/051)

Gerra denborako istorioa: bala artean burdinaraketan ari zen gizona. Mola jenerala ikusi zuen Patxik Elorriko kalean.

246. Berorika abade eta abogaduei (ELO-022/053)

Abadeei-eta, berorika. Albaitariari ez. Anai-arreben artean zuka Josek, eta hika, ostera, Patxik.

247. Elorriko auzoen artean euskaraz diferente (ELO-022/054)

"Tonada" diferentea auzo batetik bestera. Baina hitzetan ez ei dago diferentzia handirik. Aramaion, Arrasaten, Berrizen, Elgetan... diferente. Apata aldera ez ei da hainbeste aldatzen.

248. Bizkaian non euskararik onena? (ELO-022/056)

Bizkaian ez dute lehenesten euskara bat besteen gainetik. Lehenago ez zen euskararik egiten Bilbo aldean, orain bai.

249. Fray Gabriel de Landaren historia (ELO-022/057)

Patxiren leinuko fraide santu baten historia. Lima, 1643. Buruz ematen du idatzi batean datorrena. Ez omen zuten santu egin dirurik ez zutelako tramiteak egiteko.

250. Margarita, baserria aurrera atera zezakeen bakarra (ELO-023/002)

Aitaren anaiak esaten ei zion aitari beste hiru nebak ez zirela gauza baserria aurrera ateratzeko, Margaritak bakarrik jaso zezakeela Liorreta. Osabaren kontuak.

251. Familia etxe batetik bestera (ELO-023/003)

Familiaren gorabeherak: Zaldibarko jatorrikoa, gero Apatamonasterioko baserri batera aldatu, gero Zenitara. Han ere gaizki, eta orain bizi dena, Liorreta, errematean (subastan) ei zegoen Durangon, eta horrela erositako da

252. Abarka-galtzak eta maonezko amantala (ELO-023/005)

Zapatak edo abarketak oinetakorik ohikoenak. Kalera jaisten zirenean, denda baten atarian abarkak erantzi eta zapatak janzten zituzten. "Abarka-galtzie eta maonezko amantala" orduko euren uniformeak.

253. Bizikleta (ELO-023/006)

Bizikletan jaisten zen esne-marmitekin. Zapatuetan Durangora joaten zen horrela. Orbea marka. Nola ikasi zuen bizikletan. Bi bizikleta izan ditu, bata ahizpari eta bestea alabari erosirikoak.

254. Mondragoera tratuarekin (ELO-023/007)

Arrasatera joaten zen astean hiru bider azokara. Berdura, batez ere. Bi astorekin, oinez. Beste bi aldiz Durangora. Gaez ilunetan joaten ziren Arrasatera. Ibilera txarrak.

255. Astodunak taldean Arrasatera (ELO-023/008)

Salmenta ona Arrasaten. Asto bakoitzean 100 kilo ere bai batzuetan. Esnea ere eramaten zuen. Taldean joaten ziren Elorriotik astodunak.

256. Barruko arropak eta kanpokoak (ELO-023/009)

Amantala erabiltzen zuten beti. Barruko arropa zuria gehienetan. Fajak barillekin ere bai. Gizonek txapela.

257. Jantzi berriak estreinatzen (ELO-023/010)

Aste Santuan estreinatzen ziren mantilla berriak, arrosarioa eta abar.

258. Aitak egindako abarkak (ELO-023/013)

Larruzko abarkak erabiltzen zituzten, baina oso txarrak ziren. Aitak egiten zituen behi narruaz. Zelan, kontatzen du. Jarlekuei azpia ere sartzen zien aitak.

259. Ama txabilan haria egiten (ELO-023/014)

Ama artzain etxekoa zen eta dotore egiten zuen haria txabilan. Jertseak ere egiten zituen.

260. Komunio eguneko kontakizuna (ELO-023/017)

Komunio eguna nolakoa izan zen kontatzen du. Aitak orraztu zuen, ama gaixorik zegoelako. Soineko berdea, kandela eskuan...

261. Makillajerik ez, Jabón Chimbo (ELO-023/018)

Ez da sekula makillatu. Xaboiak eta uraz aurpegia garbitu eta aurrera. Ezpainak pintatu ere gutxitan.

262. Debara Andramarietan (ELO-023/019)

Andramarietan Debara joan ohi zen ahizparekin. Ez ziren bainatzen. Hango giroa gustatzen zitzaien. Geroago senarrarekin zezenetara ere joan izan zen.

263. Kolorea, depilazioa (ELO-023/020)

Ez zegoen beltzaran-modarik bere gazte denboran. "Kolore urdiñe" deitzen dio kolore zuriari. Depilatu beharrik ez du izan.

264. Asun-blastioak katarroarentzat (ELO-023/021)

Osasun onekoa izan da. Enplastoak linaziaz eta mostazaz. Katarroa harrapatzen zutenean amak asun-blastioa ematen zien.

265. Kutuna eta eskapularioa (ELO-023/022)

Eskapularioak eta kutuna ipintzen zizkieten. Kutun txikitxo batzuk ziren, umeei gerrian "paxan" ipintzen zitzaizkienak.

266. Erromeriak (ELO-023/024)

18-20 urterekin hazi zen erromerietara joaten, Olakuetara gehienbat. Gero inguruko auzoetara. Urkiolara San Antoniotan behin edo behin.

267. Nazionalak Elorrion sartu ziren eguna (ELO-023/027)

Erreketeak Intxortan; eta milizianoak, berriz, Liorretan (bere baserrian) banketea egiten. Bonbak eta tiroak etxe inguruan. Miliziano gipuzkoar baten aholkua.

268. Elorrion denek antzera euskaraz (ELO-023/032)

Ez du sumatzen diferentzia handirik Elorrion partean. Arrasate eta Elgetan, berriz, apur bat bai. Hika egiten die batzuei. Abadeei zu eta berori. Baina parrokoari ez zaio berorika egitea gustatzen.

269. Aita erretratutik ezagutu zuen (ELO-024/003)

Aita gerran hil zitzaion berak bi urte zituela. Ama bakarrik gelditu zen. Nahiz eta aitaren akordurik izan ez, ezagutu egin zuen bere erretratua ikusi zuenean.

270. Errekan eta hondartzan (ELO-024/004)

Errekara joan ohi ziren arropa garbitzera eta ura ekartzera. Kangrejoak harrapatzera ere bai. Hondartzara behin, koskortuta gero.

271. Umetako okerrak (ELO-024/007)

Gerezi eta sagar lapurretan jarduten zuten, mutiko baten laguntzaz. Zenitako lagun taldearekin ibiltzen zen. Ez zegoen auzoen arteko ezinikusirik. Zoriontsu bizi zen, eta orain ere bai. Ama ere dotore agertzen zen beti, nahiz eta zorigaitz handiak gertatu.

272. Amak emandako egurtua (ELO-024/009)

Behin amak sekulako zapindua eman zion eskobaz, auzotar batek esan ziolako mutil batekin Udalara joan zela erromeria denboran. Gezurra zen.

273. Pagarik ez (ELO-024/010)

Elorriora jaisten zirenean, ez zieten ematen pagarik. Abadiñora edo Durangora joaten zirenean bakarrik. Baina ez zuen horren beharrik.

274. Txirikillan eta dantzan (ELO-024/013)

San Agustinerara joaten ziren txirikillan egitera Garizuman. Dantzara jaiero Elorrioko plazara. Orduan "jaiardi" asko zen, goizean lan eta arratsaldean jai. Asentzioko eta Berrioko erromeriak.

275. Paoka, txopika, andreketan eta kantuan (ELO-024/014)

Paoka, txitoka, andreketan... ibiltzen ziren jolasean. Kantuan egitea gustatu izan zaio. Kantapaperak egoten ziren etxean, feriatik-edo ekarrita.

276. Eskolan eta josten ikasten (ELO-024/015)

Eskolarakoan esnea eramaten zuen etxe batera. Oso maistra gogorra izan zuen, baina erakusten ona. Josten ikasi zuen Durangon. Eskolan ere bai. 17tik 20 urte arte kanporako josi zuen. Eskursiorik-eta ez zuten egiten eskolan.

277. Nobio-kontuak (ELO-024/017)

Erromerietan ezagutzen ziren nobio gaiak. Baserritarrak kaletarrekin ere ezkontzen ziren. Kalean denak euskaldunak ei ziren.

278. Nobiotza labur-laburra (ELO-024/019)

Oso denbora gutxi egin zuten biek nobia gisa. Baina orduan ere hausten ziren nobio bikoteak. Elkarri utzi baino gehiago "pujau", kendu batak besteari. Mariri lagun batekin gertatutakoa

279. Nobioak astean behin elkartu (ELO-024/023)

Normalean astean behin ikusten zuten elkar. Zinera joaten ziren, plazan dantzan ibiltzen edo kalean zehar pasioan. Mari dantzazale handia da.

280. Laztanik-eta ez (ELO-024/024)

Ez zegoen laztan emateko ohiturarik. Bizitzak erakutsi die dakiten guztia. Oso inozoak ziren. Elkarri gauzak kontatuz jakiten zuten gauza intimoen berri.

281. Komedianteak plazan (ELO-024/025)

Komedianteak etortzen ziren Elorrioko plazara eta ikuskizun kutuna zen eurentzat. Marik berpiztu egin zen txakurraren istorioa kontatzen du. Behin belarrondokoa eman zion merezi ez zuen bati.

282. Hilerokoaz eta antisorgailuez informaziorik ez (ELO-024/026)

Hilerokoaz-eta ez zien inork informatzen. Haurrak ez izateko metodoez ere ez. Etortzen zena hartu behar. Baina etortzen zena gogorra izan ohi zen askotan. Bittorik sei ume izan zituen.

283. Neskazahar eta mutilzaharrak (ELO-024/027)

Hobearen bila ibiltzen zirelako geratzen ziren asko neskazahar edo mutilzahar: "On billa-on billa, bonbilla".

284. Ama solterak (ELO-024/030)

Ama solterak baziren banaka batzuk, eta ondo hartuak izaten ziren. Bitxori bera adibide. Osabak egiten zuen haren etxean aita papera.

285. Hospizioko umeak (ELO-024/031)

Asko ziren garai hartan hospizioko umeak. Ume bat hiltzen zenean ekartzen zuten askok, nahiz eta gehiago izan. "Kajatik" ekartzen zirela esaten zen.

286. Ezkontza bitartekariak (ELO-024/033)

Bitartekarien bidez konpontzen ziren ezkontzak baziren, baina ez hainbeste euren denboran. Diruari begiratzen zitzaion.

287. Eliz-deiak edo proklamak (ELO-024/035)

Pulpitutik egiten ziren ezkondu aurreko eliz-deiak. Lehengusu-lehengusinen arteko ezkontzak sarri gertatzen ziren. Batzuek despedidak egiten zituzten eta beste batzuek ez.

288. Mariren ezteguak (ELO-024/036)

Antzinako erakoa izan zen Mariren boda. Familiako baten gurdi-arreoa nola ekarri zuten kontatzen du lehenik, eta bere ezteguak gero. Beltzez jantzita joan ziren biak. Marik berak josi zuen bere arreoa.

289. Ezkontza erretratua (ELO-024/039)

Egunean bertan atera ohi zen, baina inoiz ibilalditik itzuli eta gero ere bai.

290. Zinera gutxitan (ELO-024/040)

Zinera gutxitan joaten ziren. Ez zuten ezagutu zinema muturik. Komedianteak, berriz, sarri ikusten zituzten.

291. Bizikletan Axpe Arrazolako mutilekin (ELO-024/041)

Berrizko erromeriara behin Arrazolako mutil batzuen bizikleta barran joan ziren. Axpe Arrazolako mutilak oso señoritoak omen ziren.

292. Elorrio herri euskalduna (ELO-024/042)

Oso herri euskalduna zen Elorrio. Eurei etxean, eskolatik bueltan "maketoak" deitzen zieten erdara apur bat ikasi zutelako. Lehen etorkin familien pasadizoak.

293. Eskola erdararen bultzatzaile (ELO-024/043)

Berba bat ere ez zekiten erdaraz eskolara joan zirenean. Eskolan ikasi zuten. Zenbait maistraren kontuak. Garai hartan jendea ez zen kanpora joaten erdaraz ikastera.

294. Hika elkarrekin (ELO-024/046)

Elkarrekin eta lagunekin hika beti. Nebari, berriz, Marik, zuka. Seme-alabei, hika. Joanito abadeari zuka. Abadeekiko tratua.

295. Euskaraz diferente leku bakoitzean (ELO-024/048)

Elorrio barruan ez dute diferentziarik nabaritzen baina kanpotik etorritako jendeak desberdin egiten du. Bittori Soraluzen bizi izan zeneko kontuak.

296. Esaera zaharra (ELO-025/001)

Esaera batek ei dio etorriko dela sasoa "Etxea etxearen gainean, taberna tabernaren gainean..., neskak mutilen atzean...", eta etorrita ei dago.

297. Eguzki begitik ainubera ezkondu (ELO-025/004)

Leiz-tik (eguzki-begia) Iguriara (ainubea, laiotza) ezkondu zen . Urikogane (Pastorrena) baserrira.

298. Kantuak (ELO-025/005)

Hainbat kanta abesten du: "Txikitxo polit hori", "Maitia nahi badezu nerekin ezkondu", "Perretxikutan nenbillenien Mendiolako basuan", Arre-arre mandako", "Txikitxo polit hori zer dezu negarrez", "Ai de mi, ai de mi, bostek maitte nau ni", Itxasora noianian, ontzixe kristalezkua", "Ábreme puerta Lola".

299. Aita kantazalea (ELO-025/006)

Aita dantzaria eta kantularia zuen. Artoa zuritzerakoan ere kantuan egiten zuten. Gabonetan ere bai. Orduko Gabonak oraingoak baino alaiagoak ei ziren.

300. Garitxuak kentzen (ELO-025/007)

Gizonak garitxuak kentzen ditu formula bat erabiliz: "zana tiratu, zana tokatu, zana bere lekuan sartu".

301. Gabon-kantak (ELO-025/008)

Hainbat gabon-kanta abesten digu: "Gabon gabian ohittuten dogu", "Erregen-erregen marimontaña", "Gabon-gabonetan, erres-erresetan".

302. Jolas-kantak (ELO-025/011)

"San Blas" edo "Jangoikua lagun" esaten zen doministiku egindakoan. Sokasaltoan erdarazko kantak, Francok euskara debekatu ei zuelako.

303. "Txirrintxon" eta "Potxoka" (ELO-025/012)

"Txirrintxon"(aulki-jokoan) ere ibiltzen ziren. Intxaurrekin "potxoka" nola jolasten den erakusten du.

304. Arrasateko azokara goizean goiz (ELO-025/016)

Igandetan Arrasateko azokara joan ohi zen goizean goiz astoaz. Han seietako meza entzun eta gero jeneroa saltzera.

305. Gabon eta Urtebarri inguruko esaerak (ELO-025/017)

Hagina ateratakoan esaten zena: “Marixe, eutsi zarra ta emun barrixe”. Urtebarri eguneko kanta. "Kutxa bete gari".

306. Eguzkia ordulari (ELO-025/019)

Eguzkiari erreparatuta igartzen zion orduari aitona. Behin nola erratu zen kontatzen digu.

307. Anbotoko Señoria, Sakamantekasa (ELO-025/021)

Anbotoko Señoria ikusten zuten pasatzen. Bataren arabera, burdinara zeraman bizkarrean, bestearenera, berriz, erratza. Sakamantekasekin beldurra sartzen zieten.

308. Gerra osteko ibilerak errotara (ELO-025/022)

Laminen konturik ez du entzun Pantxik. Aita sarri joaten zen Zaldibarrera errotara, gerra ostean, debeku garaian.

309. "Maiuskulua"ren ipuina (ELO-025/023)

Tio Juanek ipuin asko kontatzen zizkien. "Maiuskulua"rena bat. Etorri zen gizon bat etxera eskean, eta pernila eman zioten. "Maiuskulua" zen, nonbait, eskalea.

310. Lo ondo egiteko Purgatorioko animei otoitza (ELO-025/025)

Purgatorioko animei Aitagure bat errezatu behar zaie lo ondo egiteko, senarraren arabera.

311. San Blas koroa, kutuna (ELO-025/027)

Ohitura dago San Blasetan Abadiñon bedeinkatutako koroatxoak etxera ekarri eta handik zortzi egunera erretzeko. Kutuna ezagutu du txikitan. Arropan josten zitzaaien umeei.

312. Txakur-amorruaren erremedioa (ELO-025/029)

Mun ematen zaio ogiari ebaki aurretik. Gabon gaueko ogi koskorra gorde egiten da eta animalia bati ematen zaio sikatutakoan. Txakurrak amorratu ez daitezen omen. Urtebete gordetzen ei zen.

313. Dantzara Berrizera (ELO-025/031)

Dantzara Berrizera joaten ziren gehiago Elorriora baino. `Intxuzabal´ ('Elgeta') soinujolea ezagutu zuen.

314. Hospizioko umeak (ELO-025/033)

Lehen hospizioak beteta ei zeuden. Zer edo zer egiten zen seinale. Abadeek ere izaten zituzten inoiz umeak.

315. Erromeriak eta gonbidautzak (ELO-025/034)

San Lorentzo, San Balandran (esistitzen ez den santua), Argiñeta... erromeria lekuak izendatzen ditu banan-banan. Gonbidautzak egiten ziren jaietan.

316. Soinujoleak (ELO-025/036)

Felix Aranzabal, Angiozarko Itxua, soinujolearen kontuak. Zer afaltzen zuen. Soinujolea eta kantaria. Txokolo eta beste batzuk.

317. Barkilleroak (ELO-025/037)

Barkilleroak eta errokilleroak egoten ziren erromerietan. Igurian bazen errokilleroa. Barkilleroen tranpak.

318. Erromeriak (ELO-025/038)

Mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantza egiteagatik. Lehen-lehen ez. Leitzeko San Lorentzo beti izan da erromeria-leku ona. Kantariak eta bertsolariak ere ekartzen ziren. Dantzazale amorratua izan da Pantxi, aita bezala.

319. Zer hobe, ume asko ala bat ere ez? (ELO-025/041)

Pantxi ez du umerik izan, baina amak esaten zion ez zekiela zer zen hobe, hamabost hilabete behin umea izatea ala batere ez izatea. Apaizarekin izandako gorabeherak.

320. Donialatxa, erromeria-lekuetako arbola (ELO-025/042)

"Donialatxa", (zuhaitza) jartzen zen erromeria lekuetan. Puntan loreak-eta ipintzen zaizkie.

321. San Juan eguneko erritoak (ELO-025/044)

San Juan sua piztuta dagoenean kantatzen dutena Elorrion. Eibarko kanta erreztatuta. Ira berezi bat hartu eta lehortu egiten da egun horretarako: "san juan ida". Ortozik joan zen behin Pantxi san Juan ermitara goizeko iruntzaz, bozioa sendatzeko. Ura Pazko Zapatuz bedeinkatzen zen eta maiatzaren 3an botatzen. San Joan egunez elorri zuria edo lizarra ipintzen zen atean.

322. Inuzente Eguneko esaerak (ELO-025/046)

"Iñuzentien ogixe jauna misekikordixe". "Iñuzente, potente, txakurrak buztana tente".

323. Gernikako Batzarretan erdaraz (ELO-025/048)

Aitajaunari entzundako kontu interesgarria: Zaldibarko ordezkariak Gernikako batzarretan botatako erdarakadak. Konjuruari eta trenari buruzko esaerak. Erdarazko beste bat.

324. Zigorra euskaraz egiten bazuten (ELO-025/049)

Erdaraz eskola guztia. Zigorra euskaraz eginez gero. Leku askotatik etortzen ziren Leitzeko auzo-eskolara.

325. Euskaraz diferente Leitzen eta kalean (ELO-025/050)

Bukaera -e euren auzoan (ogixe), eta -a (ogixa), ostera, kalean. Zenbait berba ere diferente. Durangora ez du diferentzia handirik ikusten, baina Markina, Eibar... asko.

326. Fantasmak bidera irten (ELO-026/002)

Domingaren gurasoei, boda batetik zetozela, norbait irten zitzaien mamuz jantzita, kate eta guzti. Jendea izutzen ibiltzen zirenak ziren, baina, Eibarko armak agertu zirenean denak ezkutatu ei ziren.

327. Eskolan nazionaletan (ELO-026/003)

Elorrion ibili zen eskolan. Joan zen lehen egunean maistrak esan zien etxera bueltatzeko, baina berak ez zuen erdararik ulertzen eta geratu egin zen. Dena erdaraz.

328. San Agustinen komertzio bakarra (ELO-026/006)

Tabernan jateko gauzak saltzen zituzten. Tabernari batek gurdiaz Gatzagatik gatza ekartzen zuen. Ez zen errementaririk. Dena baserria zen San Agustin.

329. Ortulari, jostun baino lehen (ELO-026/007)

Elorrion ikasi zuen josten, hogeitau urte beteta gero. Aurretik baserrian lanean eta kalean jeneroa saltzen. Astoen istorioak.

330. Gerra denborako oroitzapenak (ELO-026/008)

Gerra garaian, kuartelera eramaten zuen esnea. Soldadu batek helbidea eskatu zion behin; ez zion eman; baina, hala ere, haren gutuna jaso zuen.

331. Jostun erakuslea (ELO-026/009)

Jostun-erakuslearen ikasle kutuna izan zen. Gero bere kontura ikasi zuen. Ama ere joslea zuen, etxerik etxe ibiltzen zena. Bera ere bi urtez ibilia da horrela.

332. Etxerik etxe josten (ELO-026/010)

Etxerik etxe ibilia da, kalean zein baserrietan. Normalean etxera bueltatzen zen gauean. Makina eroaten zuen ez zegoen lekuetara. Baserri batean "ogi urdiñaz" gertatutakoa.

333. Bonbardaketaren erdian (ELO-026/011)

Behin, bombardaketaren erdian egon zen Elorrioko kalean, tabakoa erostera joanda. Eliza ondoko babeslekuan ezkutatu zen, lehenik, eta kanpandorreen gero.

334. Portugaleteraino oinez (ELO-026/014)

Gerratik ihesi, Portugaleteraino joan ziren osaba, bera, ahizpa bat eta neba soldadua, behi, gurdi eta guzti. Esnea saltzen zuen han ere. Buelta ere oinez. Gurasoak eta ahizpa bi etxean geratu ziren.

335. Neba soldadua garia ereitera (ELO-026/015)

Neba soldadua baimenarekin etorri zen garia ereitera gerra denboran; baina 15 egunez euria egin zuen, eta eginkizuna bete barik itzuli zen. Gero berak goldaketak egin zituen eta garia hartu zuten.

336. Oihal klaseak (ELO-026/016)

Kotoia, seta, lana, perkala... Perkala zen tergalaren aurretikoa: alkandorak, marinerak eta abar egiteko erabiltzen zen. Mauna ere erabiltzen zen. Nylona gero.

337. Josten erakusten: ilbandu (ELO-026/018)

Ilbantzen, makinan josten, patriiak egiten..., denetik erakutsi izan du. Gertakizun barregarria. Korteak.

338. Neurriak hartzen (ELO-026/019)

Neurriak nola hartzen diren kontatzen du. Bakoitza diferentea da eta neurriak ondo hartu behar dira.

339. Seminaristaren trajea; lutoa (ELO-026/020)

Gizonendako ere josi izan du. Behin abadegai bati egin zion, baina poltsikoa jostea ahaztu. Lutorako, buruko eta lepoko mantillak jartzen ziren lehenengo. Arropa tindatu egiten zen.

340. Josteko makinak (ELO-026/021)

Eskuaz eragiteko makina izan zuen lehenengoak. Singer marka. Oraingoak 30 bat urte izango ditu. Lehengo makinak hobeak. Oraingoa ere Singer.

341. Ordaintzea "ahaztu" zenbaiti (ELO-026/022)

Oihala bakoitzak ekartzen du jeneralean. Inoiz izan ditu arazoak kobratzeko. Baina ez jendeari ahaztu egiten zaiolako. Pasadizoa. Pare bat pezeta kobratzen zuen praka pare bategatik edo alkandora bategatik.

342. Berandutzearen protestak (ELO-026/024)

Asko atzeratzeagatik izaten ziren protesta bakarrak. Baina bodakorik ez zuen inoiz utzi garaiz bukatu gabe. Auzokoei eta alabei eskatzen zien laguntza lanpetuta zebilenean.

343. Jantzi berriak estrenatzeko egunak (ELO-026/025)

Aste Santuan estreinatzen ziren normalean arropak. Lorik egin barik ibiltzen zen sasoi horretan. Gau guztia josten. Biharamun batez, Valentziaraino lotan joan zen autoan.

344. Modak (ELO-026/026)

Moda asko ezagutu du; denak pasatzen ei dira. Koloreak, denerakoak. Beltza ere asko erabiltzen zen emakumeen ezkontza-jantzietan.

345. Eskotea, azpiko arropa, kortseak... (ELO-026/027)

Eskotea erabiliz gero, "komunioa emun barik igual itxi". "Kankana" erabili ohi zen azpikogonaren gainetik. Faja edo kortsea ere bai gorputza altxatzeko. Bilbon bazen kortseteria bat fama handikoa. Bueloa, doble kanpana...

346. Apaingarriak: kuelloa, puntilla... (ELO-026/028)

Kuelloa dotorea izatea zen inportantea. Puntilla ere egin izan du.

347. Sits-bolak (ELO-026/029)

Sits-bolak ipintzen dira sitsak arropa jan ez dezan, luzaroan egon behar bada, behintzat.

348. Komunioetarako eta bodetako arropa (ELO-026/030)

Komunioetarako marinel jantziak eta horrelakoak jeneralean. Bodetarako emakumeek beltza askotan. Jende askok ditu gogoko berak jositakoak. Utzitako arropa ere erabili ohi zen bodetan.

349. Jostuntzaren beherakada (ELO-026/032)

Berak beti izan du nahikoa lan. Dendetan arropa ugaritu zenean hasi zen jostuntzaren beherakada.

350. Orain konpondu gehiago egin baino (ELO-026/034)

Bietara egiten du, baina konpondu gehiago egin baino. Kanporako lana egiten jarraitzen du. Setazko alkandora egin berri bat erakusten digu. Muestrariora eta azkenaldian egindako lanak -konponketak- erakusten dizkigu.

351. Bonbardaketak Elorrion (ELO-027/002)

Plazan jaio zen, batzokiaren gainean. Gerra denboran, Durangora joan ziren bizitzera, bonben beldurrez. Aitak bizikleta-denda bat zuen han, eta bertan instalatu ziren.

352. Mendatako baserri batera (ELO-027/004)

Gernikako bonbardaketa gertatu zenean, Mendatako Sarrabenta baserrian zegoen familiarekin. Intxortako atzera-egitea ere ikusi ahal izan zuten. Etxeko sukaldean eduki zituzten handik ihesi zetozen elorriar soldaduak.

353. Gernikako bonbardaketa (ELO-027/005)

Gernika hurbil egon arren, ez zuten ikusi bonbardaketa. Abioien zarata entzun eta suaren argitasuna ikusi, bai.

354. Kantu eta sinbolo frankistak eskolan (ELO-027/007)

Eskolak itxita ego ziren gerra denboran. Herria Gipuzkoako iheslariz beteta egon zen. Elorriok suertea izan ei zuen, ez zen asko apurtu gerraren ondorioz. 38an ireki ziren berriz eskolak. Banderari agurrak, kantu frankistak...

355. Arbola artean futbolean (ELO-027/008)

Pilota gogoko zuen, baina eskuak mintzen zitzaizkion. Arboladi baten jokatzen zuten futbolean gomazko baloiaz.

356. Elorrioko futbol taldea eta Atletixa (ELO-027/009)

Gogoan du mutikotan nola joaten zen futbol zelaira Elorrioko taldea ikustera. Atletiko futbolariak ere gogoan ditu: Iralagorri, Gorostiza, Blasko atezaina...

357. Deustuko ikastetxean futbolean (ELO-027/010)

Deustuko Salesianoetan ikasi zuen eta han asko jokatzen zen futbolean. Ezkerretik jokatzen du, "extremo izquierdo". Futbolista onak zeuden ikastetxean.

358. Zornotzan eta Bergaran jokalarari (ELO-027/011)

Zornotzako ekipoan sartu zen 19 urterekin, eta handik Bergarako Or Konpon taldera joan zen beste bi elorriarrekin batera. Gero Alaveseko begiratzaileak segika. Bergaran oso ondo hartzen zituzten, jende oso jatorra.

359. Bergararik Alavesera (ELO-027/012)

Alaves taldera joateko gonbita egin zioten, baina Bergaran oso gustura zegoenez, ez zion ilusio handirik egiten. Negoziazioak presidentearekin. Soldadutza egin behar zuen Gasteizen eta ondo etorri zitzaion aldaketa. Diru apur bat ere irabazten zuen.

360. Bergarak Eibarri irabazi zionekoa (ELO-027/013)

Eibar zen ekiporik onena erregionalean. Apustu dirua Eibarren alde zoro zegoen batean, berdindu egin zuten. Berak sartu zuen gola. Ia ito zuten lagunek. Hori dela eta, diru-sari polita jaso zuten.

361. Gasteiz eta Irungo publikoak, txarrak (ELO-027/014)

Gasteizko publikoa txarra zen, irain asko. Irungoa txarragoa oraindik. Andre nagusiak ere tarteko. Bermeokoa ere nola-halako. Han behin gertatutakoa kontatzen du.

362. Prestatzaile fisiko ona Bergaran (ELO-027/015)

Janari normala. Bergaran oso entrenatzaile ona izan zuten. Astean behin entrenamendua Bergaran, bitan Gasteizen. Prestatzaile horrek oso metodo aurreratuak erabiltzen zituen.

363. Oraingo futbola teknikoagoa (ELO-027/017)

Lehen defentsek ostikada batez urruntzen zuten baloia. Berari futbol teknikoagoa gustatzen zaio. Atletiari buruzko iritziak.

364. Baloiak eta futbol-zelaiak (ELO-027/018)

Orduko baloiak nolakoak ziren azaltzen du. Pitorroa buruaz joz gero min hartzen zen. Neguan lokatza, eta uda aldera gogorregia zorua. Zelai onak: Eibar, Azkoitia... Gasteizkoa txarra, lei handiak egiten zituelako.

365. Osaba batek nola igartzen zion eguraldiari (ELO-027/019)

Eguraldiaz ez ei daki gehiegi, baina osaba batek bai. Osabak nola igartzen zion kontatzen digu.

366. "Axe gorrixa" eta "axe-frantsesa" (ELO-027/020)

Ez du tenpora kontuan ulertzen. Eguraldiaren gainean ez ei daki. Intxortara joaten zen zapaturu. Behin Berrioko artzain bati "axe gorrixa" (haize gorria) entzun zion; berak "axe frantsesa" deitu zion haize hotz hari.

367. Zuhaitzen hazkuntzaz (ELO-027/021)

Soldadutza topografia sailean egin zuen, eta zenbait gauza ikasi zuen. Zuhaitz enborren zirkuluetan igartzen ei da zein alde egon den ipar aldera begira.

368. Urixolak (uholdeak) (ELO-027/024)

Bi edo hiru "urixola" ezagutu ditu; bata aspaldi, abuztuan, ikaragarria. Elorrioko plazan metro beteko ura. Kalte handiak egin zituen.

369. Gaztetako igerilekuak (ELO-027/025)

Oso erreka zalea zen gaztetan. Apatara joaten ziren bizikletan igeri egitera. Orduan ere euri handiak egiten zituen inoiz. Harriekin estaltzen zituzten arropak.

370. Kangrejotan eta ezkailutan (ELO-027/026)

Zakua bete kangrejo harrapatu zutenekoa. Amuarrainetan eta ezkailutan ez du egin. Loinak ere baziren errekan.

371. Fabrikan sartu ez izanaren pena (ELO-028/002)

Lau ahizpetarik nagusia. Amak lau alaba izan zituen bost urtean eta gazterik alargundu zen. Baserriko lanetan eman du bizitza. Garai hartan lantegian sartzeko bidea zegoen eta dino beharbada hobe izango zuela hala egin izan balu.

372. 18 urterekin ezkondu gogoz kontra (ELO-028/003)

Etxeko maiorazkoa zenez, erdi behartuta ezkondu zen oso gazterik. Berari dantza gustatzen zitzaion. Ezkondu eta gero ere izan du dantzarako aukera inguruko erromerietan.

373. Sukaldea eta argia (ELO-028/004)

Ogia egiteko labea eta beheko sua ezagutu ditu sukaldean. Argia betidanik izan dute, lau bonbilla. Eurek kobratzen zuten argia auzoan.

374. Morokila (ELO-028/005)

Bakoitzak bere plateretik jaten zuen, baina morokila, ostera, galdaratik. Azukre barik.

375. Etxeko ardura bere gain (ELO-028/007)

Amak modu atseginez ematen zituen aginduak. Tajadatxo bat jatea gustatzen zitzaion eta Alejandra arineketan joaten zen erostera. Alejandrak hartu zuen etxeko ardura.

376. Erregetan gauza gutxi (ELO-028/008)

Gabonetan, txokolate tabletaren bat edo "gauza hustxoren bat" ekartzen zieten bakarrik Erregeek.

377. Erromeria: arbola, barkilleroa... (ELO-028/012)

Txopoa ("donialatxa" esaten diote askok Elorrion) erromeria-leku guztietan egoten zen. Puntan gauzak ipinita izaten zituen eta mutilak igo eta hartu egiten zituzten. Fidel barkilleroaren kontuak.

378. Dantzari onak begiko (ELO-028/013)

Guapoa izateak ere bazuen inportantzia neskentzat, etxauna edo erreteroa izateak ere bai, baina berarentzat batez ere dantzari ona izateak. Runba, baltsa, pasodoblea... zituen gogoko, ez hainbeste tangoa.

379. Pieza bakarra kalabazaren ordeztan (ELO-028/014)

Arantzazura joan ziren behin kamioian soinujolearekin. Kalabaza eman beharrean pieza bakar bat egiten zuten gustuko ez zituzten mutilekin, "trankil itxi eta onian" geratzeko.

380. Abadeen aldetik oztopo handirik ez dantza kontuan (ELO-028/017)

Berak ez du ezagutu kontrol gehiegirik abadeen aldetik dantza kontuan. Hori bai, don Castorrek arrosario denboran txaloak jo eta dantzariak elizara erakartzen zituen. Larruzko abarrek egiten zuten dantza.

381. Ama inude Gasteizera etxean lau ume utzita (ELO-028/018)

Laugarren ahizpa jaio zenean, ama "aiña", inude, joan zen Gasteizera. Jaio berria lehengusina batek hazi zuen. Bi ume hazi zituen amak Gasteizen. Harremanari eusten diote oraindik.

382. Aitak basoa leihotik kanpora bota (ELO-028/020)

Aitari ernegatu eragin zioten batean, honek basoa hartu eta leihotik bota zuen burdin hesi bitartetik. Osorik ekarri zuen bueltan Alejandrak.

383. Nobio-kontuak (ELO-028/021)

Arantzazuko bidaian ezagutu zuen senargaia. Bi urtez ibili zen berarekin eta 18 urtegar ezkondu. Kafea behin bakarrik hartu zuten. Musuren bat, beste "amistaderik" ez.

384. Nobioen familia-aurkezpena eta dotea (ELO-028/022)

Familia biek "alkar juntau" ziren nobioak. Gizonak hiru mila pezeta ekarri zuen dotea. Ezkon-bidaia egin zuten harekin.

385. Umeak ez izateko neurriak ez (ELO-028/023)

Ez zen antikonzeptzio neurriak hartzen. Hamar seme-alabako familia asko zegoen auzoan.

386. Auzoan elkarri lagundu (ELO-028/025)

Auzoan elkarri laguntzen zioten ira ebaten eta abar. Baserriko lan asko egitea tokatu zitzaion.

387. Ira-gurdia irauli kalean (ELO-028/026)

Kanpazar aldean zuten baso bat. Iratan gertatutako pasadizoak kontaktzen ditu. Behin, gurdikadaz etxera zetorrela, irauli egin zitzaion guardia zibilen kuartelaren aurrean.

388. Segaz, basoan zein zelaian (ELO-028/028)

Ira ebaten egiten zuen, belarra ebakitzen ere bai. Askotan, berak ekiten zion sailari eta gizonak jarraitu.

389. Bakarrik uztarria lotzen eta satsak ateratzen (ELO-028/029)

Behin baino gehiagotan idiak berak bakarrik lotzen zituen, umeak inguruan zituela. Bost gurdikada sats atera zituen behin, umeak erromaran lagata.

390. Bataioa (ELO-028/031)

Umea jaio eta hiru egunera-edo egiten zen bataioa. Jaki ugari egoten zen baserrian. Gurasoek erabakitzen zuten aita-ama pontekoak nor izan eta izena.

391. Bikien haurgintza gorabeheratsua (ELO-028/032)

Aurretik ez zekien bikiak zetozkionik. Lehenengoa jaio zenean emaginak esan zion beste bat ere bazuela, baina joan beharra zuela bere arrandegia atenditzera. Arraina ekarri eta erre egin zuten eta arrain-usain itzela zegoen etxean bigarrena jaio zenean. Bizimodu gogorregia izan ei du.

392. Bataioaren ingurukoak (ELO-029/001)

Behin etxean egin zuten bataio-bazkaria lehengusinak prestatuta. Arrosaz edo zuriz janzen ziren neskak, zuriz edo urdinez mutilak. Auzoko andreek bisitatzen zuten ama berria, baina bisita horrek ez zuen izen berezirik.

393. "Mokotza", aita-ama pontekoen oparia (ELO-029/002)

Aita-ama pontekoek Pazko Egunean "mokotza" oparitu ohi zieten besoetakoei. Ogiari txorizo zati bat sartu, hiru arrautza ipini, labean erre..., hori da mokotza.

394. Euskaraz egiteagatik zigortuta (ELO-029/004)

Señorita Rosariok ez zieten euskaraz egiten uzten, eta berak ez zekien berba bat ere erdaraz. Zigortu egiten zituen. Leitzeko maisu-maistrak ere oso gogorak ziren, eta Elorriokoak ere bai. Erregelaz hatz puntetan jo eta horrelakoak.

395. Arrasatera astoaz tratuarekin (ELO-029/007)

Arrautza-dozena baten diruaz kilo bat tajada erosten zuten. Arrasatera ere joaten zen tratuaz astoarekin. Bueltan Kanpazarren tripaki kazuelatxo bat jaten zuten salmenta ona izandakoan.

396. Erdaraz egin behar eta ezin (ELO-029/008)

"Maketo" berba berak ez, baina senarrak erabiltzen zuen. Askotan gertatu zaio erdaraz egin beharra eta jakin ez. Keinuekin ulertu behar. Orain ere ez omen daki gehiegi.

397. Jokoan eguenero (ELO-029/009)

Gaztetatik eguenero jaitsi izan da kalera lagunekin jokoan egitera, Zirkulura. Kulepean batez ere, baina briskan ere bai. Batzuetan galdu eta besteetan irabazi. Galtzen jakin behar ei da. Diru apur bat beti jokatzen dute.

398. Briskan (ELO-029/010)

Briskan oso inportantea da igartzea zer karta pasatu den eta besteak zer eduki lezakeen. Gazetako txapelketa irabazita dago. Keinuak pasatzea eta harrapatzea ere inportantea da.

399. Loa galduta (ELO-029/011)

Musean ez du ikasi. Kulepean jokatzen zuten astero. Egun hura libre hartzeko, goizez edo gauez egin zituen inoiz etxeko lanak. Loa galduta ere ibili zen sasoi batean.

400. Elorrioko euskara galtzera ei doa (ELO-029/013)

Gipuzkoa aldeko euskara oso ezberdina. Euskara batuaren eraginez bertako euskara galdu egin daiteke. Hizkuntzarekin ulermen arazoak ditu gero eta gehiago.

401. Errebonbilloak (ELO-030/007)

Bost anaik hartu zuten parte behin Errebonbilloen antzezpenean. Lehen ehiza-eskopetekin egiten zen, baina uso denboran izaten zenez, arazoak sortzen ziren. Errebonbilloen jatorriaz bi bertsio.

402. Gerra hasieran, aita eta bi anaia atxilotu (ELO-030/009)

Karlistak ziren eta aita eta bi anaia atxilotuta eraman zituzten. Asko sufritu zuten etxean. Kartzelara bisitak.

403. Bonbardaketak Elorrion (ELO-030/010)

Obus batek Tetuan tabernako andrea hil zuen; geroago, abioi-bonba batek moja bat. Egun horretako arratsaldean bonbardaketa berriz. Hildakoen izenak.

404. "Nazionalak" Elorrion (ELO-030/011)

Elorrion arriskuan zeudela eta, Berriozabaletara joan ziren. "Nazionalak" sartu zirenean, Legerion geratu ziren lehenengo egunean. Mola jenerala ikusi zuten. Besaidetik sartu ziren.

405. 7 karlista fusilatu (ELO-030/012)

Elorrioko zazpi karlista fusilatu zituzten. Frontean, berak dakienez, 3 gudari hil ziren.

406. Errotara bizikletan (ELO-030/013)

Errazionamendu gogorra gose denboran, baina baserria zutenez, ondo moldatzen ziren. Durangora eta Abadiñara gauez bizikletan zorroarekin errotara.

407. Futbolista kasualitatez (ELO-030/014)

Lagun bati laguntzera joan Amorebietara eta bera ere fitxatu zuten. Gero Bergaran lau denboraldi egin zituen. Realak ere probatu zuen. Haron jokatzeko aukera ere izan zuen. Azkenik, Elorrioren egin zituen lau urte.

408. Bergarara entrenamenduetara bizikletan (ELO-030/015)

Behin baino gehiagotan joan zen Bergarara entrenamendura bizikletan, Elgeta gaituta. Errekan "dutxatzen" ziren. Bergara heltzeko komeriak.

409. Publikoa, arbitroak eta jokalariek (ELO-030/016)

Jende asko futbolera. Deban behin istilu ikaragarria sortu zen arbitroarekin. Mondragoetarrak eta elgoibartarrak jokari gogorrenak. "Delantero centro" zen bera.

410. "Maletina" (ELO-030/017)

Eibarrek 400 pezeta eskaini zizkien bakoitzari Tolosan irabaztearren. Berdindu, eta 200 duro eta bazkaria jaso zituzten. Beste behin, Eibarren berdindu zuten, eta orduan ere sari berezia izan zuten.

411. Sarrailagintzan (ELO-030/018)

Autoen sarrailagintzan jardun du batik bat lanean, administrazioan. Girón, falangeko burua eta lan-ministroa bisitan etorri zen Elorriora, eta pena du hartaz baliatu ez izana, materiala lortzeko kupo estua baitzegoen orduan. Estraperlistak.

412. Soldata eta lan-egutegia (ELO-030/019)

Gogoratzen du ezkondu zen urtean (1952) 700 pezeta irabazten zuela hilean. Asteaz sei egunez egiten zen lan. Zenbait egun berezitan arratsaldea jai hartzen zen, baina gero errekuperatu egin behar. "Sábado inglés".

413. Elorrioko alkate (ELO-030/021)

Erdi behartuta egin zuten alkate. Gobernadore zibilak izendatu zuen. Kapitain batek aholkatu ei zion hari. Eskolak aurrera ateratzea zen bere helburu nagusia. Futbol-zelaia.

414. Udalaren funtzionamendua (ELO-030/022)

"Tercio"ka izendatzen ziren zinegotziak: tercio sindical, familiar... Uste du bederatzi edo hamabi zirela. Permanentea hilero biltzen zen eta plenoa hiru hilabeteko. 8-9 langile zituen udalak.

415. Trenaren arazoa (ELO-030/023)

Eskola, futbol-zelaia, telefonika, trena..., bere agintaldiko lehentasunak. Trenarekin izandako arazoak eta negoziazioak.

416. Teknikariek aholkatu bai, agindu ez (ELO-030/025)

Normala da idazkariak edo arkitektoak aginpidea izatea, bere arloan gehien dakitenak izaten direlako. Baina agintzea beste gauza bat ei da. Talde ona izan du.

417. Proposamen "deshonestoak" (ELO-030/026)

Behin, etxegile bat etorri zitzaion eskupekoa aginduz. Ez zituen horrelakoak onartzen. Umorez dio kartzelan egon zitekeela bestela.

418. Nola aberastu zen Elorrio (ELO-030/028)

Diotenez, lantzak-eta egiten ziren Elorrioren. Sevillara eta Ameriketara eraman, eta horrela egin zuten dirua. Horregatik hainbeste etxe dotore.

419. Udal-aurrekontuak (ELO-030/031)

Ahal den lekutik ateratzen zen dirua. %60 inguru soldatek eramaten zuten. Orduan ez zegoen udalaren erabakiak babesten zituen goiko legerik. "Plusvaliaren legea".

420. Erakundeetatik laguntasunik ez (ELO-030/032)

Gobernadoreak ez zuen muturrik sartzen eta Diputazioak laguntasun gutxi ematen zuen. Mila pezeta kobratzen zuen soldata, "por gastos de representación".

421. Kontrol baten hildako herritarra (ELO-030/033)

Behin elorriar bat hil zuen guardia zibilak kontrol batean. Ezin izan zuen hiletara joan, eta kritikak jaso zituen zenbaiten aldetik.

422. Ikurrina (ELO-030/034)

Ikurrina ipintzearekin ez zen problemarik egon. Dimititzeko eskatu zioten, baina berak hitza emanda zuen erreleboa etorri arte bere eginkizuna beteko zuela.

423. Bizkartzainei uko (ELO-030/035)

Eskaini zioten, baina ez zuen bizkartzainik nahi izan. Pare bat aldiz izan zituen susmo txarrak. Iñaki Etxabe hil zutenekoa.

424. Alkate erreleboa (ELO-030/036)

Samurra izan zen udaleko erreleboa. Makila eta giltza ziren sinboloak. Bere laguntza eskaini zion hurrengoari.

425. Kontzientzia garbi (ELO-030/038)

Trankil sentitzen da egindakoaz. Dena dela, berriz ez luke kargu hori hartuko, nahiz eta gaur egun soldata eta ekipo onak egon. Familia atenditu ezin izanak negargura ematen dio oraindik ere.

426. Arineketan eskola barruan (ELO-030/040)

Eskolan erdaraz, eta dotrina euskaraz. Biderketa-taula arineketan ikasten zuten, berotze aldera.

427. Elorrioren denek euskaraz (ELO-030/041)

Egongo ziren nonbait debekuak, baina Elorrioren beti euskaraz egin izan dute. Lagun artean eta anai-arrebei hika. Baserriko mutikoen janzkeraz eta bazkariaz. Arabara euskaraz ikastera bere denboran ez, baina entzutea badu.

428. Kale-baserriak (ELO-030/042)

Kale-baserriak ziren asko Elorrion. Behi bat zuten eurek. Pernila gordetzeko harrizko arka.

429. Sukaldea, ura (ELO-031/002)

Beheko sua zegoen sukaldean, tximiniarik gabekoa. Babak jaten ia urte guztian. Ur korronterik ez zegoen, iturritik edo errekatik ekartzen zuten ura.

430. Aita bertsolaria (ELO-031/004)

Aita berezko bertsolaria ei zen. Pena ei zuen seme bertsolaririk ez zitzaiolako irten. Gutxi, baina auzoetan-eta jardun zuen.

431. Familia osoa ia fusilatu egin zuten eguna (ELO-031/005)

Baserria frontetik hurbil zegoen. Galdutako bi soldadu "nazional" hartu zituzten etxean. Bergarara pasatu nahi zuten. Baina errepublikanoek jakin, etxera etorri eta kolaboratzailetzat hartuta, ia fusilatu egin zituzten. Etxe aurrean familia guztia bildu, eta denak hiltzeko mehatxua egin zieten, egia esaten ez bazuten. Ordurako bi soldaduak alde eginak ziren. Laster harrapatu zituzten kainu-zulo batean. Pasarte hunkigarria, antologikoa.

432. Soldadu atxilotzaileak eta atxilotuak amak gertatutako afaria jan (ELO-031/006)

Francoren armadako bi soldaduak atxilotu eta berehala, oilategi batean ezkutatuta zeuden beste bi ere harrapatu zituzten. Atxilotzaileak eta atxilotuak, amak prestaturiko bazkaria jan ondoren, Kanpanzarrera joan ziren. Ez daki gero zer gertatu zen. Elorrioko kanposantuan fusilatu ote zituzten entzun zuen.

433. Elorrioko lehen kanoikada (ELO-031/007)

"Run-run" esaten zioten abioi bat ibiltzen zen begiratzen. Etxetik ikusi zuen Elorriona botatako lehen kanoikada, emakume bat hil zuena, obusa lehertu ez arren.

434. Hamabi bonba Gazetan (ELO-031/008)

Behin dozena bat bonba bota zituzten Gazetan: Klaudioren aitita hil zuten, soloan satsa zabaltzen ziharduela. Paperak botatzen zituzten abioitik. Babeslekuak.

435. Morteroak botatzen (ELO-031/009)

Bi anaia gudari joan ziren. Behin morteroa bota zuten Kanpazartik eta Angiozarko elizan sartu. Erantzuna gogorragoa izan zen.

436. Belar klase diferenteak eta pentsua (ELO-031/012)

Sekula belarra, frantses belarra, alfalfa, ailorbea eta abar ereiten zuten. Ailorbeak gustu txarra ematen dio okelari. Baba beltza, erremolatxa, arto-irina...

437. Laboreak: oloa, garagarra, zekalea (ELO-031/014)

Oloa ereiten zen, baina gutxi. Garagarrik ez. Zekalea bai noiz edo noiz.

438. Gari ereiten I (ELO-031/015)

Azaro inguruan lantzen zen lurra, eta hil horretan edo hurrengoan erein. Euri asko egiten zuenean arazoak izaten ziren. Laiaz lurra landu zutenekoa.

439. Gariak lur sikuak maite (ELO-031/017)

Artoak ez, baina gariak lur lehorrak eta arinak maite ditu. Miota aldea ei da ona.

440. Gari ereiten II (ELO-031/018)

Lurra landu ondoren "azatzak" (markak) egiten dira "danian bardin antzian botatzeko", eta gero hesia pasatu.

441. Garia erne eta hazi (ELO-031/020)

Garia Gabonak aldera erne ohi da. Ez ei da jorratzen, belar txarrak kendu bakarrik. Inoiz ikutuxoren bat ematen zaio azaletik.

442. Gari ebakitzen (ELO-031/021)

San Pedro ingururako (ekain amaiera) etorri ohi da garia. Eguzki begietan lehenago ainubean baino. Igitaiak ebaki, lotu eta mutxurrak egiten ziren. "Kopetan" tolestu ere bai ez bustitzeko.

443. Gari-jotzen I (ELO-031/022)

Ohol edo harri baten gainean jotzen zen garia. Geroago, "matxakia" deitzen zioten makina motordun batez. Boda bat bezala izaten zen azken aldera, jende mordoa biltzen zen.

444. Gari-jotzen II (ELO-031/024)

Antzina etxe bakoitzak berea jotzen zuen poliki-poliki. Makinak etorri zirenean festa eguna bezala izaten zen. Lan zikina. Hamar minutuko txandak egiten ziren makinan, kafe asko hartzen zen, eta gero lorik ezin egin.

445. Garia gorde (ELO-031/026)

Garia makina batez garbitu eta arketan (kutxa handiak) gordetzen zen.

446. Gaez errotara zorroarekin (ELO-031/027)

Bi auzo-errota zeuden Gazetan. Gerra ostean prezintatu egin zituzten. Durangora, Angiozarrera, Elgetara... joan behar izaten zuten gaez. Gari ona eraman eta irin txarra ekartzen zuten bueltan askotan. Auzo-errotak zirenez, bakoitzak eguna zeukan izendatuta. Ur faltarik ez zen izaten.

447. Artoa ereiten (ELO-031/028)

Arto-lur onak ziren. Lur sakonegia ez ei da ona. Bertako artoa erabiltzen zuten. "Kanpo-artoa" ez zitzaien gustatzen. Alerik onenak gordetzen ziren hazitarako. Bariku Santu Egunaren inguruan ereiten zen.

448. Ganajaterako arto galiña eta lizar hostoa (ELO-031/029)

"Galiña" esaten diete burutik gorakoari. Ganajatekotarako erabiltzen zen. Lizar-hosto lehorra ere ematen zitzaien sikute urteetan.

449. Arta zuriketa (ELO-031/030)

Artoa apurka-apurka zuritzen zen, arrosarioa errezatuz. Bai mutikotan eta bai geroago ere.

450. Idiak (ELO-032/001)

Idiak izan dituzte beharrerako. Behiak ere uztartzen zituzten zenbait lanetarako. Iratara beti idiekin.

451. Gurdiak eta gurdi-frenoak (ELO-032/002)

Gurdi ona izatea inportantea zen. Handiak eta astunak onenak, arinak erraz iraultzen direlako. Gomazko gurpildunak arriskutsuak ziren zenbait lekutan. Freno ezberdinak.

452. Gurdi motza edo burzaldixa eta abar (ELO-032/003)

"Burzaldixa" enborrak garraiatzeko erabiltzen zen, gainean enborra lotu eta narras ekartzeko. Gurdi normalari, berriz, zumitzezko kartolak ipintzen zitzaizkion satsetarako eta.

453. Behi arraza ezberdinak (ELO-032/004)

"Suizak" izan dituzte beti. Gerra denboran Bilbo aldean egon ziren eta handik idi "turangoak" eta behi pinta bi (holandesak) ekarri zituzten. Nolakoak diren turangoak, pirenaikak eta herri-behiak.

454. Okela eta harakinak (ELO-032/005)

Suiza arrazako ganaduaren okela onena. Harakinei ez zitzaizkien txahal handiegia gustatzen. Harakinen trikimailuak.

455. Salerosketa-tratua (ELO-032/007)

Batzuetan pisatuta eta beste batzuetan "begira" egiten zen ganadu-tratua. Iruzkinak eta pasadizo umoretsuak.

456. Behia ume-eske (susara) (ELO-032/008)

"Ume-eske" berba erabiltzen zen behiaz. "Alta" astoaz. Normalean ezagun izaten zuten. Idiskoa etxekoa, baina beste behi batena. "Puestoa" ere egon zen, baina jendeak nahiago zuen etxe inguruko idiskoa.

457. Txahalgintza (ELO-032/009)

Etzanda egiten dute txahala normalean. Batzuetan atzeraka etortzen dira eta orduan kontuak. Albaitariei buruzkoak. Txahal baten jaiotza zehatz kontatuta. Erantzun umoretsua.

458. Txahala jaio eta gerokoak (ELO-032/010)

Behiak txahala miazten du eta norberak ez du ezer egin behar. Kadena laster egitea komeni izaten da. Poliki-poliki gutxituz joaten zaie esnea. Berriz txahaldun jartzen ziren asko eta ez zen komeni azkeneko egunera arte tiraka ibiltzea.

459. Ganaduen gaixotasunak (ELO-032/012)

"Lanparoiak", gaixotasun nagusia. Eta "ahoko miña", oso kutsakorra. Nola jasan zuten behin. "Erroibena": errapea gogortzea. "Esnegolpia".

460. Ganaduen gustuko janak (ELO-032/013)

Belar klase asko dute gogoko: alfalfa, sekula belarra, negu belarra, ailorbea... Arbia eta erremolatxa ereiteari utzi zaio.

461. Lehengo eta oraingo kortak (ELO-032/015)

Lehen kortak azpian lurra edo arbela. Orain porlana, eta beste garbitasun bat egoten da. Lehen ura errekan edaten zuten ganaduek. Ur epela nahiago hotza baino. Astoa etxeko lanetarako baino gehiago, kalera joateko.

462. Aingira eta amuarrainak (ELO-032/016)

Baserria erreka ondoan egon arren, ez zuten arrantzarako zaletasunik. Aingira nola harrapatu zuten. Amuarrainak eta ezkailuak.

463. Berrizen ezberdin euskaraz (ELO-032/017)

Elorrio aldean antzera berba egiten da, baina San Agustiner aputxo bat aldatzen da, Apatara dezente eta Berrizera asko.

464. Baserritarrak eta kaletarrak (ELO-032/018)

Lehen kaletarrak baserritarrak baino argiagoak ziren euren ustez. "Boronos" deitzen zieten baserritarrei. Gero gosea etorri zen eta denak "borona" (artoa) jateko deseatzten. Orain ez dago alderik.

465. Gerra ostean euskara guxiago (ELO-032/019)

Berak euskaraz egin izan du beti, baina gerra ostean asko jaitsi zen euskara. Dantza eskatzerakoan erantzuna erdaraz askotan. Soldadutzan "itzultzaile" lanetan jardutea egokitu zitzaion.

466. Hika (ELO-032/020)

Berak hika egiteko ohitura du lagunekin-eta. Bi lagunek zuka egin izan zioten, eta hika egiteko eskatzen zien.

467. Errenteroak, baina ugazaba ona (ELO-033/002)

Errenteroak ziren; erosi egin zuten etxea horretarako aukera baliatuz. Huskeria bat ordaintzen ei zuten errenta. Oso ugazaba ona zuten.

468. Olaren arrastoak (ELO-033/003)

Ola du izena baserriak eta oso antzinakoa dirudi. Eskoria agertu zen lurpean. Kanalik, osteria, ez dute aurkitu. Udalatxan minak baziren, eta horren arrastoa ote eskoria?

469. Ura, argia eta sua (ELO-033/004)

Ez zen urik etxean eta errekarra joaten ziren musua garbitzera uda eta negu. 14 urte zituela ipini zen argia. Petrolioaz eta karburuaz ibiltzen ziren aurretik. Lehenagokoa ez zuen ezagutu. Beheko sua.

470. Aitita erdi bertsolaria (ELO-033/005)

Bera ez da ona izan horrelako gauzetan baina amari eta aititari kanta eta bertso asko entzundakoa da. Aitita erdi bertsolaria zen.

471. Errota bakarra Igurian (ELO-033/007)

Igurian 23 baserri dira, eta beste hiru desagertuta daudenak: Amilla, Agarre eta Akiso. Hiruretan ezagutu du jendea. Errota bakarra. Auzolana eta auzotasuna.

472. Ermitak (ELO-033/008)

Santa Katalina auzoan bertan, eta Santa Luzia Udalatx barrenean. Santa Luzia eguna inportanteagoa zen. Auzo guztia gonbidatuz beteta egoten zen.

473. Ardiak (ELO-033/010)

160 ardi inguru izaten zuten. Memarixa mendian ibiltzen ziren. Bildots-denboran artzainak gainean egon behar du. Apiril aldera amaitzen da sasoi eta gero gaztagintza dator.

474. Azeria, ardiaren etsairik handiena (ELO-033/013)

Azeria da ardiaren etsairik handiena. Lehenengo ardia hil, gero sabeletik umea atera eta jan egiten zion. Behin hiru azerikume harrapatu eta hazi zituen.

475. Gerra denborako kontuak (ELO-033/015)

Frontea hurbil zuten, eta soldaduen sartu-irtena izaten zen etxean. Gurasoak Bilbo aldera joan ziren ihesi artaldea, behiak eta idiak hartuta. Bera etxean geratu zen senide batzuekin. Behi bat utzi zieten. Besaidetik behera sartzen ikusi zituen "nazionalak", bandera eta guzti.

476. Bolalekuak (ELO-033/016)

Umetatik bolaria. Bizkaian bolatoki gutxi. Gipuzkoan, berriz, ugari: Elgeta, Plazentzia, Arrate, Elgoibar, Lastur... Federatuta zegoen eta txapelketak irabazitakoa da.

477. Boletako teknika eta arauak (ELO-033/018)

Bolatoki batzuek "azpijana" behar dute, beste batzuek "gainjana". Azalpenak. Txapelketetan beti bola eta txirilo berdinak erabiltzen dira.

478. Bolari onaren sekretuak (ELO-033/019)

Zenbait bolari on: Elgoibarko bi anai, Markina aldeko beste bat... Indarra ona da, baina teknika ere bai: gerri biguna, hanketan indarra eta kontrola...

479. Zortea (ELO-033/020)

Finalera heldu zen batean, hirugarren posturako desenpatea egin zuten eta batekoarekin irabazi zuen. Zortea ere jokatzen du.

480. Trabesak eta tongoak (ELO-033/021)

"Baten parra bi ezetz" eta horrelakoak dira apustuak. Azalpenak. Urte batzuetan diru asko jokatzen zen. Bolariak ez dira jokalaririk handiak izaten. Oso erraza da tranpa egitea. Nola, azaltzen du.

481. "Ol-huts" (ELO-033/023)

Pike apur bat ere izaten da. "Oluts" zer den. Bolari onenak ere egiten ditu "olutsak".

482. Karobi industrialia (ELO-033/026)

Karobi industrialia nolakoa zen eta nola kargatzen zen azaltzen du. Ota-karobitik guztiz ezberdina.

483. Funcorren sorrera (ELO-033/027)

Andoni Esparza izenekoak mugitu zuen lehenik. 40 lagun elkartuta hasi ziren. Gasteizen hasi ziren baimen kontuengatik. Fundizio-lana. Lingotea eta txatarra lehengai.

484. Funcorren urte onak eta txarrak (ELO-033/028)

Ilusio handiz hasi ziren. Denek berdin irabazten zuten, gerenteak izan ezik. Gero hasi ziren diferentziak. Puntuen sistema hasi zen. Injustua irizten dio. Urte onak ere izan zituen baina gaizki amaitu zen.

485. Kooperatibetan "santu" asko (ELO-033/031)

Kooperatiba ona izan ei daiteke ondo eroanez gero, baina "santu" asko egoten ei da. "Ha nere laguna dok eta ha ekarri...".

486. Zinegotzi lau urtez (ELO-033/032)

Auzoetako ardura izan zuen zinegotzi izan zen denboran (2003-2007). Bideak izaten ziren arazo nagusia. Farolak jarri ziren baserrietan. Legealdi bat laburregia da lana ondo egiteko.

487. Elorrioko euskara politena (ELO-033/035)

Elorrion antzera egiten da berba leku guztietan. Bere ustez, Elorrioko euskara da onena. Bizkaian ez da euskara dotore famako herririk. Gipuzkoan, Oñatikoa gustatzen zaio.

488. Euskaraz egitearren zigorra (ELO-033/036)

Egon da jendea euskararen kontrakoa. Ikurrinari buruzkoak. Eskolan zigortuta euskaraz egiteagatik: harri-koskorak belaunpetan ipini, liburuaz jo eta horrelakoak.

489. Beraneanteak gusturen baserritarrekin (ELO-033/037)

Beraneante asko izaten zen Elorrion eta neskak baserritarrekin ibiltzen ziren gusturen dantzan.

490. Euskara, munduan dagoen gauzarik politena (ELO-033/039)

Euskara, munduan dagoen gauzarik politena. Galtzea penagarria litzateke, eta geure kulpaz gal daiteke. Orain arriskuan ikusten du berriz.

491. Arespakotxaga, abizen ilustrera (ELO-034/002)

"Aspotxa" (Arespakotxaga), baserri izena, abizen inportantea da. Baserria 1468koa da. Arespakotxagatarrak Madrilera joan ziren aspaldi eta gortean eta politikan kargu handiak izan dituzte.

492. Leiz-Miñota auzoa (ELO-034/004)

Auzoko berri: ermita eta jaiak. San Lorentzo noiz berriztu zen. Berrizko mugan dago baserria, baina Elorriora izan dute jokera.

493. Garia erein (ELO-034/005)

Garia udagoienean ereiten zen, Santa Katalina egunerako (azaroak 25) ahal izatera. Garia nola ereiten den. "Azatza" eta "errotu" zer diren.

494. Udazkeneko eta udaberriko beste ereintza-lan batzuk (ELO-034/006)

Berakatza, bababeltza, ilarra... ereiten ziren udazkenean. Eta txidarra, oloa, alfalfa, "berdia" (pagatxa), ganajatekotarako. Ailorbeak gustu txarra ematen die esnari eta okelari. Artoa maiatzean ereiten zen, San Isidro inguruan.

495. Garia ebaki eta jo (ELO-034/007)

Igitaiz ebakitzen zen antzina, familiakoen artean, apurka-apurka. Jo, eskuz, harlauza baten gainean, "matxakiaz" gero. Azken aldera, ganaduekin ibiltzeko makinaz ebaki eta trilladoraz jotzen zen, auzo guztiak elkarri lagunduz.

496. Artoa (ELO-034/008)

Artoa maiatzean ereiten zen. "Narra" pasatzen zitzaion eta aitzurraz bete. "Galiña" (punta) kentzen zitzaion ganajatekotarako, baina hori egitea ez da ona. Artazuriketa.

497. Baba batzen eta aletzen (ELO-034/009)

Udazkeneko beste lan bat: baba batzea. "mokol-hauskiaz" jotzen zen. "Txibitia" (idaurra) zer den.

498. Artoa urkultzen (ELO-034/011)

Artoa neguan urkultzen (aletzen) zen, eskuz, "txorokillaz". Hazitarakoa apartatzen zen. Bertako artoa, "kruzaua". Arto klaseak.

499. Gari klaseak (ELO-034/012)

"Normala" eta "goiz garixa". Behin goiz garia erein zuten eta hondatu egin zitzairen eguraldiagatik. Garagarrik ez. Oloa eta txidarra berdetan jateko bakarrik. Zekalerik ez.

500. Sagarrak (ELO-034/014)

Sagar asko izan dute. Sagar klaseen izenak. Orduan ez zitzairen harrik egiten. Fabriketako kutsadurak hondatzen ditu.

501. Melokotoiak, okaranak, gereziak (ELO-034/015)

Melokotoi asko hartzen zen lehen, baina orain ez. Okaran klaudiak izaten dituzte bakarrik. "Keixa baltza" izaten zuten, batez ere. Sasoian astoaz joaten ziren Arrasatera-eta saltzera. Orain botika barik ezin da ezer hartu.

502. Miñotarrak, borrokalari amorratuak (ELO-034/018)

Miñotarrei buruzko esaera. Borrokalari amorratuak ziren miñotarrak. Erromeria guztietan egin behar izaten zuten borroka.

503. Animaliak eguraldiari igarri (ELO-034/019)

Animaliak igarri egiten du zer eguraldi datorren. Elaiek (enarek) alde egin zuten hemendik azken udaberrian. Hil egin ziren, dirudienez. Kuartadenborei ez die jaramonik egiten. Inoiz ibilita daude garia jo ezinda euriagatik.

504. Elurra eta izotza (ELO-034/020)

Lehen elurra askoz ere gehiago egiten zuen. Arreba Berrizera eskaileran eroan zutenekoa. Elur klaseak. Izozte handia egin zuen urtea. "Zurdia" edo "lei baltza" zuritu gabe egiten duenean.

505. Urixolak (uholdeak) (ELO-034/022)

Gogoan ditu Bilbokoak (1983), baina gogorrakoak izan ei ziren berak mutikotan Elorrion ezagututakoak. Orain ere halako euriak egingo balitu, gaizki ibiliko ei ginateke.

506. Altzoan zeukan moja bonbak hil (ELO-034/025)

Umezurtza zenez, mojekin bizi zen Elorrioko ospitalean. Bonbardaketak hasten zirenean, baso batera joaten ziren. Moja batek (Sor Estefanía) altzoan zuen Isidro, eta bonba batek hil zuen hura; berari ez zitzaion ezer gertatu. Ez du mojen oroitzapen onik. Gero, tunelean babesten ziren.

507. Kaletik Miñotara bonben ihesi (ELO-034/026)

Kalean arriskuan zeudela eta, baserrira itzuli ziren. Gorrien antiaereoak zeuden etxe ostean. Ez zuten abioirik azertatzen. "Abuelo" deitzen zieten abioia eta Francoren aldekoak.

508. Ira eta satsa (ELO-034/029)

Iratan egitea derrigorra zen. Urrun zeukaten zenbait irasail, Memarixan eta Kanpazarren, esaterako. Satsa nola zaindu.

509. Elorrixoko euskara gogoko (ELO-034/031)

Euskarak doinu diferentea, Berrixon edo Abadiñon, esaterako. Arratiara asko aldatzen da. Kosta aldera ere bai. Eibartarrek klaru egiten dute berba. Elorrioko euskara du gogoko.

510. Eskolan zigorra euskaraz egiteagatik (ELO-034/032)

Eskolan gogor egiten zieten euskaraz egiteagatik. Zigorrak, erregelaz hatz puntetan jo edo liburuak eskuetan jarri, esaterako. Soldadutzan ere debekatuta.

511. Telebista erdaraz gusturago euskaraz baino (ELO-034/033)

Umetan ikasi zuen erdaraz. Orain ere hobeto ulertzen du telebista erdaraz euskaraz baino. Ez du ongi ulertzen euskara batua. Iloba euskalzalearen aipamena. Lagunartean beti euskaraz.

512. Hika (ELO-034/034)

Hika egin ohi du normalean lagunekin. Emakumeekin zuka gehiago. Andreari beti zu. Ez die inportantzia berezirik eman euskarari eta erdarari.

513. Herri-eskolara (ELO-035/002)

Elorriora joan zen eskolara; erdaraz dena. Doña Clinia, oso gogorra. Katona erabiltzen zuten. Dotrina ere erdaraz. Komunioa gerra ostean egin zuen.

514. Baserrian kuartela gerra denboran (ELO-035/003)

Gerra denboran, kuartela jarri zuten Pulla baserrian errepublikanoek, eta bi ahizpa Gazetara joan ziren bizitzera. Arbolapean zegoelako salbatu ei zen baserria.

515. Nolakoa zen baserria (ELO-035/005)

Beheko sua zegoen. Nolakoa zen kontatzen du. Ur korronterik eta argirik ez. Ekonomikarik ere ez dute izan.

516. San Juan suak (ELO-035/008)

Lehen soloetan su txikiak egiten zituzten San Joanetan. Orain bat handia etxe ondoan. "Zapuak eta sorgiñak erre-erre...". San Juan kantua esaten digu.

517. Etxeko giroa (ELO-035/010)

Arrosarioa errezatzen zuten artoa zurituz. Aita hargina zen eta amak zeroan etxeko ardura. Artzaina ere ama zen.

518. Areetan kriada 19 urterekin (ELO-035/011)

Lehenengo Elorrioren eta gero Areetan ("Areetan", bere hitzetan) egon zen kriada, aberats-etxe batean. Etxe ona, baina diziplina gogorra zuten. Bi neskazahar ziren nagusiak, bi etxe zituzten, eta bakoitzak lau kriada eta txoferra.

519. Erromerietako giroa (ELO-035/015)

Egun pasa joaten ziren familiak astoarekin San Lorentzora. Barkileroak eta beste saltzaile batzuk. Oso dantzaria zen eta dantzari onak ez ziren mutilei kalabazak ematen zizkieten.

520. Gurasoak ezkontza bitartekari (ELO-035/016)

Informeak eskatzen zituzten aberats-etxetakoek mirabeez. Gurasoek hitzartzen zituzten ezkontzak euren denbora baino lehen. Nola elkartzen nobiogiak ziren erromerietan.

521. Neskametzako bizimodu estua (ELO-035/018)

Goikoaz komentarioa. Kalabaza asko ematen zuten dantzan. Gazte-denborako urterik onenak kriada eman zituen. Dantzara-eta irteten ziren baina goiz erretiratu behar.

522. Dantza eta soinujoleak (ELO-035/019)

Anaia dantzaria zuen. Berari suelta eta pasodobleak gustatzen zaizkio, tangorik-eta ez. Arbulu, Angiozarko Itxua... soinujole ohikoak.

523. Kriaden bizimoduaz (ELO-035/021)

Neska asko kriada joaten zen baserriko lanarekin nekatuta. Hiriburura kriada joatea gauza handia zen orduan. Alderdi onak eta txarrak. Iruzkina orduko bizimoduaz.

524. Inudeak eta "aiña seka" k (ELO-035/022)

Ezagutu ditu inudeak, eta "aiña seka" elorriar bat ere bai Bilbo aldean, inude joan eta gero aberats-etxean umezain geratutakoa.

525. Gerra denbora (ELO-035/023)

Baserria kuartel gisa hartu zuten gerra denboran. Soldaduek esne kondentsatua eta gailetak ematen zizkieten. Familian, batzuk soldadu joan ziren, eta beste batzuk Bilbo aldera iheslari. Bera Gazetara; behi bat utzi zuten beren kontsumorako.

526. Bataioa eta buru gaineko teila (ELO-035/024)

Aita-ama pontekoak eta bataioa. Izena nola aukeratzen zen. Zuriz jantzita umea, normalean. Ama osatzen zenean "elizan sartzea" egiten zen. Bitartean ezin zen etxetik kanpora irten, teila buruan ipinita izan ezean.

527. Bataio ondorengoak eta "mokotza" (ELO-035/025)

Bataio ondoren etxean egiten zen jatordutxo bat. Auzoko emakumeak etortzen ziren bisitara erregalotxo batekin, baina ez denak batera. Aitapontekoek "mokotza" oparitzen zioten besoetakoari Pazkoetan.

528. "Linboa" (ELO-035/026)

Bataiatu gabeko umeak "linboan", kanposantu ondoko leku batean lurperatzen zituzten.

529. Gripe-urtea (ELO-035/027)

"Gripe-urteaz" (1918) bere amari entzundakoak. Edozenbat hildako Elorrion.

530. Kukurruku-eztula, tuberkulosia eta abar (ELO-035/028)

Kukurruku-eztula, burutik beherakoa, tuberkulosia... orduko gaitz arruntenak. Apatara bidean zegoen tuberkulosidunak isolatzeko etxea.

531. Begizkoa (ELO-035/030)

Bi andra eskekoren istorioak. Esanezina sendatu eskekoak emandako ogia janda. Eskekoei ez zaie esku ezkeraz limosnarik eman behar. Auzoan eta familian gertatutako kasuak.

532. Begizkoaren kontrakoak (ELO-035/031)

Eskapularioak eta kutunak ipintzen zitzaizkien haurrei. San Blasetao kordoia.

533. Sendabelarrak (ELO-035/032)

Asunak modu askotara erabiltzen dira sendakuntzan. Enplasto-belarrak, berbena, zain belarra, arto-bizarrak...

534. Ermitetara osasun eske (ELO-035/033)

Angiozarko ermita batera joaten ziren, amets txarrak sendatzen zituela eta. Santa Luziara joaten da jendea bistagatik. Eztarriko mina, beherakoa, bizixoak eta abarrentzako erremedioak.

535. Sasimedikuak (ELO-035/034)

Elgoibarko sasimediku batengana joaten zen "estomagua altzetan". Elorrion gertatutakoa.

536. Ermita lekuz aldatzen zuen santua (ELO-035/036)

Gazta eta auzoan esaera da San Martin ermita behean eraikitzen hasi zirela, baina gauzez santuak gora eramaten zituela eraikitakoak. Pena hartzen du ermita jausita dagoelako.

537. 'Cara al Sol' kantatzen (ELO-035/038)

Berak erdarazko eskola ezagutu du bakarrik. Cara al Sol kantatzen zuten. Anai-arreba zaharragoak ikastolan ibili ziren. Arrazolako maistrak zigorrak euskaraz egiteagatik.

538. Beraneanteak Elorrion (ELO-035/039)

Lehen beraneante asko etortzen zen Elorrion, orain bat edo bi bakarrik. Beraneanteen seme-alaben bilkurak etxe ondoko iturrian. Ez ziren nahasten eurekin.

539. Getxon euskara gutxi (ELO-035/042)

Elorrioko euskara estimu handian du. Gizonarekin (Getxokoa da) erdaraz egiten du. Getxon gutxi egiten zen euskaraz. Aberats-etxeke bi emakumeek frantsesegatik egiten zuten elkarren artean zerbitzariak ez ulertzeko.

540. Pinua sartu, zaindu eta bota (ELO-036/004)

Lehen zarratuago sartzen zen pinua orain baino. Entresaka egitea ezinbestekoa da. Bakoitzak komeni zaionean botatzen du baina 60 urtetik gorakoak hondatuta daude. Orain handiagoak botatzen dira.

541. Basomutilak (ELO-036/009)

Andaluz asko ibiltzen zen basomutil. Gero azeitunetara joaten ziren. Santanderinoak ere baziren.

542. Pinua zuritzen eta mozten (ELO-036/011)

Apea denak zuritzen ziren eskuz, palaz. Apeako hainbeste kobratzen zuten zuritzaileek. Apea estereoka neurtu ohi da (m3, metro bete altura, luze eta zabal).

543. Aldape auzoa (ELO-036/017)

Elorriotik Elgetara bidean eskumara dago Aldape auzoa. Hiru ermita ditu. Santixauak, erromeria eguna.

544. "Liberaziño eguneko" karrera (ELO-036/020)

Karrerak ikustera batera eta bestera. Auzoko bat, antzina, ona ei zetorren baina hil egin zen. Elorrion "Liberaziño egunean" profesionalen karrera egiten zen.

545. Orduko txirrindulariak (ELO-036/021)

Bartali eta Copi ziren onak bere mutiko denboran. Manzidor eta Lankarika hemengoan artean. Herri guztietan izaten ziren karrerak. Kastillanoak Bahamontesen alde eta euskaldunak Loroñoren.

546. Elorriarraren apustua Urkiolan (ELO-036/023)

Elorriar batek postura egin zuen Urkiolara berrogei kilo hartuta baietz bizikletan igo eta irabazi egin zuen.

547. Espainiako Itzulia Karabietan (ELO-036/024)

Gogoan du Elgetako Karabieta gainerik Espainiako Itzulia pasatu zen eguna. Poblet lehenengo. Lantegietan jai, jende pila itzela. Karabana ikustera jende gehiago karrera baino.

548. Paoka eta txorromorroka; txirrinkolia (ELO-036/027)

Ezkutaketa jolasari "paoka" esaten zaio Elorrion. Nola jokutzen zen. Txorromorroka. "Txirrinkolia".

549. Tronpa (xiba) (ELO-036/029)

Tronparekin ere egiten zuten jolas. Nola botatzen den azaltzen dute osabak eta ilobak (Aimar Ardanza Garzia).

550. Gerra hasiera (ELO-036/030)

1936ko urriaren 4an, frankistak oso hurbil heldu ziren, etxetik ikusten zuten haien bandera. Gero, milizianoak igo, aurre egin, atzera bidali eta frontea sei hilabetez gelditu egon zen.

551. Milizianoak jana eroatera (ELO-036/031)

Arrautzak, oiloak eta horrelakoak eroatera etortzen ziren etxera soldadu errepublikanoak.

552. Aita Sopuertara ihesi ganaduak hartuta (ELO-036/032)

Aita Sopuertara joan zen ihesi, etxeko ganaduak hartuta. Auzoko beste baserritarrek ere berdintsua egin zuten. Behi bat utzi zuen etxeko esnerako.

553. Mutikoak gerra-lekuraino (ELO-036/033)

Aldapen ez zegoen arriskurik, hegazkinena bakarrik. Harizpe batetik ikusten zituzten bonbardaketak. Berriora antiaereoak ikustera. Intxortara, soldaduen artera.

554. Gerrako hegazkinak (ELO-036/035)

Errepublikanoen aldeko abioi bat ibiltzen zen poliki-poliki, baina Francoren aldekoak ikustean ihes egiten zuen. Gernika bonbardatzera zihoazen hegazkinak.

555. Gazetan bonba batek gizona hil (ELO-036/037)

Bonba batek laurogei urteko gizona hil zuen Gazetan, satsa zabaltzen ari zela.

556. Gaez errotara (ELO-036/039)

Angiozarrera, Uberara, Eitzagara... joan behar izaten zuten gaez errotara. Ibilera txarra. Bideak ondo ezagutzen zituzten. Astoa ez ei da galduko. Sekula ez zuten arazorik izan. Guardia zibilak eurek kendu zioten prezintoa auzoko errotari.

557. Arrazionamendu-kartilla (ELO-036/040)

Arrazionamendu kartilla: txandan egoten ziren Tetuanen eskolarakoan, eta gero amak hartzen zien lekua. "Txuskua"

558. Trukea errioxarrekin (ELO-036/041)

Olioia baba-truke lortzen zuten Errioxako senide batzuegandik. Ardoa zelakoan nola bidaltzen zuten olioia Errioxatik. Sagarra mahatsaren truke. Estazioko langile batek nola edaten zuen ardoa heltzen ziren barriketatik.

559. Irina lortzeko bideak asmatu behar (ELO-036/042)

Errota mekanikoak asmatu zituzten; irin latza egiten zuten baina ezer ez baino hobea. Zekalea ere ereiten zen. Ogi beltza ateratzen zuen, baina kalekoa baino hobea hala ere, hau ezkurrez edo egina zelako. 1950 aldera hasi zen egoera hobetzen. Salbakonduktoa behar zen gerra ostean mugitu ahal izateko.

560. Gizona eta bi semeak gazterik hil (ELO-037/002)

Mendrankan jaio eta Aldapera ezkondu zen. 59 urte darama auzo honetan. Bi seme izan ditu, biak hilda daude. Gizona ere gazterik hil zitzaion, ezkondu eta hamar urtera.

561. Baserrian beharra astoaren moduan (ELO-037/003)

Lekeitio egon zen tabernan lanean gerra-denboran. Mendrakako baserrian "biharra astuan moduan" egindakoa da. Bere baserria non dagoen azaltzen du.

562. Eskolan dotrina eta galtzeginan bakarrik ikasi (ELO-037/005)

Eskolara joan joaten ziren, baina ez zuen ia irakurtzen ere ikasi. Maistra batengana joaten zen. Dotrina besterik ez zuten ikasten, eta arratsaldetan galtzeginan egiten zuten.

563. Anbotoko Señora, ondo-ondoka, sakaponak... umetako jolasak (ELO-037/007)

Txikitan hartzen zuten olgetarako astia. Anbotoko Señoraren jolasa, ondo-ondoka (gorde-gordeka), sakaponetan eta horrelakoetan ibiltzen ziren

564. Eibarko eskopetak azaldu zirenean galdu ziren sorgin kontuak (ELO-037/008)

Eibarren armak egiten hasi zirenean amaitu ei ziren sorgin kontuak eta horrelako lelokeriak. Oso ilun egoten zen Mendrakako bidea erromeriatik etxerakoan.

565. Lekeition lau urtez gerra denboran neskame (ELO-037/010)

Lau urte egin zituen Lekeition lanean gerra denboran, 19 urterekin joanda. Bere sasoi onena han pasatu zuen, ez erromeria eta ez ezer.

566. Erromeriak eta neska-laguntzak (ELO-037/012)

Elorrioko plazan makinatxo bat dantza egindakoa da. Mutilekin dantzan egiten zuten, "agarrauan, ondo edarto". Neska-laguntzak ere egiten ziren. Orain ohitura hori galduta ei dago.

567. Leketion, Francoren tropak sartzean, larri (ELO-037/015)

Gerra gogorra dela dio, ez erromeria eta ez ezer. Lekeition Francoren tropak sartzean izandako estutasunak kontatzen ditu. Bizkargi mendian soldadu asko hil eta zauritu zen, eta berak haiek ikustean tristezia sentitzen zuen.

568. Mendrakarrak gerra denboran preso (ELO-037/017)

Bere osaba eta beste auzotar batzuk gerra denboran preso hartu eta kartzelan eta hortik zehar luzaroan nola ibili ziren kontatzen du.

569. Medikuek oinez eta bizikletan. Bizixoaren kontra bedar-ura (ELO-037/020)

Medikuek ere nahikoa lan izaten ei zuten. Bizikletan ahal zuten lekuraino eta gero oinez, ez zegoelako biderik. Bizixoen kontrako belar-ura hartzen ei zuen, gustura. "Solitariaz" ari dela dirudi. Mendrakatik Aldapera etorrita gero bota ei zuen.

570. Urtebetetze-eguna noiz denik ere ez (ELO-037/024)

Ogia lurrera jausiz gero, mun egin eta hartzen zuen beti. Orain ere bai berak. Urtebetetze eguna noiz denik ere ez. "Urtiei kasoik be ez eta aurrera" dio.

571. Doministikua (ELO-037/025)

"Jesus, doministikun, jangoikuak lagundu deitsuzula" ei zen doministiku egindakoa esaten zen formula.

572. Erdaldunak gerra ostean Mendrakara (ELO-037/027)

Ez daki erdara askorik, baina gaizki esaka jardenez gero ulertzen du. Erdaldun asko etorri zen Mendrakara gerra ostean baina kalean zerbait aurkitu zutenean laster alde egin zuten. Haiekin erdaraz egin behar.

573. Hilekoa (ELO-037/031)

Hilekoa heltzen zitzaientean "ahal dana" egiten zuten. Behin basora ira ebakitzera zihoala etorri ei zitzaion, amantala lekuan jarri eta lanean egiten zuten jo ta ke egun guztian.

574. Lixiba egiten (ELO-037/033)

Aldapen ez du lixibarik egiten izan, baina Mendrakan bizi zenean bai. Lixiba zela egiten zuten azaltzen du. Ereintz-orria eta sutako hautsa botatzen zioten; sutako hautsak zuri-zuri egiten du arropa eta ereintz-orriak usain ona ematen dio. Lejiak erre egiten du arropa. Trapoak jartzen zituzten hilekoa zutenean.

575. "Ez ibili", umerik ez izateko erremedioa (ELO-037/035)

Datozen umeak "altzau" egin behar direla dio, eta umerik gura ez duenak "ez ibili". Erremedio ona ei dauka horrek. Orain laguntzak daude baina lehen ez, eta makina bat sufrituko ei zuten gurasoek.

576. Elurzuloaren inguruko aipamenak (ELO-042/003)

Elurzulo bat ezagutu zuen mutikoa zenean; haren inguruko aipamenak.

577. Elurzuloaren prestaketa-lanak. (ELO-042/004)

Elurzuloan jarduten zuten mutikoak lanean. Elurzuloak behar izaten zituen prestaketa-lanak. Mutil batzuek elurra batzen zuten bitartean, beste batzuk zuloaren barnekaldea prestatzen zuten.

578. Elurzuloaren formaren inguruko datuak. (ELO-042/005)

Elurzuloaren forma. Laukiak eta borobilak ere bazeuden. Elurzulo baten inguruko datuak ematen ditu.

579. Elurzulora elkurra nola garraiatzen zuten (ELO-042/006)

10-12 urte inguruko mutilak jarduten zuten lanean elurzuloan. Urrutiko elurra ekartzeko, lera erabiltzen zen.

580. Elurzuloaren egitura (ELO-042/007)

Elurzuloaren egitura. Zuloaren ormak, arbelezkoak. Erreka ondoetan, "osingak". Lurraren arabera elurzuloan orma egin behar izaten zen ala ez. Zuloaren azpikaldean, alkozta botatzen zen.

581. Elurzuloak izaten zituen lanak (ELO-042/008)

Elurra batzeko eguraldirik egokiena. Zenbat elur botatzen zen zulora. Elurzuloak zituen lanak.

582. Elurzuloaren egitura (ELO-042/009)

Elurzuloak zituen lanak. Mutikoen lana. Elurzuloaren egitura.

583. Elurzuloaren inguruko azalpenak (ELO-042/010)

Elurzuloa zenbat betetzen zen. Zerekin tapatzen zen.

584. Elurzuloaren egitura (ELO-042/012)

Elurzuloaren egitura. Elurzuloa egiteko erabilitako materiala.

585. Elurzuloaren egitura (ELO-042/013)

Elurzuloaren egitura. Berak ezagutu zuenak "ate-bikotxa" zuen. 8 metro inguruko sakonera zuen elurzuloak.

586. Elurra nora saltzen zen (ELO-042/016)

Elurzuloaren jabeak errentan uzten zuen. Elurra nora saltzen zen.

587. Elurzuloan lanean jarduten zuten mutikoak (ELO-042/017)

Zenbat pertsona jarduten zuten lanean. Eskuekin batzen zen elurra.

588. Elurzuloa betetzeko egin beharreko lanak (ELO-042/018)

Elurra nola batzen zuten. Elurzuloa betetzeko prestaketak.

589. Elurzuloa betetzeko prestaketak (ELO-042/019)

Elurzuloa betetzeko prestaketak. Lehenago elur asko egiten zuen. Elurra lerarekin garraiatzen zuten.

590. Elurra nora saltzen zuten (ELO-042/020)

Elurra nora saltzen zuten. Elurra nola ateratzen zuten elurzulotik.

591. Elurra elurzulotik nola ateratzen zuten (ELO-042/021)

Elurra nola ateratzen zuten elurzulotik.

592. Azkenengo elurra noiz batu zuten (ELO-042/022)

Azkenengo elurra noiz batu zuten.

593. Elurzuloa betetzeko erremintak (ELO-042/023)

Erabiltzen zituzten erremintak. Izozte handiak egiten zituen aspaldi; izotz-kandelak. Eguraldiak izan dituen aldaketak.

594. Elurzuloa betetzeko prestaketak (ELO-042/024)

Elurzuloa betetzeko prestaketak. Elurra nola zapaltzen zuten. Oinetako bereziak.

595. Elurrarekin lan egiteko erabiltzen zituzten arropak (ELO-042/025)

Elurra nola zapaltzen zuten. Elur-zuloan lan egiteko erabiltzen ziren arropak.

596. Azkenengo elurzuloa egin zeneko kontuak (ELO-042/026)

Azkenengo elurzuloa egin zeneko kontuak.

597. Etxe inguruan zuten elurzuloaren inguruko aipamenak (ELO-042/027)

Etxe inguruan zuten elurzuloa nolakoa zen. Harekin lotutako istorioak.

598. Elurzuloak betetzeko lanak (ELO-044/003)

Elurzuloa aspaldikoa zen. Elurzuloa norena zen azaltzen du.

599. Elurzuloaren egitura (ELO-044/005)

Elurzuloaren inguruko azalpenak. 6 metro inguru ziren sakonean eta forma desberdinak izaten zituzten. Harri beltzarekin egiten zuten.

600. Elurzuloa betetzen auzolanean (ELO-044/006)

Bere aita elurzuloa betetzen eta ateratzen ibili zela gogoan du, berak 12 urte zituela. Auzolanean egiten zuten. Idiekin ekartzen zuten elurra eta barruan zapaldu egiten zuten, gainean garoa botata.

601. Elurzuloko txabola (ELO-044/007)

Elurzuloko txabolaren inguruko azalpenak. Harriz, teilaz eta egurrez egindakoa zen. Arbela erabiltzen zuten.

602. Elurzuloa elurrez eta garoz beteta (ELO-044/008)

Elurzuloaren inguruko azalpenak. Gurdian garraiatzen zuten elurra. Elurra eskuz kargatzen zuten, eskuz elur-bolak eginda. Garo geruza bat ipintzen zuten tarteka.

603. Elurzuloetan garoa botatzen (ELO-044/009)

Elurzuloa zela betetzen zuten azaltzen du. Garoa botatzen zuten tarteka, aitzurrekin eta eskuareekin zabaldua, elur geruzak bereizteko.

604. Elurzuloetatik elurra eskuz jasotzen (ELO-044/011)

Elurzuloaren inguruko azalpenak. Izotza hankekin zapaltzen zuten. Eskuz moztu eta jasotzen zuten.

605. Elurra tabernetarako saltzen (ELO-044/012)

Elurzuloaren inguruko azalpenak. Izotza automobileraz garraiatzen zuten eta kalera saldu tabernarako.

606. Errepublikak irten zuenean (ELO-196/001)

607. Errepublika aurreko eskolan eraztuna (ELO-196/002)

608. Jose Antonio Agirre Axpen (ELO-196/003)

609. Gerra hasi eta Otxandiotik jendea (ELO-196/004)

610. Otxandioko bonbardaketaz (ELO-196/005)

- 611. Errefuxiatuak hartu Axpen (ELO-196/006)**
- 612. Nebak boluntario gerrara (ELO-196/007)**
- 613. Angel Ganboaren heriotza (ELO-196/008)**
- 614. Martxoaren 31ko bonbardaketa (ELO-196/009)**
- 615. Gudariak eta milizianoak Martzaan (ELO-196/010)**
- 616. Nazionalak Axpen eta Gorroño alkate (ELO-196/011)**
- 617. Pedro Ganboa preso hartu Laredon (ELO-196/012)**
- 618. Zigorrak: garbiketak eta isunak (ELO-196/013)**
- 619. Ikurrinak josten (ELO-196/014)**
- 620. Maria Azkargortari ile moztu ziotenekoa (ELO-196/015)**
- 621. Lau lagun baino gehiago ezin ibili alkarregaz (ELO-196/016)**
- 622. Gerra aurreko eskola: San Roken (ELO-197/001)**
- 623. Gerra aurreko jaiak (ELO-197/002)**
- 624. Gerra aurreko eliza: abade abertzaleak eta karlistak (ELO-197/003)**
- 625. Amak eskola gehiago eman gura seme-alabei (ELO-197/004)**
- 626. Errepublika aldarrikatu zen eguna: "¡Abajo el clero!" (ELO-197/005)**
- 627. Elorrion zeuden alderdiak eta euren egoitzak (ELO-197/006)**
- 628. Alderdi ezberdinetako jendea (ELO-197/007)**
- 629. Gerra aurretik Aberri Eguna (ELO-197/009)**

630. Durangotik etorri zen miliziano harroa (ELO-197/010)

631. 1936ko hauteskundeetan birritan bozkatu gura izan zuen emakumea (ELO-197/011)

632. Gerra hasi eta eskolarik ez (ELO-197/012)

633. Errefuxiatu otxandiarrek etxean. Sustoa kendu barik (ELO-197/013)

634. Lehenengo bonbardaketa Elorrion (ELO-197/014)

635. Eguraldi txarra egiteko errezatzen (ELO-197/015)

636. Milizianoak frentera eta bueltan (ELO-197/016)

637. Elorrioko jauregiak koartelak ziren (ELO-197/017)

638. Errefuxiatu asko Elorrion eta Jose Antonio Agirreren bisita (ELO-197/018)

639. Jesusa Atxak negar milizianoak frentera joaten zirenean (ELO-197/019)

640. Emakumeen funtzioa gerran: Pilar Abadia atxilotu (ELO-197/020)

641. Martxoaren 31ko bonbardaketa (ELO-197/021)

642. Martxoaren 31ko bonbardaketak zauritu eta hilak (ELO-197/022)

643. Martxoaren 31: arratsaldeko bonbardaketa (ELO-197/023)

644. Bonbardaketaren hurrengo egunean baserrira (ELO-197/024)

645. Gerran: preso eskuindarrak Elorrion (ELO-197/025)

646. Militar nazionalak baserrian sartu (ELO-197/026)

647. Errekisatzeak (lapurretak) euren etxean ere (ELO-197/027)

- 648. Emakumeak "moroen" beldur (ELO-197/028)**
- 649. Nebak frankistekin soldadu derrigorrean (ELO-197/029)**
- 650. Fidel Azkoaga (senarra): Gurutze Gorria-Erreketeak-Afrika (ELO-197/030)**
- 651. Osabak kartzelan: Jose Mari eta Jabier Zubiate Igartua (ELO-197/031)**
- 652. Osaba Jabierri kartzelan: "¿Quién bombardeó Gernika?" (ELO-197/032)**
- 653. "La Pacorra" etxerik etxe (ELO-197/033)**
- 654. Errepublikarrek fusilatutakoak (ELO-197/034)**
- 655. Juan Izurrategi Elorrioko abadea Leonen hil (ELO-197/035)**
- 656. Gernikako bonbardaketa Elorriotik (ELO-197/036)**
- 657. Soldaduak Intxortatik sartzen eta Hilario Arandok ihes (ELO-197/037)**
- 658. Gerraosteko eskola: moja katalanaren debekuak (ELO-197/038)**
- 659. Falanjisten selloa eta "La Pacorra" (ELO-197/039)**
- 660. "Diru gorria" batzen (ELO-197/040)**
- 661. Elorrioko deseskonbroa senarrak eta lagunek (ELO-197/041)**
- 662. Izeko Mari 17 urte gaz Durangoko emakumeen kartzelara (ELO-197/042)**
- 663. Amama bakarrik. Tio Pedro Afrikako gerratik ihes Frantzian (ELO-197/043)**
- 664. 500 pezetako isuna eta bostentzako afaria I (ELO-197/044)**

- 665. 500 pezetako isuna eta bostentzako afaria II
(ELO-197/045)**
- 666. Gerraostean beti txibatoren bat tabernan
(ELO-197/046)**
- 667. Familia gerra aurretik (ELO-198/001)**
- 668. Gurasoen ideologiaz (ELO-198/002)**
- 669. Gerra aurretik Elorrion dena euskaraz (ELO-198/003)**
- 670. Gerra hasi eta Durangora bizitzera (ELO-198/004)**
- 671. Durangora bizitzera joan zireneko akordiak
(ELO-198/005)**
- 672. Durangoko bonbardaketa. Ama zauritu. (ELO-198/006)**
- 673. Matienatik Mendatara eta Gernikako bonbardaketa
(ELO-198/007)**
- 674. Etxeko umeak Ingalaterrara joateko zorian
(ELO-198/008)**
- 675. Mendatetik Elorrion Alejandro Goikoetxeak jarritako
kamioian (ELO-198/009)**
- 676. Aitari bi kotxe errekisatu eta tailerrik barik geratu
(ELO-198/010)**
- 677. Elorrion amak atera zuen familia aurrera
(ELO-198/011)**
- 678. Elorrion ezin esan frankistek erre zutela Gernika
(ELO-198/012)**
- 679. Eskolan maisu nafar gaiztoa (ELO-198/013)**
- 680. Etxean irratia klandestinoki entzuten zuten
(ELO-198/014)**
- 681. Karlistek basatiki hil zituzten bi soldaduak
(ELO-198/015)**

682. Gerraoste gogorra (ELO-198/016)

683. Elorrioko familia errepresaliatuak (ELO-198/017)

684. Propaganda klandestinoak banatzen (ELO-198/018)

685. Elorrioko abadeak errepublikanoa elizatik bota (ELO-198/019)

686. Don Claudio Gallastegik Bilbon poliziak elizatik bota (ELO-198/020)

687. Elizako zertifikatua eta salbokonduktoak (ELO-198/021)

688. Jefe local del movimientori "lagundu" behar lanean (ELO-198/022)

689. Elorrioko ikastolaren sorrera (1968) (ELO-198/023)

690. Elorrioko ikastola sortu zen garaian gaztelera nagusitzen (ELO-198/024)

691. Hausnarketa (ELO-198/025)

692. Eskolako bizipenak (ELO-200/002)

Txikitako maistrak: Doña Maria elorriotarra eta Valladolideko bat. Lehen hiru-lau urte izkina batean pasatu zituen, gaztelera ez jakitearren.

693. Erdarazko lehen esaldia esan zuenekoak (ELO-200/003)

Gerra ostean, maisu-maistrak kanpokoak ziren eta euskaraz egitea debekatu zuten. Erdaraz egin zuen lehen esaldia gogoan du.

694. Umeen begietatik, bonbardaketa ikuskizun (ELO-200/005)

Igurria auzoan bizi da. Gerra garaian frontearen erdian egon ziren. Hegazkinak ikusitakoan, zuloan ezkutatzen ziren. Janaria izaten zen ardura nagusia. Gaztea zenez, ikuskizuna izaten zen haientzat bonbardaketa.

695. Gosea baino txarragoa (ELO-200/006)

Gerra ostean, ez zuen goserik pasatu; euskararen debekua izan zen kaltegarriagoa beretzat.

696. "Cara al Sol" irakatsi behar (ELO-200/007)

Inspektorea etorritakoan, umeei galdetzen zien euskarazko kantarik bazekiten. "Cara al Sol" erakutsi behar izaten zuen.

697. Tontolapikoren ipuina (ELO-200/013)

Tontolapikoren ipuina kontaktzen du.

698. Otsokoren ipuina (ELO-200/014)

Otsoko eta azeriaren ipuina kontaktzen du, Peru eta Marixa ere aipatzen dituen.

699. Eguraldi onarekin ikasleekin hondartzara (ELO-200/017)

Inspektorea etortzen zitzaizen tarteka. Eguraldi onarekin alde egiten zuen ikasleekin hondartzara. Araudiak estutu egin direla dio.

700. Euskalkiak eta batua, denentzako lekua (ELO-200/020)

Euskalkiak ulertzeko ez duela arazorik dio. Anekdotak batzuk kontaktzen ditu. Batuaren aldeko aldarria egiten du.

701. Gerra garaian kendutako irakasleak (ELO-200/022)

Gerra garaian kendu zituzten irakasleei buruzkoak kontaktzen ditu, aurrera nola egin zuten azalduz.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com